


3 euro

hh

h kh s

udako topaketak



2002ko UDA

Donostian

3 ikastalde

euskaraz eta

saio libreak arratsaldez

uztailak 2, 3 eta 4

euskal
heziketarako
aldizkaria

70

tram

DESIGN: NUSK
GRAFIK

LITERATURA UNIBERTSALA

JUAN
RULFO

Pedro Páramo

JUAN GARZIA CARMENDIA




IBAIZABAL



Mexikoko lur bazter bat dugu orriotan irudikagai, Comala, hautsez eta nekez lurrarekin berdindutako bere jendeekin. Lur-arras berdinduxe dirudite, orobat, hilak eta biziak, eta ustekabe galantak emango dizkio horrek irakurleari eta, haren

bitartekari gisa, hasierako narratzaile Comalaratu berriari. Etorri ere, aita omen duen lurjabearen bila etorria da Comalara Juan Preciado, eta harekin gu, jatorri eta bizileku bila, heriotzan ere amaitzen ez den bidaia larrian.

“Pedro Páramo



RAFAEL CONTE



IBAIZABAL

aurki bidea

- 4 **Sarrera**
- 5 **Gardner**
- 9 **Web orria lantzen**
- 11 **Klik hastapena**
- 13 **Klik sakontzea**
- 15 **Power Point**
- 17 **Informatika musikala**
- 19 **Zenbait proposamen musikal erakargarri**
- 21 **Alexander teknika eta ahotsaren berreziketa**
- 23 **Diafreo**
- 25 **Antzerkia eskolan**
- 27 **Munduko dantzak eskolan**
- 29 **Psikomotrizitatea: bizipenetik kontzeptura**
- 31 **Euskaraz aritzeko kantak eta jolasak**
- 33 **Jolas kooperatiboak**
- 35 **Hizkuntzen curriculum bateratua**
- 41 **Ahozkoaren didaktika bigarren hizkuntzan**
- 43 **Idazkera "txarra"? Ez, eskerrik asko**
- 45 **Literatur txokoa: Lauaxeta, Bernardo Atxaga eta Harkaitz Cano**
- 49 **Matematikako jolas tailerra**
- 51 **Adimena berezko duten haurrak**
- 53 **Egoera berezian dauden haurrak**
- 55 **Heriotza heziketan**
- 59 **Familia berriekin lan egitera eta ulertzera behartuta gaude**
- 61 **Gogo erabilketa**
- 63 **Adimena garatzeko BITak**
- 67 **Afektibitatea eta sexu hezkuntza gela barruan**
- 71 **Etorkinak gure eskolan**
- 79 **Antzuolako herri ikastetxeko proiektua**



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskararen Normalkuntzako
Zuzendaritza Nagusia



Donostiako
Udala

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08
Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 **Koordinatzailea:** Joxe Mari Auzmendi **Erredakzio burua:** Airhoa Azpiroz **Erredakzio batzordea:** Mikel Estorika, Arantxa Goiburua, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Pito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. **Aholkulariak:** Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Begoa Bilbao, Marian Bilbatua, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goia, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Utraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Anaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sodupe. **Diseinua:** TRAM Grafik **maketazio, aurreinpresioa:** Alazne Nu ez. **Inprimategia:** ANTZA S.A.L. **Azaleko irudia:** hik hasi Udako Topaketak. **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2002/VI/24.** Kopurua: 5.000 ale
hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

Salir era

III. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak hastear daude. Aurten ere hiru egunetan zehar elkarrekin jarduteko eta ikasteko hitzordua egina daukagu. 765 lagunek eman dute izena eta 31 ikastaldetan banatuko dira. 70 hizlari arduratuko dira edukiz betetako saio atsegin, praktiko eta landuak eskaintzeaz, hots, uda sasoiari egokitutako ikastaro erakargarri bezain baliagarriak emateaz.

Aurtengo topaketen ezaugarrietako bat ikastaro kopurua da. Lehendabiziko urtean 12 ikastaro eskaini genituen; iaz 22ra igo zen kopurua; eta aurten 30era. Igoera horrekin aukera zabaldu nahi izan dugu; teoria pedagogikotik hasi eta teknologia berriei, gorputz espresioari, hizkuntzari, zehar lerroei, gai espezifikoiei eta ikastetxeko proiektuei egin diegu leku eta bakoitzaren barruan hainbat ikastaro prestatu ditugu. Abanikoa zabaldu egin dugu eta jaso dugun erantzunak egokia izan dela baieztatu digu.

31 ikastaldeetatik 26 guztiz euskaraz dira, eta gainontzeko bostetan gutxienez erdia euskaraz. Horixe da, hain zuzen ere, topaketen beste ezaugarri garrantzitsua. Euskal irakaskuntzan gabiltzanon prestakuntzak ere hizkuntza berean izan behar duela uste dugu, eta usteak erdi ustel geratu gabe, ezaugarri hori bermatu egin dugu.

Topaketen eskaintzen diguten abagune hau euskal irakaskuntzan zabilatzaren guztiok omentzeko aprobetxatu nahi dugu. Gaur egun jasaten ditugun erasoen aurrean tinko jarraitzen duzuen irakasle eta profesional guztion lana eta proiektuak azalaratu nahi ditugu. Gure babesa eta bultzada luzatzearekin batera, egunero-egunero burutzen duzuen lana errekonozitu eta omendu nahi dugu. Aurtengo topaketen hasierako agurra zuentzat da, eta Joxan Ormazabalek, ikasle baten ahotan jarrita, bereziki zuentzat prestatu duen olerki hau ere bai. Animo eta segi horrela!


Bide bat
zabala, estua
laua, malkartsua
euskaraz pausoa.
Denok bidaiari
zuek gidari
andereño edo maisua
itzal ez dadin
euskararen sua.
Lagundu
irakatsi
hezi
bidean hainbat lore
hainbat hesi.

Orain eta hemen
bide ertzean
atseden hartzean
jakin ezazue
zuen oroitzapena
gorderik daramagula buruan
eta zuen maitasuna
bihotz-bihotzean.

Gardner

Koordinatzailea: Lontxo Oihartzabal

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - 11:00 - Zazpi adimen mota ezberdinen aurkezpena</p> <p>* Lontxo OIHARTZABAL. EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea.</p> <p>11:30 - 14:00 - Adimenaren psikobiologia</p> <p>* Joseba JAUREGI. EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - 14:00 - Adimen emozionalaren inguruan ikuspegi teorikotik:</p> <ul style="list-style-type: none">- Zer da- Zer ulertzen da- Hezkuntzako ondorioak <p>* Lontxo OIHARTZABAL. EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - 10:00 - Adimen emozionalaren inguruan ikuspegi teorikotik:</p> <ul style="list-style-type: none">- Zer da- Zer ulertzen da- Hezkuntzako ondorioak <p>* Lontxo OIHARTZABAL. EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea.</p> <p>10:00 - 14:00 - Hezkuntzako esku-hartzea adimen ezberdinen garapenean</p> <p>* Axier HUEGUN. EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Adimenaren psikobiologia

Ikastaro honen helburua adimena kontzeptuaren inguruan Gardnerren ekarpenek sortu duten irekierari buruz gogoeta bat burutzeari dateke eta nire atalak, zehazki, adimena eta biologiaren arteko harremanak izango dituzte aztergai.

Adimen kontzeptua gogoeta filosofiko osoan esistitzen bada ere, ez da formalki agertzen azterketa objektibo baten helburu bezala XIX. mendearen bukaerara arte. Orduetik hona, psikologia aplikatuaren baitan indarra hartuko du, baina, paradokiko, garapen teoriko urria izango du. Ez dago adimenaren psikologia bat, emozioaren, pertzepzioaren, pentsamenduaren eta beste oinarritzko prozesuen kasuan bezala. Adimen kontzeptuaren mugak beti izan dira lausoak, eztabaidatsuek eta akordiorik gabek. Bere baitan hainbat prozesu psikikoen eragina narbarmentzen da, hainbat proportziotan, ikuspuntuaren arabera: arreta, pertzepzioa, arazoibide eta oroimen motak, hizkuntza, motrizitatea, emozioa... Era horretan, kontzeptuaren beraren baliogarritasuna zalantzan jartzerik ere balegoke, eta jarria izan da sarri. Psikologiaren eta psikiatriaren eremuetatik, egoera horren azterketa kritiko bat proposatzea izango da lehenik egin beharrekoa.

Ondoren, alderdi biologikoari helduko gaitzaizkio. Adimena, dena dela, zerbait bada ere, gorputzeko organu baten fisiologian oinarritzen da, garunean, hain zuzen ere, jauzi egiteko ahalmena zangoetako giharre-zainetan oinarritzen den bezala. Biologiak eta Psikologiak bataren eta bestearen historia laburrean harreman alda-



Joseba JAUREGI

**EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea
Mediku psikiatra**

korrak izan badituzte ere, gaur egun oso elkarturik dabilta, eta Gardner bezalako psikologoek zerikusia izan dute horretan. Izan ere, psikologiaren hainbat korronten artean dinamikoenetakoa izango da gaur egun psikologia kognitiboa deiturikoa, ageriko jokaerak ezezik, ezkutuko prozesu mentalen legeak aztergai dituenak. Psikologia horrek bat egin du beste jakintza arlo batzurekin zientzia kognitiboaren esparrua sortzeko: neurozientziak, adimen

artifiziala, linguistikoa, logika... Elkarlan hori oparo ari da emaitzak ematen eta, besteak beste, garunaren funtzionamendua aztertzeko teknika berriak direla medio, etorkizun handikoa dirudi. Horregatik, adimenaren alderdiekin zerikusia lutekenak azpimarratuz, nerbio sistemaren fisiologiaren aurkezpen orokor bat egingo dugu. Adimen mota desberdinen kokapen eta sustrai neurobiologiko hipotetikoak aztertuko ditugu, halaber.

Azkenik, adimenaren garapenean faktore biologikoez luteken eraginari buruzko eztabaida aurkeztuko dugu: natura/nurtura dikotomia, sexuarena, ikuspuntu ebolutibo ontolojiko eta filogenetikoa. Ez dago dudarik azken garaietako aurrerapen zientifikoak, batez ere neurozientzia eta genetikaren molekularren arloan, aurretik genituen uste eta ikusmoldeak aldatzera behartuko gaituela, eta horrekin batera baita gure praktikak ere, irakaskuntzaren munduan, besteak beste. Eta horrek, informatua egotea eskatzen du, azken batean beti ideologikoa izango den eztabaida aurrera eramanez ahal izateko.



Adimen ezberdinak Gardnerren ekarpen eta proposamenen arabera

Adimenaz eta adimen ezberdinez jardungo dugunez, adimena hitzak izan dituen eta egun dituen adiera ezberdinak aztertuko dira lehenik: zer adierazi nahi izaten dugu adimena hitza erabiltzen dugun bakoitzean. Gai honen inguruan halako ikuspegi orokor bat eztabaidatzetik abiatuko gara, beraz. Eta era honetako galderei erantzuten saiatuko gara: irakasleak egin chi ditugun ebaluazio eta informeetan ez ote da adimena ulertzeko eta baloratzeko modu bat ezkututzen? Irakasleak ez ote ditugu, ezkutupeko ikuspegi horrek eraginik, adimen azkarreko, ez hain azkarreko eta makaleko bezala sailkatzen? Zein ondorio ditu horrek guztiak ikaslearen ahalmenen garapenerako?

Testuinguru horretan Howard Gardnerrek egin dituen eta egiten ari den ekarpenak azalduko dira. Hark dioenez, zazpi adimen mota hauen jabe gara gizakiok: adimen musikala, zinetiko-korporala, logiko-matematikoa, hizkuntzakoa, espaziala, pertsonen artekoa eta pertsonaren barnekoa. Aurkezpena eta deskribapena egin ondoren, eztabaidatzera pasako gara: zazpi adimen horiek onartu behar ote ditugu? Guztiok garatzen ote ditugu zazpi adimen horiek? Balio berdina ote dute guztiak? Zein ondorio lituzke ikuspegi berri honek hezkuntza eta irakaskuntzarako?



Lontxo OIHARTZABAL
EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea


Gardnerrek berak eskolatzearen inguruan egiten dituen gogoetak eta proposamenak aurkeztu eta eztabaidatuko dira.

Egungo gizarteak eskolari eta hezkuntza sistemari egiten dizkion eskakizunen artean, ikasleei elkarrekin airoso bizitzeko beharrezko dituzten gaitasunak gara ditzaten, ezinbesteko eta oinarritzko esperientziak eta gogoetak bideratzeko baldintza egokiak eskaini diezazkiela da lehentasunezkoa. Oraintsu berriki Jose A. Marina irakasleak argitaratu duen saiakera berria hartuko dugu horretarako oinarritzat: etikaren mundua garatzea izan da gizakion sorkaririk gailurrena, ezagutza zientifikoaren gainera. Ikuspegi horrek, hezkuntza sistemari ezarri izan zaizkion eginkizunak berraztertzea eskatzen du.

Hori dela eta, adimen emozionalaren inguruan zentratuko gara ondoren: gizakiok elkarkidetzan biziko bagara, oinarri-oinarritzkoa da besteen eta norberaren emozio eta sentipenen munduaz jabetzeko eta ulertzeko behar ditugun gaitasunak

eta trebeziak garatzea. Carl Rogersek Gardnerrek baino urte dezente lehenago azpimarratu zuen gaitasun eta trebezia horien garrantzia, eta horiek lantzeko hainbat proposamen ere egin zituen. Bi autore hauen ekarpenak elkarrekin lotuz, hezitzaile eta irakasleentzat oinarritzko diren ezagutzak eta jardunbideak aztertuko ditugu azkenik. Izan ere, irakaskuntzan *zehir lerroek* porrot egin dutela badiote asko eta askok, ikasleak emozionalki inplikatzeko lortu ez delako gertatu da, neurri handi batean. Kohlbergekin egin zuen *eskola=just community* izeneko proposamen hura ere gogoan hartzekoa izan daiteke ingurune honetan guztian.

Gardnerrek dioenez, zazpi adimen mota hauen jabe gara gizakiok: adimen musikala, zinetiko-korporala, logiko-matematikoa, hizkuntzakoa, espaziala, pertsonen artekoa eta pertsonaren barnekoa.



Gardnerren ekarpenaren ondorio pedagogiko praktikoak: nola gara ditzakegu adimenak?

Ra lek, R o de Janeiroko fabeletako mutiko batek, gorputz mugimenduen bitartez zeinu espresiboak ezin hobeto erabiltzen ditu bere auzoko lagunekin komunikatzeko. Adimen zinetiko aparta du, benetan.

Mehdad gazte iraniarra adimen linguistikoaren hobekuntza maila oso altua lortzen ari da egunero joaten den erlijio eskolan, non Coranaren kantuak irakasten dizkioten.

Mikronesiako puluwat herriko Inwi arrantzale gazteak adimen espazial bikaina du. Esperientziak eman dio, eta izarrak eta eguzkiaren posizioa aztertuz itsasoan ederki asko orientatzen da. Gauza bera gertatzen zaie Kalahari basamortuko Orue ehiztariari eta izoztutako lurraldeetan bizi den Nunavut eskimalari: beren ingurunean orientatzeko eta lurraldearen xehetasun guztiak antzemateko gaitasun bikaina dute.

Alfabetatze matematikoa eta musikala oso ohikoa egiten zaie haur japoniarrei, eta gehientsuenek maila oso altua lortzen dute adimen musikalean eta logiko-matematikoan.

Horrelako adibideak ematen luze eta zabal jarrai genezake; izan ere, arestian aipatu eredu horiek Gardnerren teoriaren agerpen praktikoaren eta errearen isla baino ez dira. Horixe da saio honetan azaldu eta arakatuko duguna.

Adimen ugariak garatzeko programa batek bilatzen duena da hainbat kulturetan agertzen zaizkigun estrategia eta metodoak gure eskoletan txertatzea; hots, Gardnerrek bere adimenaren teoriaren estimulazioaren bitartez lortu nahi duen pertsona holisti-



Axier HUEGUN

EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea

koa, jada, errealitatean existitzen da, hainbat lekutako milaka pertsonetan –arestian ikusi ditugun adibideetan bezalaxe-, eta batzuk seguraski gure gertu-gertukoak izango dira. Horrela, adimenak, edo hobe esanda, hainbat adimen garatuta dituzten pertsonak (logiko-matematikoa, linguistikoa, pertsonen artekoa, espaziala...) hahemenka barreiatu daude, eta modu zehatz, oso eta eraginkorren dute garatuta adimena. Hortaz, **saioaren xedea adimenok gure ikasleekin nola landu ditzakegun aztertzea izango da, eguneroko bizitzan horien erabilgarritasuna eta esanahia ikus eta senti dezaten**. Azken finean, adimenak nola estimula eta gara ditzakegun ikusi ahal izango dugu.

Halere, horretarako, lehen-lehenik, beste galdera bati erantzun beharko diogu. Zergatik garatu adimen ezberdinak? Hau da, benetan beharrezkoa al da horien garapena? Garrantzitsua eta premiazkoa ote da gaur egungo gizartearen aritzeko adimenak estimulatzeko? Saioaren hasieran horren guztia-

ren inguruan aritzeko gara, eta adimenak eskolan zergatik eta zertarako landu ditzakegun aztertzen saiatuko gara. Ondoren, saioaren mamari helduko diogu: zer egin dezakegu adimenok garatzeko eta estimulatzeko? Hau da, teoriatik praktikarako jauzia egingo dugu, eta proposamen zehatzak aztertuko ditugu. Horretarako hiru bide landuko ditugu:

1.- Norberaren esperientzia. Norberak, bere ustez, zein adimen mota duen garatuago ikusiko dugu, eta nola iritsi den horretara. Bide honen helburua norberak bere baitan apur bat arakatzeko izango, maiz zaila egiten zaigulako azaltzea zergatik garen trebeak jakintza zehatz batean.

2.- Norberak bere eskolan duen esperientzia gai honen inguruan. Norbaitek gai honi buruz zerbait landu duen edo ez ikusiko dugu, zernolako emaitzak eman dituen eta abar.

3.- **Gardnerren beraren eta beste autoreen esperientzia praktikoak eta proposamen pedagogikoak aztertuko ditugu**. Hirugarren atal hau saioaren oinarria eta atal zabalena izango da, bertan baitago hitzaldi edo saio honen helburua. **Adimen bakoitza adin ezberdinetan estimulatzeko zer-nolako proposamenak dauden ikusi eta zer ondorio pedagogikoak dituzten aztertuko dugu: heziketa helburuak, estrategia didaktikoak, edukiak, hezitzaileen funtzioa...** Hori guztia bi ataletan banatuko dugu. Alde batetik, eskola edo zentroko errealitate mugatuko gara, eta beste aldetik, adimenaren hobekuntzarako bideratutako programa psikohezitzaileen berri emango dugu.

Web orria

Uztailak 2

Uztailak 3

Uztailak 4

8:30 Dokumentazioaren banaketa

9:00 Sarrera ekitaldia


9:30

9:00

9:00

- Word testu prozesatzaileak WEBerako dituen funtzioak aztertu.
 - Irudien oinarritzko trataera.
 - HTML mintzairaren oinarriak.
 - Web editore baten oinarritzko funtzioak ikasi (DreamWeaver).
 - Webgune baten eraketa: taulak, markoak, irudiak, loturak...
 - Artxiboak Interneteko zerbitzari batean eskegi.
- * **Lukas Rodriguez Toimil.** IKTko programaren teknikaria

14:00 BAZKARIA



Web orrien diseinua

Hiru eguneko ikastaro trinko honetan Internet munduan murgildu behar dugu, edo zehatzago esateko, Internet edo Intraneteko edukien argitarapenean.

Hiru egun trinkoko ikastaro honetan Internet munduan murgildu behar dugu, edo zehatzago esateko, Internet edo Intraneteko edukien argitarapenean.

Apunteak, ikastetxeetako web orriak... izango dira ardatz bezala hartuko ditugun adibideak, eta helburua web orrien eraketaren oinarriak ikastea izango da.

Honako hauek izango dira jorratuko ditugun edukiak:

Word-ek ematen dizkigun ahalbideak:

Microsoft etxeko Word testu prozesatzaileria da, zalantzarik gabe, gehien erabiltzen dugun tresna informatikoa. Baina askotan ez dugu jakiten eratzten ditugun dokumentuak web orri bihur daitezkeela, eta era errazean, gainera; dokumentua gordetzean *Web orria bezala* aukeran sakatuz, hain zuzen ere.



Lukas RODRIGUEZ
IKTko programen teknikaria

Horrela, gero Nabigatzaile baten bidez ikusta ditzakegu, web orri editore batekin eginak baileuden. Dokumentuz dokumentu joateko aukera ere badugu, testu prozesatzaileek estekak egiteko dituzten funtzioak aprobetxatzen baditugu.

Hori da ahalegin handirik egin gabe ikasiko dugun lehendabiziko gauza: normalean erabiltzen dugun tresna web editore bihurtzen.

Web orrien editoreak:

Bigarrenik, era profesionalean web orriak diseinatzeko erabiltzen diren programen gorabeherak ikusiko ditugu, eta arreta berezia Macromedia etxeko Dreamweaver programari ipiniko diogu.

Webgune baten eraketa, testu eta irudien formatua, markoak eta abar era errazagoan egiten dira editore horietatik. Eta webgune bat eratzeko behar diren oinarriko funtzioak ikasiko ditugu, ipiniko ditugun adibideak gure ingurune hurbilekoak direlarik: ikastetxearen web orria, apunteak edo ariketen publikazioa HTML formatuan.

Grafikoak eta grafikoaren trataera:

Askotan argazki edo irudiak gehitu nahi izango dizkiegu gure lanei erakargarritasun handiagoa emateko. Bada, atal honek ere izango du bere txokoa ikastaro honetan. Irudien digitalizazioaz eta irudiak tratatzeko erabiltzen diren programen hitz egingo dugu, horietako baten oinarriko funtzioak ikasiz gure web orrietan irudiak sartu ahal izateko.

Interneten edo Intraneten argitaratzea:

Amaierako helburua, eta azkenengo urratsa, egindako lana argitaratzea izango da, gure ikastetxeko Intraneten edo Interneten.


Horretarako, zerbitzarietara artxiiboak bidaltzeko erabiltzen diren FTP programak eta Dreamweaver berak dakarrena aztertuko ditugu.

Ikastaroan egindako adibideak Interneteko zerbitzari batean eskegiko ditugu eta ondoren Internetetik kontsultatu ahal izango ditugu.



Klik hastapena

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 Goizeko saioa: - Klik sarean http://www.xtec.es/recursos/clic/esp/index.htm: programa batzuk jaitsi eta instalatuko dira, programa batzuk disko gogorretik irekiz, bi bidetatik, "word" bezala. - Sinera CDaren aurkezpena egin eta aplikazio batzuk irekiko dira. - Hainbat kontzeptuak argituko dira: artxibo motak (bmp,gif,jpg-mid,wavi,fli) (disk gogor.) - Buruhausgarriak, sekuentziak, testuak, memory, letra zopa arrunta, eskuinteko leihoa, gurutzegrama fitxeroa ireki [demo] menucrw.pac</p> <p>14:00 BAZKARIA 16:00 Arratsaldeko saioa: - Eskuerraren erabilpena, kolorea, erresoluzioa, irudi fitxategi mota, irudia handitu-txikitu, irudia moztu, testua sartu irudian... (ariketa praktikoak: gelakoen aurpegiak...).</p> <p>* Fultxo CRESPO eta Mikel FERNANDEZ. Bianako Erentzun ikastolako irakasleak.</p>	<p>9:00 Goizeko saioa: - Elkarketa arruntak, konplexuak, idatzizko erantzuna, araketa modalitatea, identifikazio elkarketak BAI-EZ, "arit.dll" modulu (elkarketak).</p> <p>14:00 BAZKARIA</p> <p>16:00 Arratsaldeko saioa: - Irudiak bilatu Interneten, soinu grabatzailea, soinu fitxategien formatua, argibide pantaila l. Ekin1 {ekin1.ass}, (ariketa praktikoak: ipuin bati soinua ipini).</p> <p>* Fultxo CRESPO eta Mikel FERNANDEZ. Bianako Erentzun ikastolako irakasleak.</p>	<p>9:00 Goizeko saioa: - Testu aktibitateak: hutsuneak bete, testua osatu (letrak identifikatu, hitzak identifikatu hitzak ordenatu, parrafoak ordenatu), klik pakete arruntak-klik pakete trinkoak, klik pak-kateamen- duak, trinkotu-destrinkotu PAC†PCC†PAC... balorazioa.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p> <p>* Fultxo CRESPO eta Mikel FERNANDEZ. Bianako Erentzun ikastolako irakasleak.</p>



Klik hastapena



Lau urteko haur bat tapiz baten gainean dago lankideen izenak dagozkien argazkiekin parekatzen...

Bost urteko ikasle bat irakasleek margotu dituen kartoi mehezko fitzak homan zintzilikatzen ari da belkroz baliatuz

Lehenengo mailan, irakaslearen pazientzia frogatzeko, ikasle batek txitean-pitean galdu duen paperezko

hitza lurrean bilatzen du Bigarren mailan, irakasleak, eragiketak idatzi eta fotokopiatu ondoren, banan-banan zuzendu behar ditu...

Hirugarren mailan, fotokopiaz baliatuz, neska-mutilak ulemena lantzen ari dira esaldi batzuekin... Betiko lana, gogorra bezain astuna irakaslearentzat... betiko asperraldia ikasleentzat. Atzo goizeko kontak.

Eta lan hori guztia informatika gelara eramaten badugu? Litekeena al da? Galdetzea ere! Haurrak hara joateko irrikaz daude, eta orain giltza bat badaukagu: Klik programa. Tresna hori azaldutako lan neketsua laket erakargarri bihurtzeko gai den erreminta da, hain zuzen.

Informatika gelan klaseko haur guztiek beren argazkiak ordenagailuaren pantailan ikusi eta beren izenekin lotzen dituzte. Eta asmatzen duten bakoitzean marrazki bizidun bat agertzen da algaraka.

Pantailan agertzen diren kolorezko hitzak ez dira galtzen... eta amen batean haurrak dagokion lekuan kokatzen ditu esaldia osatzen duten hitzak... bere errit-



Fultxo CRESPO

Bianako Erentzun ikastolako irakaslea

moan, jo eta ke, atsedetik hartu gabe.

Irakasleak ez ditu eragiketak zuzendu behar. Ikasle bakoitzak egin duen ariketaren txostena klik batekin agertzen da.

Klik programaren bidez hainbat ariketa egin daiteke: hitzak erlazionatu, egia ala gezurra, hitzen artean soberan dagoena baztertu, testuak osatu, hutsuneak bete, puzzleak, serieak, sekuentziak, eragiketak, testuak, inguruneke liburuan agertzen den edozein fitxa, musikan erritmoa lantzeko, edozein ikasgaitan agertzen diren ariketak... Edozein mailatan eta edozein arlotan ordenagailuaren disko gogorrean hamaika aplikazio eduki ditza-kegu erabiltzeko prest.

Une honetan Klik programak 100 jarduera baino gehiago ditu euskaraz, alor guztietan. Eta hori hasiera baino ez da. Astero agertzen dira jarduera berriak. Denetarik dago eta jarduera guztiak mundu osoko irakasleok egindakoak direla azpimarratu behar da: Alemania, Hego

Amerika, Erresuma Batua, Portugal, Espainia, Galizia eta Euskal Herria, besteak beste.

Hori gutxi balitz, atera berria den JKlik (Klik Java) aplikazio osagarriarekin eta Internetez baliatuz ikasleek Klik programako jarduera batekin "on-line" jolas-teko aukera izango dute, hots, urruneko ordenagailu batetik beharrezkoak diren fitxategiak automatikoki kargatuz. Horrez gain, edozein sistema eragilek (Javarekin bateragarria bada, noski) Klik aplikazioak kargatu ahal izango ditu.

Lehenengo eta behin, ez dut ahaztu nahi Klik programak ematen digun abantailarik garrantzitsuenak: ekintza berri bat sortzen dugunean gure gelako haurren ezaugarriei egokitzeko aukera dugu, hots, geure ikasleen beharren arabera sor ditzakegu aplikazio zehatzak. Klik programari esker, helburuak, ariketa mota, pausoak, xehetasunak, aurrerapenak... irakasleak aukeratzen ditu.


Mundu zoragarri honetan murgiltzeko informatika ezaguerak sakonak behar al ditugu? Ez, oinarrikoak baino ez ditugu behar. Betiko Windows-a, eta kito.

Klik erremintaz baliatuz jarduera berriak prestatzea edo eginik daudenak egokitzea lan gogorra dela esan beharrik ez dago. Baina, ez al da nekezagoa eta izugarritzko lana 25 esaldi idaztea, plastifikatzea, moztea eta eskutitzaren azaletan sartzea ikasleek ariketa berehala egingo dutela jakinik?

Klik, zalantzarik gabe, ezagutu ondoren zure lankide handienetarikoa izango da. Eutsi goiari!

Klik sakontzea

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - Gaia aukeratu: ipuinak, zikloa, matematika unitatea, hizkuntza...</p> <ul style="list-style-type: none">- Kontzeptuak errepasatu: artxibo motak (bmp,gif,jpg,mid,wav,avi,fli).- Materiala aztertu (irudiak, gif...).- Argibide pantaila; menu bat soru.- Buruhausgarriak: bikoitza, elkartrukea, hutsunea eta memoria motakoak.- Testuak, memory, letra zopa arrunta, eskuineko leihoa (testua eta irudiak, testua eta adierazpenak).- Gurutzegrama. <p>* Jose Manuel BELTRAN. Gasteizko Antonio Lpz de Guereñu IPko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Elkarketa arruntak: testua-testua, irudiak-testuak, irudi bakarra-testuak, "A" leihorako ebazpidea.</p> <ul style="list-style-type: none">- Elkarketa konplexuak: testua-testua, testuak-irudiak (idatzizko erantzuna, araketa modalitatea, identifikazio elkarketak, "arit.dll" modulua (matematika unitatean). <p>* Jose Manuel BELTRAN. Gasteizko Antonio Lpz de Guereñu IPko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Testu aktibitateak: hutsuneak bete (testua osatu, letrak identifikatu, hitzak identifikatu, hitzak ordenatu, parrafoak ordenatu,</p> <ul style="list-style-type: none">- Klik pakete arruntak † trinkotu- Klik pak-kateamenduak <p>* Jose Manuel BELTRAN. Gasteizko Antonio Lpz de Guereñu IPko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Klik sakontzea

Hiru Klik programa ezagutu ondoren, bere erraietan murgiltzeko ordua ailegatu zaigu, diuen nania ateratzekoa, alegia.

Materiala berria sortzea izango da hiru egun hauetako helburu nagusia.

Horretarako beharrezkoak diren tresnak landuko dira:

- Irudi prozesatzaileak (moztu, murriztu, aldatu...).

- Soinuaren tratamendua: wav, mid, mp3...

- Animazioak egiteko programak: mugimendua eta soinua artxibo berean bateratzeko.

Mailaz maila banatuta, ikasleen liburutatik ateratako 350 ariketa eskaneatu izango dituzu zure esku.

Burututako ekintzekin paketeak prestatu ahala, baliabiderik erabilgarrienak garatuko ditugu:

- Testuak lantzeko aukerak, grabaketak barne.

- Aurkezpenak egiteko teknikak: irudien posizioak, mezu ezkutuak...

- Laguntza artxiboen kokapena, beste programa batzuei loturik: bideoak, txostenak...

- "avi" ezarketa: mugimenduaren eta soinuaren arteko lotura egiteko.

- Paketeak exekutagarri bihurtu: ikonoz baliatuz.

- Ikasleak ere sortzaile.

- "javaklik" proiektu berrian bainu bat hartzea.

Eta hori guztia elkarketaz, hizki zopaz, buruhausgarritz, testu ariketez... blaiturik.



Jose Manuel BELTRAN


Gasteizko Antonio Lopez de Guereñu ikastetxe publikoko irakaslea

Klik
programaren
errainetan
sartuko gara
ikastaro
honetan



Power Point

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - Sarrera eta diseinu tresnak - Microsoft PowerPoint-en abioa: leiho nagusia, menu hedagarriak, tresna-barrak, ikuspegi motak...</p> <p>Proiektua: diapositiba baten eraketa, emaitzaren esportazioa hainbat eredu grafikoren arabera. Hainbat formatu grafikoren analisia irudien definizioan (bektorialak eta rasterak, dimentsioak eta bereizmenak...).</p> <p>* Iñaki ZUBIZARRETA. Santo Tomas lizeoko irakaslea. Ikastolen Elkarteko informatika taldeko kidea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Aurkezpen berri baten sormena - Aurkezpen orriaren konfigurazioa.</p> <p>Proiektua: norberaren diapositiba aurkezpenaren eraketa.</p> <p>* Iñaki ZUBIZARRETA. Santo Tomas lizeoko irakaslea. Ikastolen Elkarteko informatika taldeko kidea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Aurkezpenaren pertsonalizazioa.</p> <p>- Aurkezpenaren konposaketa eta ekintzen konfigurazioa. - Kolore konbinaketa, formatu kopia, hondo pertsonalizatuak, diseinu txantiloak. - Organigramak eta beste OLE objektuak. - Hizlariaren oharra, partaideentzako dokumentuak, Wordera bidali. - Multimedia eta Internet: elkarrekintza eta estekak, weberako aurkezpenak. - Aurkezpenaren difusioa: denborak frogatu, aurkezpen portatitak, proiekturako laguntzailea.</p> <p>Jarduerak: aurreko eredu eta banatutako eredu aipatuen analisia eta hobekuntza</p> <p>* Iñaki ZUBIZARRETA. Santo Tomas lizeoko irakaslea. Ikastolen Elkarteko informatika taldeko kidea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Power Point

Microsoft Office bildumak eskaintzen duen Power Point aplikazioa multimedia aurkezpenak ahalbidetzen dituen programa indartsua da. Ideiak eraz antolatzen, sendo ilustratzen eta profesionalki komunikatzen laguntzen du. Aurkezpenak ikus-entzunezko bitarteko garrantzitsuak izan daitezke hainbat eskola jardueratan. Bereziki erabilgarriak dira jendaurreko ahozko aurkezpenak zein aurkezpen idatziak burutu behar direnean.

Asko aurreratzen ari da multimedia aurkezpenen arloa. Sarritan, diapositiba digital eta animatuak eraikitzea uste baino lan erosoagoa eta ludikoagoa izaten da. **Microsoft PowerPoint** ideiak antolatzeko, ilustratzeko eta egoki garatzeko tresna eraginkorra da. Gelan aurkezpenak egiteko balio du, era txundigarrian komunikatzera iritsiz. Fitxategi berean testua, irudiak edota eskema ugari elkar daitezke. Gure adierazpenak aurkezpen horiekin lagunduta burutzen baditugu, gure azalpenek arrakasta handiagoa izango dute.

Honelako diseinu aplikazio gehiago badago merkatuan: **PowerPoint**etik hasi eta **Harvard Graphics** eredura iritsi gaitzke, **Corel Presentations** edo **Lotus Freelancetik** igaroz. Bakoitzak bere indarguneak eta ahuleziak izango ditu. Egun, estandarrena aurkezten dugun hau da. Zerbait baldin badu PowerPointek bere alde, erabiltzeko duen erraztasuna da. Horren ezaguna den **Worden** erabiltzaile arruntena ere berehala ohituko da aplikazio honetara, eta laster batean benetako multimedia produktu osoak sortzen ikus dezakegu.



Iñaki ZUBIZARRETA

Donostiako Santo Tomas lizeoko irakaslea

Ikastolen Elkarteko informatika taldeko kidea

Oro har, aplikazio horiek era bertsuan egituratzen dira. Aurkezpena eraikitzeo nahi hainbat diapositiba edo lamina sor ditzakegu. Lamina horiek euskarri mota desberdinetan finka daitezke: gardenkiak izan daitezke, edo diapositiba arruntak eta, jakina, pantailan edo proiektzio bidez aurkez daitezke. **Orri** horiek sekuentzia bat osatuko dute –sarritan, ibilbide desberdinak ere aurreikus daitezke- eta proiektatzeko tresna batez ikusiko ditugu. Aurkezpenek maiz oso gidoi ezagunak jarraitzen dituzte eta lana aurreratu nahirik aurrereditu eta txantilo ugari eskaintzen dira. Baina, gogoan izanez gero, nahi duguneraino eraman dezakegu gure sormen gaitasuna.

Eta zergatik da interesgarria PowerPoint irakaskuntzan? Horra adibideak...

Arbel elektronikoa

Oso gutxi dira arbelik gabe eskola ematen dakiten irakasleak, gehien-gehienok etengabe zerbait zirriboratzeko beharra dugu. Eta hala ere, ezin dugu denok esku

onoko marrazkilariak izan, eta are gutxiago bat-bateko diseinatzaile eraginkorrak. Eredua aurretik egitea, kalitate berma bilaka daiteke: garbitasuna, antolakuntza, hausnarketa...

Oinarri-oinarrrian, **arbel elektronikoa** proiektore bati lotutako multimedia ordenagailu bat da. Horrez gain, hainbat gehigarri txertatzen jarrai dezakegu. Oso interesgarria litzateke, adibidez, nolabaiteko sare lotura izatea Internet bidezko hainbat zerbitzu zuzenean eskaini ahal izateko. Era berean, lagungarria litzateke DVD irakurgailua izatea; horrela, bat-batean, arbela bideo zerbitzu bilakatzen dugu -batez ere ekipoak bozgorailu indartsuak baldin baditu. Beste modu batera esanda, izugarri praktikoa bihurtuko da proiektzioa ohiko arbel zuri baten gainean burutzea. Horri esker, errotulagailua aurkezpen birtuala dinamikoki osatzeko baliabide bihurtuko dugu. Ekipatzeko ditugun aukerak kontuan harturik, makinak ibiltari izango direla aurreikus beharko dugu, eta ondorioz, ordenagailu hori portatila bada, askoz hobe.

Eta ikasleak zer?

Irakasleak bere lanerako erabil dezakeen bezalaxe, ikasleak ere etekin handia atera diezaiokete. IKT alfabetatze egokira iritsiz gero, egin behar izaten dituzten ekoizpenak –beren lan eta txostenak-paperezko euskarria gaudituz eta sarritan multimedia produktuak izatera iritsi daitezke. Gai baten inguruko aurkezpena prestatzeak eskolak betidanik oso interesgarritzat jo izan dituen hainbat zeregin aplikatzera bultzatzen gaitu: zerbaiten inguruko informazioa bilatu, laburtu, eskematizatu, gidoiak eta hizketaldiak prestatu...

Informatika musikala

Uztailak 2

Uztailak 3

Uztailak 4

8:00 Dokumentazioaren banaketa

9:00 Sarrera ekitaldia

9:30

9:00

9:00

Programa erabilgarri hauen aurkezpen eta jorrapen praktikoa egingo dugu:

1.- **DANCE MACHINE**: TECHNO-DANCE musika egiteko programa.

2.- **BAND IN A BOX**: moldaketa musikalak egiteko balio duen programa.

3.- **ENCORE**: partiturak egiteko guztiz intuitiboa den programa.

4.- **CAKEWALK PRO AUDIO**: gure midi artxiboak joratzeko eta manipulatzeko erabiliko dugun sekuenziadore profesionala.

5.- **CLIC ETA BERE PROGRAMA MUSIKALAK**: gure ikasleekin era elkarrengilean lan egiteko multimedia programa.

6.- **INTERNET ETA BERE PROGRAMA MUSIKALAK**


* **Xabier ZABALA**. Ekintza ikastolako musika irakaslea. Musikari, konpositore eta moldatzailea. HIK HASI proiektuko hainbat lanen egilea. "Takolo, Pirritx eta Porrotx" pailazoentzako abestien konpositore eta moldatzailea.

* **Jose Ramon VITORIA**. Mondragon Unibertsitateko Haur Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko irakaslea eta Arrasate Musikaleko irakaslea.

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA



Informatika musikala



Gaur egun edozer gauza egin daiteke informatikarekin, dena da posible. Baina horretarako, nola egin jakin behar da, bidea eta modua aurkitu behar dira. Eta horretarako izango da ikastaro hau.

Informatika hasieran ikasgai bat zen. Orain, berriz, tresna bat da; hainbat gauza egiteko erabilgarria den bitartekoa. Musikan ere lagungarria da, eta horregatik, informatika musikalak eskaintzen dituen aukerak eza-gutuko ditugu ikastaro honetan.

Lehenengo eta behin, ezertan hasi aurretik, beldurra kendu behar dugu. Informatikari eta ordenagailuei beldurra baldin badiegu, hori da gainditu behar dugu. Izan ere, ordenagailua ez da aparailu arraro bat, baliagarria den tresna bat baizik.

Musika arloan ordenagailuaren bidez abestiak sortu, partiturak egin eta txukundu, moldaketak egin eta beste milaka gauza egin daitezke. Horretarako, noski, programak daude eta ezagutu egin behar dira.

Dance Machine programarekin musika egingo dugu. Sampler edo musika laginak hartu eta konbinatu egingo ditugu. Horrela, guk geuk sortutako musika berria egingo dugu. Gaur egungo musika moderno mota batzuk modu horretan egiten dira, elementu solteak hartu eta konbinatuz. Egindako abestiak CD batean graba daitezke eta ikasleen kasuan oso erabilgarria da, CDa etxera eraman baitezakete.

Band in a box programak konponketak egiteko balio du. Adibidez, abesti bati orkestrako instrumentu guztiak sar dakizkiokegu eta oso egokia izan daiteke eskolako jaialdi baterako. Edo ikasleek txirula



Xabier ZABALA

Donostiako Ekintza ikastolako irakaslea

jotzen duten bitartean atzetik orkestraren laguntza izan dezakete. **Hik Hasiren** Txirulaz CDak aukera hori ematen du.

Encore programak partiturak txukundu txukundu jartzeko balio du. Badaude gisa honetako programa gehiago, baina Encore oso intuitiboa da.

Cakewalk pro audio programa sekuentziadore bat da, hots, midi artxiboak jorrazteko eta manipulatzeko balio du. Midi artxiboak partitura bezalakoak dira eta horiek duten informazioa bil dezake programa honek. Biltzeaz gain, manipulatzeko aukera ematen du. Esate baterako:

tonua jaitsi, ahots gehiago sartu, abestiaren tempo aldatu...

Klik programak arlo asko lantzeko balio du, eta baita musika ere. Multimedia programa denez, ikasleek ordenagailuan bertan gauzak egin ditzakete.

Azkenik, **Internetek** eskaintzen dituen aukerak ikusiko ditugu. Mundu osora irekita dagoen leihonek aukera mugagabeak jartzen dizkigu eskura.

Programa hauetako batzuk guk geronek erabil ditzakegu Lehen Hezkuntzako haurrei musika gelan emateko. DBHko ikasleei, berriz, programa horiek erabiltzen irakats diezaiekegu. Eta programak emanez, etxean lantzeko aukera zabaltzen diegu. Esperientziak erakutsi dit, gainera, izugarriko sorkuntza lanak egiten dituztela.


Era berean, motibazio gehiagorekin hurbiltzen dira musika mundura. Ez da gauza bera txirula bakarrik jotzea edo atzean orkestra baten laguntza izatea. Play-back-ak, karaokeak eta horrelako berrikuntzek izugarri animatzen dituzte.

Informatika musikala gure eskura dugu, irekita daukagun leihoa dugu. Eta zer nahi dugun eta nola egin dezakegun, gure esku dago. Animo!



Zenbait proposamen musikal erakargarri

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
8:00 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30	9:00	9:00
<p>1.- ENTZUMENAREN HEZIKETA: zarata/isiltasuna (bereizketa), soinudun ingurunea: erreala eta irudizkoa, asmaketak entzun, gaurko eta lehengo musika ezagutu, tresnak bereiztu...</p> <p>2.- ERRITMOAREN HEZIKETA: erritmo librea/erritmo ezarria, keinu musikala..., natur danbadak, imitazioak..., taupadak..., eske-ma erritmiko sinpleak...</p> <p>3.- AHOTSAREN HEZIKETA: arnastu..., joko bokalak, abestiaren ikasketak..., ipuin musikatuak..., polifoniaren munduan sartzeko prozesua...</p> <p>4.- KODIGOETARA BIDERATU: irakurri, idatzi, asmatu..., partituraren prestaketa, alde zurretiko grafiak, figura eta doinuetarako, perkustra metodoa.</p> <p>5.- TRESNEN ERABILERA: gauzak miatu, objektu soinudunak egin, sortu, ezkutatu, sailkatu, antolatu..., jokoaren arauak, Orff musia tresnen aurkezpen eta erabilpena, flautaren bidez musikalitatea lortzeko metodoa, "Rondo" forma musikalaren garapena, elkarrizketak, inprobisazioak, konposaketak, akonpainamenduak, doinuen kalitateak landu...</p> <p>6.- BASCHET TRESNA SOINUDUNAK: Baschet tresna soinudunen aurkezpena, saio praktikoak Orfeoi Donostiarraren aretoan, Baschet pedagogiaren bidez hizkuntz soinudun-musikala nola zabaldu eta ezberdindu, ikertu eta behatu.</p> <p>* Ana ETXEBERRIA. Donostiako San Alberto Magno ikastetxe alemaneko musika irakaslea. Abesbatzen zuzendaria eta ikastaroen emaila.</p>		
14:00 BAZKARIA	14:00 BAZKARIA	14:00 BAZKARIA



Zenbait proposamen musikal erakargarri



Ikastaro hau erabat praktikoa da. Hasieran hezkuntzan dabiltzan irakasleei zenbait proposamen musikal erakargarri aipatu nahi dizkiet haurren musikaltasuna garatzeko helburuarekin. Ekintza musikalak gela barruan ohiko eta eguneroko gauza bihurtu daitezkeela azaldu nahi diet. Horretarako, hainbat arlo ikusiko ditugu denon eskuetan dauden proposamen sinpleak aurrera eramateko asmoz: abestiak, ahotsarekin egiteko jokoak, erritmoa lantzeko hainbat modu, musika tresnen erabilpen egokienak, entzunaldi aktiboak...

Gure mundua, eta askoz gehiago haurrena, ez da batere isila, zarata eta doinuuz beterik dago... Hori dena kontuan hartuta, beraiek daukaten ingurune soinu-dunetik abiatuko gara beste musika eta doinu berriak sortzeko, ezagutzeko, gozatzeko, sentitzeko...

Proposamenen ikuspegitik, urteetan zehar egin ditudan nire esperientzia pertsonalak azalduko ditut. Adibide horietatik abiatuz moldaketak egingo ditugu norberaren egoera aintzat hartuta: ikasleen adina, kopurua, eskola bakoitzaren iraupena, irakaslearen nagusitasuna...

Irudimen pixka batekin txikiagoak izango gara eta hasiera musikalak barneratuko ditugu bizipenezko jokoen bidez.

Adinak ahalmen, jarrera eta gaitasun musikalaren eraketa eta aurrerabidean zerkusi handia du. 4, 5, 6... urtetik aurrera haurra musikatzen hasteko momentu onean dago, hots, ekite musikalaren sentsibilitaterako une egokian, mailaz progresiboki alfabetatze musikalaren hasierari ekiteko prest.



Ana ETXEBERRIA

Donostiako San Alberto Magno ikastetxe alemaneko musika irakaslea

Ikasleak ekite musikal ikertu eta bidera dezaten bi atal landuko dugu: ekintza -harrera = egin - entzun.

Bigarren egunean **Baschet** Pedagogiaren bidez saio batzuk egingo ditugu Orfeoi Donostiarraren egoitzan. Soinu lantegi honek haurren musikaltasunerako egungo tresna erakargarriak eta eragileak ditu. Beraien historia laburra ezagutuko dugu, eta zein erabilpen ireki eskaintzen diguten jakingo dugu banan-banan ezagutu eta jo ondoren. Nahiz eta nota mugaturik ez eman,

doinu harrigarriak ateratzen dituzte. Eskuz edo makilak erabiliz abantaila interesgarriak eskaintzen dituzte: ez dute teknika handirik eskatzen; afinazioa izan ezik, doinuaren ezagutza guztiak lantzeko gai dira; ipuinak, antzerkiak, olerkiak, istorioak eta abar kontatzeko garaian laguntzaile ordainezinak bihurtzen dira.

Hori guztia landu bitartean arloak tartekatzen joango gara. Interesgarria deritort tartekatze horri, azken finean gure geletan ere gauza bera egiten baitugu. Horrela, saio guztietan egongo dira kantak, erritmo jolasak, entzunaldi txikiak, inprobisazioak, musika tresnak... denak nahasian.

Kontuan hartuta lehenengo hotsak, taupadak, doinuak, hitzak, mugimenduak... guregandik sortzen direla, gorputza izango da guretzat garrantzi handiena edukiko duena.

Musika tresnen multzoan gure egindakoak ere erabiliko ditugu, ez dendetan erositakoak soilik. Hori dela eta, denboraren arabera, batzuk aurretik eginak eramango ditut, zeren eta horien erabilpena nolakoa izan daitekeen jakitea garrantzitsuagoa iruditzen zait egitea baino.



Alexander teknika eta ahotsaren berreziketa

Uztailak 2

Uztailak 3

Uztailak 4

8:00 Dokumentazioaren banaketa

9:00 Sarrera ekitaldia

9:30

9:00

9:00

F.M.Alexanderrek (1869-1955) ahotsaren arazoak gainditu ahal izateko teknika hau sortu zuen bere buruarekin erlutasun arazoa aztertu zuenean. Hasieran, bere teknikari "Arnasketa eta bokale berrezierako metodo berria" izena eman zion.


- Ikastaro hau lantzeko moduan arnasketa-bokale berreziketari oinarrituko gara.
- Horretarako, talde eta bakarkako klaseen bidez, Alexander Teknikako printzipioak aurkeztu eta ahotsa-arnasketarekin erlazionaturik dauden prozedurak landuko dira. Ezaguera praktikoak esperientzia sensorialaren bidez ulertuko dira.
- Kontrol Primarioaren ezaguera; hau da, burua-lepoa eta bizkarrezurraren artean dagoen erlazio horren ezaguera eta kontrol primarioaren erabileraren hobetzea ahotsa eta arnasketa indirektoki hobetu ahal izateko.
- Ikastaroaren egitarauan printzipalki ahotsaren erabilerari oinarrituko gara, kontrol primarioa hobetzeko helburuarekin.
- Taldeko eta bakarkako lanean tentsioak landuko ditugu kontrol kontzientearekin batera Alexander Teknikako prozedura zehatzen bidez.

* **Anne LANDA**. Alexander Teknikako irakaslea. Amsterdamgo Alexander Teknikako zentroan diplomatua.

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA



Alexander teknika eta ahotsaren berreziketa



Ikastaro honetan ahotsaren berreziketa landuko dugu, eta horretarako Alexander teknikaz baliatuko gara.

Hiru egunetan zehar lortu nahi diren helburuak hauek dira:

- Ahotsaren erabilera aztertzea arazo arrunten zergatia esperimentatu ahal izateko.

- Tentsio eta interferentziak non kokatzen diren ikustea, batik bat zergatik sortzen diren eta nola lortzen den gelditzea, betiere ahotsaren erabilera egokia aurkitu dezagun, eta horren bidez ahotsaren zuzenbide eta intentsitatea.

- Nola landu gehiegizko tentsioa eta beldur eskenikoa.

- Ahotsaren askatasuna edukitzea: erabilerak onak funtzionamendu ona dakarrelako.



Anne LANDA
Alexander Teknikako irakaslea

Metodologia eta programa

F. M. Alexanderrek (1869-1955) ahotsaren arazoak gainditu ahal izateko teknika hau sortu zuen bere buruarekin erlatusan arazoa aztertu zuenean. Hasieran, bere teknikari **“Arnasketa eta bokale berrezirako metodo berria”** izena eman zion.

Ikastaro hau lantzeko moduan arnasketa-bokale berreziketan oinarrituko gara.

Horretarako, talde eta bakarkako klaseen bidez, Alexander Teknikako printzipioak aurkeztu eta ahotsa-arnasketarekin erlazionaturik dauden prozedurak landuko dira. Ezaguera praktikoak esperientzia sentsorialaren bidez ulertuko dira.

Kontrol Primarioaren ezaguera landuko dugu; hau da, burua-lepoa eta bizkarrezurraren artean dagoen erlazio horren ezaguera eta kontrol primarioaren erabilera hobetzea ahotsa eta arnasketa indirektoki hobetu ahal izateko.

Ikastaroaren egitarauan printzipalki ahotsaren erabilera oinarrituko gara, kontrol primarioa hobetzeko helburuarekin.

Taldeko eta bakarkako lanean tentsioak landuko ditugu kontrol kontzientearekin batera Alexander Teknikako prozedura zehatzen bidez.



Diafreo, gorputza lantzeko beste era bat

Diafreo,
gorputza lantzeko
beste era bat

Uztailak 2

Uztailak 3

Uztailak 4

8:00 Dokumentazioaren banaketa

9:00 Sarrera ekitaldia

9:30

9:00

9:00


Taldeka edo binaka lan egingo dugu eta hainbat materialez baliatuko gara gure gorputzaz ohartzeko: pilotak, makilak, eta abar. Saio bukaeran bizitutako esperientziaz hitz egiteko tarte izango dugu.

* **Maite Agirre.** Bartzelonako Unibertsitatean Biologia ikasketak egina eta EHU-n Psikologia ikasketak. Gorputz lanari buruzko ikasketak: diafreo, masajea eta abar.

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA



Diafreo, gorputza lantzeko beste era bat



Diafreo hitza grezierazko *dia* - *frein*-etik dator eta pasatzen utzi esan nahi du. Gure gorputzean eta sentipenetan adi egotera gonbidatzen gaituen lan metodo bat da.

Esperientziak frogatzen duenez, tentsioak giharretan pilatu ohi dira, beroien uzkurketa kronikoa eta tonizitate aldaketa eraginez. Horrek artikulazio eta hezurderako hainbat puntutan du eragina eta gorputz jarrera, adierazpena eta sentsibilitatea aldatzen eta inhibitzen ditu. Beraz, artikulazio eta giharren tonuaren gain lan eginez, gorputz adierazpenean, sistema neurovegetatiboan, arnasketan... eragin daiteke, eta metodo hau oinarri horren gainean eratu da.

Praktikan, metodo honek gure tentsioaz ohartu ahal izateko aukera ematen diguten giharren luzamenduzko jarrera orokorrak eta mugimendu geldi eta zehatzak bateratzen ditu, hainbat kontzeptu kontuan hartuz: arreta kontzientea, kontaktua, lordosia, konpentsazioak...

Giharren luzaketa orokorreko ariketak direla medio, gorputzeko hainbat atal kontzienteki landuko dugu, gorputzak unitate moduan funtzionatzen duela kontuan hartuz. Horrela, gorputzean blokeatuta ditugun zatiez ohartzeko eta aldatzeko aukera izango dugu, eta baita ere anatomia arloan ezagutu eta gorputz jarrera egokiak identifikatu ahal izateko.

Azaleko eta sakoneko sentsibilitatean eragina duen kontaktuzko lanetan ere arituko gara, hainbat mugimendu eta jarren bidez. Horrela, gorputz kontzientzia landu dezakegu, ager daitezkeen barne



Maite AGIRRE
Biologoa eta psikologoa

sentsazioei espazioa eta adierazpena emanez.

Nondik nora joango den jakin dezazuen, honelakoa izan daiteke ikastaro honetan egingo ditugun saioen adibide bat, jakinik egitaraua malgua dela eta taldeak berak markatuko duela erritmoa:

- Lanaren aurkezpena.
- Gorputzeko hainbat atalen behaketa sakona zenbait jarreratan: zutik, etzanda,

eserita, mugimenduan...

- Arnasketaren behaketa.
- Erlaxazio ariketak.
- Luzamendu orokorra prestatuko duen gorputz atalen lana:

* Kontaktuzko ariketak. Horretarako zenbait material erabiliko dugu erreferentzia gisa: hainbat pilota mota, makilak, kortxoak...

* Mugimendu geldi eta zehatzak. Mugimendu hauek arreta handiz egiten saiatuko gara, behar duguna soilik erabiltzen saiatuz, gehiegizko indarrak egin gabe eta arnasa hartzen dugun modua kontuan izanik.

- Luzamendu orokorreko jarrera. Kasu honetan luzamendua ez behartzen, konpentsaziorik ez egiten, gure mugak onartzen, mina sentitu gabe tentsioa kontrolatzen eta gorputzak adierazi nahi duena entzuten saiatuko gara, arnasketan ere adi egonez.


- Saioaren ondorengo behaketa: egoera, sentsazioak...

- Bititakoaren ahozko adierazpena.



Antzerkia eskolan

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 Aurkezpena. Nondik-norakoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurretiko ariketak: izenekin jolasak (<i>kolore-ak-bokalak-ahotsa espazioan...</i>). - Espazioan mugitzen (<i>oinez hainbat erritmotan, espazioa osatu, zolu ezberdinak...</i>). - Gorputza (<i>imana, itzala, ispilua, bikoteak imitazioa, txontxongiloa, zer duzu mugitzeko?...</i>). - Ahotsa (<i>txiklea jan, aurpegi arraroak, soinua jartzera, onomatopeien aurkezpena</i>). - Inprobizazioa (Dramatizazioa) (<i>Taldearen izena</i>). - Komentarioa. <p>* Patxi SANTAMARIA. Antzerki, zine eta telebistan antzele eta zuzendari bezala aritua. * Inaxio TOLOSA. Antzerki, zine eta telebistan antzele eta zuzendari bezala aritua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputza (<i>ibilerak, era ezberdinetan zapaldu, animaliak, agurrak, personaiak...</i>). - Sentsibilizazioa (<i>zentzuak esnatzen, erlaxazioa...</i>). - Ahotsa (<i>aurpegiak, onomatopeiak...</i>). - Inprobizazioa (<i>ezustekoen gaztelua, urtarok</i>). - Komentarioa. <p>* Patxi SANTAMARIA. Antzerki, zine eta telebistan antzele eta zuzendari bezala aritua. * Inaxio TOLOSA. Antzerki, zine eta telebistan antzele eta zuzendari bezala aritua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 Ariketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Liderrari jarraitzen, sinadurak, konfiantzazko ibilbidea, tren eroa... - Eskuekin hitz egiten, koreografia... - Testuak ozenki, maskaren kortina, antonimoak.. - Inprobizazioa (<i>personaiak, jantziak, tresnak, antzezpena</i>). <p>* Patxi SANTAMARIA. Antzerki, zine eta telebistan antzele eta zuzendari bezala aritua. * Inaxio TOLOSA. Antzerki, zine eta telebistan antzele eta zuzendari bezala aritua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Antzerkia eskolan

Ikastaro honetan eskolan antzerkia landuz izan dugun esperientzia azalduko dugu, eta horretarako gure proposamenak eta tresnak eskainiko ditugu.

Antzerkia edo joko dramatikoak hainbat arlo lantzeko aukera eskaintzen du. Besteak beste, norbanakoren eta taldearen garapenari laguntza ematen dio. Eta era berean, adierazpen askatasuna eta barne mundua adierazteko urratsak eskura jartzen ditu.

Hori jakinda, beraz, arlo horiek lantzeko ariketak egingo ditugu:

- Espazioan mugitzeko: oinez hainbat erritmotan, espazioa osatu, zoru desberdinak.

- Gorputza lantzeko: imana, itzala, ispi-lua, bikoteen arteko imitazioa, txotxongi-loa, zer duzu mugitzeko?, ibilerak, era desberdinetan zapaldu, animaliak, agurrak, pertsonaiak...

- Ahotsa lantzeko: txiklea jan, aurpegi arraroak, soinua jartzea, onomatopeien aurkezpena, aurpegiak, onomatopeiak...

- Inprobisazioa (dramatizazioa): taldearen izena, ezustekoen gaztelua, urtaroak, pertsonaiak, tresnak, antzezpena...

- Sentsibilizazioa: zentzuak esnatzen, erlaxazioa...

- Koreografia

- Testuak ozenki, maskaren gortina, antonimoak....

Ariketak bilakaera baten barnean ikusiko dira, beti ere aurretikoak ikusiz.

Amaitzeko inprobisazioen bidez antzerki lantzea osatuko dugu.

Azken finean, sormena eta zentzuak landuz antzerki mundua ezagutarazi nahi dugu. A! eta ondo pasaz, noski!!!



Patxi SANTAMARIA

Antzerki, zine eta telebistan antzezle eta zuzendari aritua



Inaxio TOLOSA

Antzerki, zine eta telebistan antzezle eta zuzendari aritua



Munduko dantzak eskolan

Uztailak 2

Uztailak 3

Uztailak 4

8:00 Dokumentazioaren banaketa

9:00 Sarrera ekitaldia

9:30

9:00

9:00


- Kalejira berezia
- Aurkezpen dantza, TIENE (Errusia), biribilean dantzatzeko.
- Eroa eta Jakintsua, TSADIK KATAMAR (Israel), biribilean dantzatzeko.
- Gurditxoa, DIE KUTSCHE (Austria), launaka dantzatzeko.
- Atsedenaldia (apunteak hartzeko).
- Lehenengo atalean egindakoari errepasoa.
- Zapatari dantza, (Euskal Herria).
- Haziaren dantza, SADILA SE ROOGOZEK (Kroazia).
- Erlaxazio dantza, MISSA GRECA.

* **Arantza ALVAREZ.** Irungo Txingudi ikastolako irakaslea.

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA



Munduko dantzak eskolan

Programan azaldu genuen bezala, ikastaro honetan ez dugu dantza egiteari buruzko teoriarik azalduko, alegia, ez da inola ere ikastaro teorikoa izango, guztiz kontrakoa baizik: ikastaro honetan dantza egingo dugu gogotik; teoria gutxi eta mugimendu asko.

Nolako dantzak

Hiru multzotan sailkatuko genituzke ikastaroan ikasiko ditugun dantzak:

a) Munduko hainbat herrialdetako folkloarekin lotutakoak. Horietako batzuk dantza tradizionalak dira, eta beste batzuk tokian tokiko musika tradizionala oinarri hartuta, gaur egun asmatutakoak ditugu. Oso jatorri desberdinetakoak izango ditugu: Euskal Herria, Frantzia, Errumania, Israel, Austria, Grezia, Eskozia... Jatorriaz aparte, bestela ere dantza bakoitzak bere nortasuna du: batzuek erritmo azkar-azkarrak dute, hau da, bizi-bizikiak dira; beste hainbat geldoagoak dira; batzuk korroan eta bakarka dantzatzekoak dira; beste zenbait, berriz, binakakoak...

b) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako hurrekin egiteko modukoak. Horietako zenbait Txingudi ikastolako musika irakasleak sortutakoak dira, eta beste hainbat hanhemenka ikasitakoak.

c) Dantza libre. Azken hau eta b) taldekoak saioen hasieran erabiliko ditugu gorputza berotze aldera.

Dantza egin, zertarako?

- Lehenik, ondo pasatzeko, bai ikastaroan bai ondoren, dantzak eskolatzen ditugunean.



Arantza ALVAREZ
Irungo Txingudi ikastolako irakaslea

- Erritmoa lantzeko.
- Elkarren arteko harremanak estutzeko.
- Hainbat herrialdetako folklorea ezagutzeko eta ezagutarazteko.

- Lotsa soinetik astintzeko.

Bukatzeko, hona hemen nolakoa izan daitekeen ikastaro honetako dantza egun bat:

- Aurkezpena
- Beroketa jolasak (haur txikien dantzak eta dantza libre)
- Israelgo *Eroa eta Jakintsua*
- Eskoziako *Cumbrelan Ree*
- Austriako *Die kutsche*
- Atsedena
- Lehenengo atalean egindakoari errepa-soa.


- Errumaniako *Alnelul*
- Euskal Herriko *Zazpi Jauziak*
- Eta, bukatzeko, kalejira berezia.

Edozelan ere, egun bati dagokion egitarautxo hau malgua da, jakina: taldeak hartzen duen erritmoak markatuko du zenbat dantza ikasi eta horien hurrenkera.



Psikomotrizitatea bizipenetik kontzeptura

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 Goizeko saioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Saio bibentzialak: mugimenduaren plazeretik abiatuz (plazer sensoriomotorea) norbera eta besteekin egokitzearen hasierari eutsi (ajustea). - Bibentziak erregistro sinbolikoan kokatzera iritsi (hitza, idatzia, marrazkia...). <p>* Alvaro BEÑARAN. Psikomotrizitatean hezitzailea eta terapeuta. Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakaslea. Pedagogia terapeutikoan lizentziatua.</p> <p>* Nati SANCHEZ. Psikomotrizitatean hezitzailea eta terapeuta. Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakaslea. Pedagogia terapeutikoan lizentziatua</p> <p>14:00 BAZKARIA</p> <p>16:00 Arratsaldeko saioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Saio bibentzialak: mugimenduaren plazeretik abiatuz (plazer sensoriomotorea) norbera eta besteekin egokitzearen hasierari eutsi (ajustea). - Bibentziak erregistro sinbolikoan kokatzera iritsi (hitza, idatzia, marrazkia...). <p>* Alvaro BEÑARAN</p> <p>* Nati SANCHEZ</p>		<p>9:00 Goizeko saioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Saio teorikoa: goiz batean, lau ordukoa izango da. <p>Edukia: saio bibentzialetan landutakoari buruzko kontzpetualizazioa:</p> <p>“norberari entzutea”, “besteari entzutea”, “laguntzea” (acompañamiento), “egokitzea” (ajustea), “enpatia tonikoa”, “erresonantzia tonikoak”, “dezentrazioa”...</p> <p>* Alvaro BEÑARAN. Psikomotrizitatean hezitzailea eta terapeuta. Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakaslea. Pedagogia terapeutikoan lizentziatua.</p> <p>* Nati SANCHEZ. Psikomotrizitatean hezitzailea eta terapeuta. Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakaslea. Pedagogia terapeutikoan lizentziatua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Psikomotrizitatea: bizipenetik kontzeptura

Bizipenetik kontzeptura, neure buruari entzun besteari/haurari entzun dhal izateko, izenburuak hezkuntza ekintza, hezkuntza harremana, gizakia bera eta beronek ingurunearekin duen harremana ulertzeko modu bat adierazi nahi du.

Bizipenetik kontzeptura diogunean, hezkuntzaren errealitatearen mailak integratu beharra adierazi nahi dugu, hezkuntzako praktikaren eta teoriaren artean behin eta berriz aurkitzen dugun haustura gainditzeko.

Bizipenetik kontzeptura izenburuak integratu egiten ditu bi ideia horiek, bizipena eta kontzeptua azpimarratzeko asmorik gabe; helburua haurrekiko gure eguneroko lanean sortzen den joan-etorriko ibilbide etengabea nabarmentzea da.

Kontzeptuen edo norabide pedagogikoen bidez soilik lantzen den bizipena barnekotasunaren mailan baino ez da geratzen, lanbidearen planora, hau da, hezkuntza ekintzaren planora, igaro gabe. Eta egitura pertsonalei dagokienez, profesionalaren nahikari, beldur eta abarren esparruan sustraitzen ez den kontzeptua inoiz ez da burutik harago joango, alegia, ezin izango du *hezkuntza girorik* eraiki.

Bada kontzeptu bat, *curriculum ezkutua*, adierazi nahi duguna argi eta garbi agertzen duena, gure ustez: eskolatan haurrei ez zaie egitasmo idatzietan ageri dena helarazten, ikastetxeetan ondo funtzionatzeko duena baizik. Egitasmoan kooperatibismoa proiektu gisa ager daiteke, alderdi hori lantzeko espazioak eta denborak zehaztuta eta jarduerak programatuta egon daitezke, baina eskolaren funtzionamenduak, bere maila guztietan, bizikidetzaren eta lanaren antolaketaren kontzeptu kooperatibistari erantzuten ez badio (irakasleen artean, zuzendartzan, ikasleekiko...), eskola horretako haurrek errealitate horren bizipena barneratuko dute, astean behin lantzen den kooperatibismo mota baino.

Beraz, jarrerak ditugu mintzagai, jarduerak baino.

Bernard Acourierren psikomotrizitate praktika, bere izenak adierazten duen legez, praktika da, eta bere metodologia, materialak, espazioak, denborak eta abar ditu. Baina praktika horren alderdirik garrantzitsuenak ez da praktika bera, hezitzailearen jarrerei, hezkuntza harremanari eta hauraren ulerkuntzari eta heltze psikologikoaren prozesuari



Alvaro BEÑARAN
Psikomotrizitatean hezitzailea eta terapeuta

buruz egiten duen proposamena baizik.

Hezkuntzan erabiltzen ditugun jarduerak, baliabide materialak eta abar gure hezkuntza filosofiari eta gure hezkuntza proiektuari bideragarritasuna emateko bitartekoak (garrantzitsuak) besterik ez dira.

Jarduerak -praktikak- ez dute berez pedagogia horren funtsa zehazten (baldintza dezaketen arren). Azal dezagun adibide erraz baten bidez: gaur egun Euskal Herriko ikastetxe askotan konstruktibismoarekin batera irakurtzen eta idazten ikasteko egiten diren jarduerak ez dakarte ezinbestez aipatutako pedagogia motaren ezarpena. Izan ere, irakurketa-aren eta idazketaren ikaskuntzaren zentzu konstruktibista euren hezkuntza harremanetan ikaskuntzaren ikusmolde horrekin bat diharduten profesionalen prestakuntzaren eta barne eraketaren eskutik etorriko baita halabeharrez. Gainerako guztiak formak besterik ez dira. Eta oso garrantzitsua da funtsak eta formak elkarrekiko koherenteak izatea.

Gure iritziz, jarrera batzuk eta horiei dagozkien kontzeptuak ondo barneratzeko modu bakarra haurrekin lan egingo duten profesionali zuzendutako prestakuntza pertsonala da.

Haurari entzutea, bere egoerarekiko empatia bilatzea, globaltasunean adierazteko duen beharra errespetatzea, haurrak direnari buruz eta egiten dutenari buruz geure baitan sortzen diren erresonantzia tonikoez konturatzeko, heltze psikologikoaren prozesuan laguntzea, doikuntza, lekoratzeko gaitasuna... kontzeptuak dira, ideiak, eta ulertu egin daitezke plano arrazionalean, baita onartu ere maila horretan, baina gure egitura pertsonalean



Nati SANCHEZ
Psikomotrizitatean hezitzailea eta terapeuta

behar bezala integraturik ez badaude, geure izaeraren, bizieraren, besteak ulertzeko eta ulertarazteko geure eraren atal ez badira, sekula ezingo ditugu erabili. Izan ere, ez dira teknika hutsak, jarrerak baizik, eta jarrerok profesionalaren baitan erroturik baino ez dute izaterik.

“Haurra bere horretan onartu behar da”, “haurrekin ez dugu oldarkortasunez jokatu behar”, “haurrari entzun egin behar zaio, adierazteko aukera eman”... printzipio horien kontrarik egiten inor ez da ausartu, baina guztiok dakigu oso modu desberdinetan uler daitezkeela, eta eguneroko zereginetan kontraesan ugari sortzen direla egiten dugunaren eta esaten dugunaren artean...


Gure jarrera pertsonalen eta gure hezkuntza printzipio eta ekintzen arteko koherentzia bilatzeari ezinbesteko deritzogu, eta hori lortzeko, funtsezkoa da geure buruari begiratzeko lanari ekitea, begirada ahalik eta gutxien kutsaturik ipini ahal izateko geroago bestearen gainean.

Bestei entzuteko, geure buruari entzutea; gainerakoak ulertzeko, geure burua ulertzea; gainerakoaren gaitasun eta mugez ohartzeko, geure gaitasun eta mugez ohartzea... zentratzeko, norbera zentratzea.

Forma eta teoria zoragarriak sor ditzakegu, baina hori guztia gutako bakoitzaren bizieran benetan errotu ezean, gazteluak airean eraikitzen ibiliko gara, gure gizarteak jasaten duen alienazio gero eta biziagoa elikatzen. Winnicottrek biziera aizuna deritzona elikatzen ibiliko gara, azalekoan oinarrituriko eta formei eta itxurazkoari kateaturiko gizarte, alegia.

Euskaraz aritzeko kantak eta jolasak

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - Sarrerako jolasak: izenak ikastekoak (armiama, mimoa...) eta giotze jolasak (korapiloa...).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolas tradizionalak eta berriak. - Zotz era ezberdinak. - Sokasaltoan aritzekoak. - Behatz jolasak. - Txalokakoak. - Aukerako jira-bira alaiak. - Asmakizunak. - ... <p>* Leire Elices eta Harkaitz Izagirre. Jolas ikastaroetan adituak.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Gomatan aritzekoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza jokoak (aho-korapiloak, ikusi-makusika, errima jolasetan...). - Talde jolasak (zubiri-zubiri, magila, banpiroa...). - Kulunpiotakoak. - Erritmoa lantzeko jolasak. - Imitazio jolasak. - ... <p>* Leire Elices eta Harkaitz Izagirre. Jolas ikastaroetan adituak.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - "Kantineritaren" antzekoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ezkutaketan aritzekoak. - Bidaia abestiak. - Dantza ezberdinak. - Aulkien jolasa. - Txakolinke, barraskilo, baloi, gaila... jolasak. <p>* Leire Elices eta Harkaitz Izagirre. Jolas ikastaroetan adituak.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Euskaraz aritzeko kantak eta jolasak

Behin batean, aspaldiraino joan gabe, Euskal Herriko bazterretan umore gutxiarekin pasatzen ziren egunak. Lainoek ez zieten eguzki izpiei gure lurraldea argitzen uzten, horregatik, festarako eta jolaserako pasarte gutxi zituzten. Haurrek, mandoak bezalaxe eskolatik lanera eta lanetik eskolara igarotzen zituzten egunak.

Xanti eta Maribi, Kantterrin bizi ziren; han ere, txantxa gutxi! Eskolan bihurrukeriaren bat egiten bazuten, maistrak Serafin *gure herriko alkateari* deitu eta honek zigor latzak ezartzen zizkien ikasleei. Beraz, eskolan denak erne eta zut egon behar ziren maistraren erretolika entzunez, irri bat bera ere egin gabe.

Egun batean, gure neska-mutilak eskolatik etxerako bidean *Serafin mokofinen* doinua abesten ari zirela, txori bat goian kantari hasi zitzairen. Egunak pasa ahala, txoria Serafin mokofinen kantua abestuz azaltzen zitzairen. Halako batean, txoriak esan zien:

- Aizue lagunak! Etor zaitezte nirekin basora jolas egitera!
- Basora?
- Niri beldurra ematen dit basoak.
- Ez izan beldurrik. Han lagun asko egingo ditugu eta oso-oso ondo pasako dugu jolasean.

Horrela bada, basorantz abiatu ziren hiru lagunak *ilaran goaz* kantari, aurrekoak egiten zituen zirkin eta oihiak errepi-katuz. Basoko zabalune ezkutatu batera iritsi zirenean, hantxe topatu zute *Martin Konkortsua* bere soinu eta guzti. Jende



Leire ELICES

Hik Hasiko "Haur-jolasen abestiak" ikastaroko emailea

guztia han zebilen *saltoka eta brinkoka, korro-korroan*, dantzari: Etxenagusiko Mustafa eta *Patxiku* sardinazalea ere, *txakolinke* algaraka. *Sorginsaltoan* zebiltzan, berriz, Graxiana eta Begoña, Baga-Biga-Higa kantari. *Pantxika* hontza ere han zegoen guztiei begira eta zaindari lanak egiten, herriko alguazilen bat etorri baino lehen ohartarazteko.

Xanti eta Maribi harriturik zeuden topatu zuten toki eta jendearekin. Eskolan eta herrian zuten egoera jasangaitza zitzaiea kontatu zieten bere lagun berriei. Guztietan zikoitzenak Serafin alkatea eta maistra muturluzea ziren zalantzarik gabe, eta horiek irauten zuten bitartean ez zuten herrian basoan zegoen girorik sekula ezagutuko.

Neska-mutil gajoen istorioa entzunik, Graxiana sorgiñak bere amonak erakutsitako trikimailua erabiltzea erabaki zuen Serafin mokofinen kontra, eskarmentu gisa. Beraz, basoan kalejira handi bat antolatu eta herrira jeitsi ziren *jira-bira eta*



Harkaitz IZAGIRRE

Hik Hasiko "Haur-jolasen abestiak" ikastaroko emailea

kate, zozo-zozoan alkateari oles egitera.

Herriko plazan alguazilek festa giroa sumatu zutenean, berehala hots egin zioten alkateari. Serafin zeharo haserreturik atera zen plazara ero baten moduan birao-ka. Kalejirak, *gure herriko alkatea* inguratu zuen eta Graxianak oihi batean alkateari begietara begira esan zion:


"Txitxirri-mitxirri komunipan, harri bihurturik hortxe bertan!"

Eta bat-batean, Serafin, estatua baten moduan geratu zen plazaren erdian, baina kasu! ohar bat bota zuen Graxianak: *"Orain aske zarete herriari alaitasuna emateko. Baina jolasak eta festak egin ezean, Serafinek pixkanaka bizia hartzeko arriskua du."* Orduz geroztik, Kantterriko plazan jai giroan ibiltzen dira guztiak, *haur, zahar eta gazte euskaraz jolasten*.

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila Kantterriko plazan eta atera dadila Euskal Herriko eskola guztietan!!

Jolas kooperatiboak

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
8:00 Dokumentazioaren banaketa		
9:00 Sarrera ekitaldia		
9:30	9:00	9:00
<ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartze programen oinarri teorikoa. - Jolas kooperatiboen programen ezaugarriak. - Taldean ezartzeko prozedura. - Metodologia eta programak ebaluatzeko balibideak. - Esku-hartze programen baliozko azterketa enpirikoak. 		
<p>* Maite GARAIGORDOBIL. EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea. (<i>Gaztelaniaz</i>)</p> <p>* Igor ESNAOLA. EHUko Irakasle Eskolako irakaslea.</p>		
14:00 BAZKARIA	14:00 BAZKARIA	14:00 BAZKARIA



Jolas kooperatiboak

Ikastaro honetan jolas kooperatibo eta sortzaileetan oinarritutako interbentzio psikohizitzaileraren adar bat aurkeztuko dugu. Beronen helburua garapen soziala, afektibo-emozionala eta haurren sormena bultzatzea da.

80ko harmarkadatik hona Haur eta Lehen Hezkuntzako hainbat taldetan ezarri dugun proposamen honen oinarri teorikoa ikerketako hiru korrante handiren ondorioetan datza. Lehenengo eta behin, haurren jolasen inguruko ikerketen ondorioak; giza garapenerako aktibitate funtsezkoa da, haurren garapen integralean eraginkortasunez eragiten baitu, hau da, haurren garapen psikomotriz, intelektual, afektibo-emozional eta sozialean. Bigarrenik, portaera sozialean aldeko ikerketen ondorioetan oinarritzen da; hortik atera dira garapen pertsonal eta sozialean hainbat faktoretan nolako onurak dituen heziketaren testuingurutan kooperatzeak versus lehiatzeak. Eta hirugarrenik, sormenaren gaineko ikerketak daude; ikerketa horiek haurren sormenaren garapenean entrenatzeak duen eraginkortasuna baieztatzen dute.

Jolas kooperatibo eta sortzaileen programetako aktibitateek bi helburu nagusi dituzte. Lehenengo, beren hazkundean arazorik ez duten haurren garapen integrala bultzatu nahi da, bereziki alderdi sozio-emozionaletan eta sormenaren garapenean eraginez. Bigarrenik, programa honek funtzio terapeutikoa dauka, jolasaren esperientziaren bitartez lagunekin interakzio arazoak eta beren garapenean bestelako arazoak dituzten haurrak sozialki integratzen direlako. Bi helburu nagusi horiez gain, beste hainbat zehatzago ere



Maite GARAIGORDOBIL

EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea

biltzen ditu programak.

Oro har, programako jolasek komunikazioa, kohesioa, konfiantza eta sormenaren garapena estimulatu ditu. Eta horren azpian elkarrekin jolastuz eta asmatuz onartzeko, errespetatzeko eta partekatzeo ideia dago.

Programa honetarako sailkatutako jolasek egiturazko bost ezaugarri dituzte:

1- Parte-hartzea: jolas hauetan taldeko guztiek parte hartzen dute, ez da inoiz inor kanporatzen eta ez du inork irabazi edo galtzen. Xedea da taldeko helburuak lortzea eta horretarako taldekide bakoitzak beharrezkoa den eginkizuna du jolasaren barruan.

2- Komunikazioa: jolas guztiek talde barruko komunikazio prozesuak egituratzen dituzte.

3- Kooperazioa: jolas gehienek harreman dinamika estimulatu dute. Horrek taldeko helburua lortzeko elkarri laguntza ematea dakar.

4- Fikzioa eta sormena: errealitatea edo egia "balitz bezala" jolasten da, hots, elementuak, hegazkinak, piratak edo artistak... bagina bezala, eta elementu berriak



Igor ESNAOLA

EHUko Irakasle Eskolako irakaslea

sortzeko estimuluak ere konbinatzen dira.

5- Dibertsioa, ondo pasatzea: jolas hauen bidez haurrak taldekideekin positiboki eta era konstruktiboan arituz ondo pasa dezaten ahalegintzen gara.

Programak hainbat dimentsiotan (ahozkoa, dramatikoa, plastiko-konstruktiboa eta grafiko-figuratiboa) komunikazioa, gizartearen aldeko portaera eta sormena estimulatzeko 60 jolasez osatuta daude. Programako ekintzak bi modulu edo talde handitan banatzen dira:

1- Komunikazioa eta gizartearen aldeko jarrera jolasak

2- Sormen jolasak


Programa hau gelan ezartzeak hiru fase inplikatu ditu: testaren aurreko ebaluazioa, jolas programaren ezarpena eta testaren ondoren ebaluazioa.

Egin diren ikerketek enpirikoki frogatu dute jolas kooperatiboek eta sortzaileek garapenean duten garrantzia. Izan ere, haurren sormena eta garapen sozio-emozionalerako baliagarri diren interbentzio psikohizitzailerako tresna ludikoak sistematizatzen ditu.

Hizkuntzen curriculum bateratua

Koordinatzailea: Matilde Sainz

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - 10:00 Hizkuntzen kudeaketa ekologikorako baldintzak. Gai osoari sarrera</p> <p>10:00 - 11:30 Pertsona eleanitza: kontzeptu berria eta hizkuntzaren ikuspegi epistemologikoa hizkuntzen kudeaketa ekologikoan * Pili SAGASTA eta Matilde SAINZ. Mondragon Unibertsitateko irakasleak.</p> <p>11:30 - 12:00 ATSEDENALDIA</p> <p>12:00 - 13:00 Alderdi metodologikoak * Lurdes ETXEBERRIA. Aretxabaletako Kurtzeberri eskolako irakaslea</p> <p>13:00 - 14:00 Hizkuntzen curriculum bateraturako proposamena * Rosa Mari ARANO. Irungo Txingudi ikastolako irakaslea</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - 10:30 Curriculumeko hizkuntzen estatusa eta hizkuntzen curriculum bateratura * Montserrat FERRER. DBHko irakaslea eta Jaume I Unibertsitateko irakaslea.</p> <p>10:30 - 11:30 Curriculum bateratuaren antolaketa. Proposamena. * Montserrat FERRER. DBHko irakaslea eta Jaume I Unibertsitateko irakaslea.</p> <p>11:30 - 12:00 ATSEDENALDIA</p> <p>12:00 - 14:00 Mahai ingurua: hizkuntzen curriculum bateratua. Partaideak: * Pili SAGASTA * Montserrat FERRER * Rosa Mari ARANO. * Begoña OCIO Moderatzailea: Matilde Sainz</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - 11:30 Bartzelonako Vila Olimpica eskolako curriculum bateratua. Esperientzia eleanitza. * Rosa M^a RAMIREZ. Vila Olimpica eskolako irakaslea. * Teresa SERRA. Vila Olimpica eskolako irakaslea.</p> <p>11:30 - 12:00 ATSEDENALDIA</p> <p>12:00 - 14:00 Idatzizko adierazpena eba-luatzeko irizpide bateratuak. Begoñazpi ikastolako esperientzia. * Begoña OCIO. Bilboko Andra Mari Irakasletza Eskolako irakaslea. * M^a Karmen LANDAJO. Bilboko Begoñazpi ikastolako irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Hizkuntzen curriculum bateratua



Rosa Mª ARANO
Irungo Txingudi ikastolako irakaslea



Pili SAGASTA
Mondragon Unibertsitateko irakaslea



Matilde SAINZ
Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Hizkuntzen curriculum bateraturako proposamena

Hezkuntza erreformaren berrikuntza eskakizunei aurre egin nahian batetik, eta gurea bezalako komunitate elebidunetan hizkuntzen irakaskuntzak sortzen dituen zailtasunak kontuan izanda bestetik, 1989-1990 ikasturtean Txingudi Ikastolan erakusten diren hiru hizkuntzen -euskara, gaztelania eta ingelesaren- programazioak berritzeko egitasmoarekin hasi ginen. Egitasmo horren ardatz nagusiak materialgintza eta material hori gelaratuko zuen irakasleen prestakuntza ziren. Horrela, Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako 6. maila arteko euskara, gaztelania eta ingelesa lantzeko unitate didaktikoak sortu genituen eta unitate didaktikook gelaratzeko irakasleei prestakuntza eskaini zitzaion.

Saio honetan gure esperientziaren atal baten berri emango dugu, hain zuzen ere, gure hizkuntzak lantzeko proposamen didaktikoaren ikuspegi bateratua zertan

Ikastetxeko hizkuntza proiektuaren kudeaketa ikuspegi ekologiko batetik

Eleaniztasuna gure ikastetxeetako errealitate bat da. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeko hizkuntza proiektuetan hiru hizkuntza erabiltzen dira gutxienez. Hala ere, hizkuntza horien kudeaketa, orokorrean, ikuspegi elebakar batetik egiten da: hizkuntza bakoitza independenteki programatzen

da, hizkuntza bateko kompetentzia komunikatiboaren garapenak beste hizkuntzetako estrategiak eta trebeziak sustatuko ez balitu bezala. Bestalde, hizkuntzen kudeaketa eleanitz baterantz abiatzeko baliagarriak izango liratekeen eredu berritzaileak garatu dira jada hainbat eremu geografikotan. Azkenik, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren kudeaketa elebakarretik kudeaketa eleanitzaileantz abiatzeko kontuan izateko zenbait jarraibide proposatu dira.

den aztertuko dugu. Horretarako, honako gai hauen inguruan hitz egingo dugu:

1. Gure planteamendu didaktikoa burutzeko kontuan izan ditugun faktoreak aztertuko ditugu.

2. Planteamenduaren zutabe diren oinarri teoriko nagusien aipamena egingo da.

3. Hizkuntzen irakaskuntzarako abiapuntutzat hartu dugun ikuspegi batera-

tzailearen zergatiak adieraziko ditugu.

4. Bukatzeko, ikuspegi bateratzaile hori gure proposamen didaktikoan nola gauzatu den azpimarratu nahi genuke, hots, nolako edukiak aukeratu ditugun hiru hizkuntzetarako eta nolako sekuentzia didaktikoen bidez lantzen diren edukiok.

Hizkuntzen curriculum bateratua

Zer da sekuentzia didaktikoa?

Zer desberdintasun dauka unitate didaktikoarekin?

Irakaskuntza munduan gabiltzanok aski ohituta gaude terminologia aldaketetara, sarritan zenbait termino edo hitz erabiltzen baitira kontzeptu bera azaltzeko. Alabaina, beste zenbaitetan, antzerako terminoen azpian desberdintasunak egon badauden arren, zaila egiten zaigu bata eta bestea bereiztea. Izan ere, Erreforma martxan jarri zenetik, proposamen didaktiko berri ugari iritsi zaizkigu, eta azaleko begirada bat emanez, badirudi oinarri teoriko komunetik diseinatu eta landu direla.

Hala ere, gure eskuetara iristen diren proposamen didaktikoak aztertuz gero, antzekotasunak ez direla hain argiak eta, hainbat kasutan gainera, diferentzia nabarmenak bistaratzen direla konturatu gara.

Sekuentzia didaktikoaren eta unitate didaktikoaren artean dauden aldeak antzemateko, bakoitzaren erreferente teorikoak zein diren aztertzea beharrezkoa zaigu; izan ere, proposamen didaktiko bakoitza printzipio teoriko zehatz batzuen pean sostengatzen da.

Zentzu horretan, esan dezakegu, unitate didaktikoak nahiz sekuentzia didaktikoak kontzeptzio teoriko zehatz bat defendatuko eta aplikatuko duela: irakaskuntza-ikaskuntza prozesua modu batean edo bestean definituko du, ikasgai den objektuaren deskribapen eredu bat proposatuko du, irakasleek eta ikasleek hartuko dituzten rolak ezarriko ditu, edukiak lantzeko aztertuko diren ereduak hautatu, ebaluatzeko moduak eta irizpi-deak finkatu... Hau da, horietako propo-



Lourdes ETXEBARRIA
Aretxabaletako Kurtzeberri ikastolako irakaslea

samen bakoitzak modu batean interpretatu eta aplikatuko du bere ikaskuntza-irakaskuntza eredu, gelako jarduerak era batean edo bestean planifikatuz.

Horrela, bada, sekuentzia didaktikoaren izaera deskribatzeko lagungarria izango zaigu bata eta bestea kontrastatzea.

Sekuentzia didaktikoaren eta unitate didaktikoaren artean dauden aldeak antzemateko, bakoitzaren erreferente teorikoak zein diren aztertzea beharrezkoa zaigu

Konparaketa hau egiteko hiru elementu didaktikoak (irakaslea, ikaslea eta ikasgai den objektua) hartuko ditugu oinarri eta, ondoren, proposamen bakoitzak bultzatzen duen esku-hartze didaktikoa definituko dugu.

Kasu honetan hizkuntzaren irakaskuntza zentratuko garenez, zenbait galderari erantzuten saiatuko gara:

- Zein da hizkuntzari buruz egiten den deskribapena? Edo bestela esanda, zein da hauetariko proposamen bakoitzak aukeratu duen hizkuntzaren ikuspegia?

- Nola planteatzen da hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza eredu hauetan?

- Nola planifikatzen dira hizkuntza-edukiak? Zein testuingurutatik abiatzen dira? Zein curriculum mota planteatzen da bakoitzean?

- Zein hurrenkerari jarraitzen diote gelara eramaten diren jarduerak?


- Zein da irakaslearen lekua Hizkuntzako ikasgaietan? Zein ikaslearena?

- Zer da batean eta bestean ebaluatzen dena? Noiz eta nola ebaluatzen da?

- ...
Beraz, galdera horien guztien inguruko hausnarketa egitea beharrezkoa dugu sekuentzia didaktikoaren eta unitate didaktikoaren artean dauden desberdintasunak antzemateko eta, halaber, sekuentzia didaktikoaren ezaugarri garrantzitsuenak definitu ahal izateko.

Hala eginez, termino bietan didaktiko hitza agertzen den arren, proposamen bakoitzak kontzeptuari adiera desberdina ematen diola konturatu gara.

Horixe izango da, hain zuzen ere, saioan parte hartuko dugunon artean izango dugun egitekoa: hausnarketa eta eztabaida bideratzea, jorratuko dugun gaiari argitasun gehiago emateko xedez.



Hizkuntzen curriculum bateratua

Hizkuntzen curriculum bateratua baten antolaketa

Hizkuntzen curriculum bateratua diseinatzearen garrantzia ezin da zalantzan jarri, eta hala ere, ikastetxe askotan oraindik hizkuntzak beren artean loturarik ez duten sail mugiezinak bailiran hartzen dira.

Hizkuntzen ikuspegi integratua justifikatzen duten arrazoiak asko dira: ikasketaren subjektua pertsona bera da, ikaslea; ikasketa objektua antzekoa da, ikuspegi diskurtsibotik ulertutako hizkuntza naturalak; iturri epistemologikoa komuna da, hizkuntzaren hainbat zientzia; eta azkenik, hizkuntzen apendizaiaren transferentzia onartzen duen azpiko komunikazio gaitasun komuna.

Hizkuntzen curriculum bateratu batek curriculumaren garapeneko hiru mailak hartu behar ditu kontuan. Lehenengo mailak, Hezkuntza Administrazioak zehaztutako curriculumak, ikuspegi orokorra dauka. Lehen hizkuntza deitutakoek helburu, eduki eta ebaluazio kriterio berberak partekatzen dituzte, eta hizkuntza guztien curriculumak aurrekontu orokor komunei erantzuten die. Programazioak oinarritzko curriculumera egokitu ahala, integrazio maila bat bermatua aurkitzen da.

Curriculumaren garapenaren bigarren mailan Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua eta Gaietako Programazioen diseinua egiten da.

Hizkuntza Proiektuak bere barnean biltzen ditu hizkuntza guztien ikasketa eraginkorra bermatzeko ikastetxean egiten diren ekintza guztiak. Bertan zehaztuko dira adierazpen jakiteak bereganatzeko neurri orientatzaileak, estrategia diskurtsiboen garapena eta aurreiritzi linguistikoen ezabaketa. Ikasketako eduki horien



Montserrat FERRER

DBHko eta Jaume I Unibertsitateko irakaslea

lorpena ez da hizkuntzako hainbat mintegiren erantzukizuna soilik, baizik eta hizkuntzetakoak ez diren beste gaietan eta hezkuntza komunitatearen osotasunean landu beharrekoa.

Gai bateko programa era koordinatuan egitea da, seguraski, zailtasun gehien sortzen duena. Horregatik, komenigarria da zentro bakoitzaren baldintzak baloratzea eta helburu lorgarriak eta lan dinamika hoberena zein diren erabakitzea. Zailtasunak handiagoak diren heinean, egiten denaren deskribapena egitetik has daiteke, eta helburuen, edukien, metodologiaren eta ebaluazioaren desberdintasunak eta antzekotasunak baloratu. Beste zenbait kasutan, maila berean dauden zenbait irakasle gelan elkarrekin egindako lanetik abiatzea komeniko da, beraien proposamenak beste sailetan hartuak izan daitezten.

Batera hartutako erabaki horiek irakaskuntza-ikaskuntzaren hainbat alderditan eragin dezakete. Lehendabizi, garrantzitsutzat hartzen diren praktika diskurtsiboak zehazten dira eta etapa bateko mailatan zehar banatzen dira. Sekuentziario

guztietako progresioa eta errepikaria erraz diseina daitezke lehen bi hizkuntzetatik abiatuz. Aukerak anitzak dira: genero bera landu eta edukiak hizkuntzen artean banatu; diskurtso bera mantendu generoak banatuz; aukeraturako genero eta eduki berak landu baina maila desberdinetan banatuz, horrela goragoko mailetako edukiak errepikariak izanik eta beste hizkuntzetan egiten dira lanekiko progresioa.

Erraz adostu daitezkeen beste erabaki batzuk zera dira: ahozko eta idatzizko diskurtsoaren, hausnarketa linguistikoaren eta literaturaren alderdi metodologikoak. Adibidez, idazketa prozesuaren alderdi pragmatikoen, kohesiozkoen eta testuen zuzenketa teknikaren gaineko kriterioak parteka daitezke; idatzizko nahiz ahozko produkzioen planifikaziorako eta berrikusketarako fitxa komunak egin daitezke; beste hizkuntzetan landutako edukiakin aldikako erlazioak egin daitezke; hainbat hizkuntzen arteko lan osagarriak programa daitezke; metahizkuntza komuna adostu daiteke eta abar.

Azkenik, ebaluaziorako planteamendu orokorrak har daiteke: irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko zati bezala ebaluazioak duen garrantzia; hainbat ebaluazio tresnen erabilera; hizkuntzen erabileraren konplexutasuna aintzat hartzen duten ebaluazio kriterioak; autoikasketarako eta autoebaluaziorako estrategien garapena.

**Hizkuntzen
ikuspegi
integratua
justifikatzen
duten arrazoiak
asko dira**

Hizkuntzen curriculum bateratua

Bartzelonako Vila Olimpica ikastetxeko hizkuntz curriculum bateratua proiektuaren garapenaren zenbait adibide

Hizkuntza curriculum bateratuaren proiektuak ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren trataera aztertzen du Lehen Hezkuntzako Ingurumenaren Ezaguerako eta Matematikako edukien ikasketaren bitartez.

Proiektuak eskolako hiru hizkuntzak hartzen ditu bere baitan: katalana, gaztelania eta ingelesa. Hiru hizkuntzen bitartez ikasten dira Matematikako eta Ingurumenaren Ezaguerako hainbat eduki.

Saio honetan gelan egiten ditugun ekin-tzen hiru adibide emango ditugu, zeinak proiektuaren lagin bat diren.

1- Lehen Hezkuntzako 5. mailan Ingurumenaren Ezaguera gaien katalanez azalpeneko testu bat egiteko prozesua.

2- Lehen Hezkuntzako 2. mailan espazioaren geometriaren tratamendua gelan talde txikitako txokoetan antolatuz.

3- Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailan buru kalkulua ingelesez.

Adibide horiek antolaketa kurrikular baten testuinguruan kokatzen dira. Horrek ahalbidetzen du Matematikako eta Ingurumenaren Ezaguerako hainbat eduki eskolako hiru hizkuntzetan banatzea.

Proiektua garatzea eta zehaztea jomuga garrantzitsua da eskolako irakasleria osoarentzat. Izan ere, batetik koordinazio handia eskatzen du, eta bestetik gelako aktibitateak beste modu batera pentsatu eta diseinatu behar dira gaietako edukiak eta hizkuntzak aldi berean ikasi ahal izateko.




Rosa Mª RAMIREZ
Bartzelonako Vila Olimpica eskolako irakaslea



Teresa SERRA
Bartzelonako Vila Olimpica eskolako irakaslea





Hizkuntzen curriculum bateratua



Adierazpen idatziaren irizpideen ebaluazio bateratua

Bego azpi ikastolako esperientzia

Gure saioan Bilboko Begoñazpi ikastolan egindako saiakuntzaren aurkezpena egingo dugu. Proiektuaren helburua, parte-hartzaileak, ikasgaia eta mintegian erabilitako lan metodoa aztertuko ditugu urratsez urrats.

Marko teorikoa

Gure esperientziaren marko teorikoa bi ardatzetan oinarritzen da.

1.- Ebaluazio hezgarria (Garcí-Debanco 1985, T.Ribas1997):

- Irizpideak objektibatu, denok berberak erabil ditzagun.

- Hainbat hizkuntzetako proposamen bateratua sistematizatzea ahalbidetzen duten zenbait testu eredu izan.

2.- Ginebrako testu ereduak (Bronckart,1996; Dolz eta Schnewuly,1997):

- Diskurtso mota bakoitzak dituen abilezia diskurtsiboen arabera, hainbat testu genero erlaziona daitezke. Ondorioz, diskurtso mota bakoitza sekuentziarioan ardatz (diskurtso horren ardatz) bihurtzen da.

- Testuaren kalitatean eragina duten hitzeko jokaeren (abilezia diskurtsiboen) deskribapen objektiboa lortu.

- Abilezien konplexutasunen progresioa kontuan izanik, edukien sekuentziarioa sailkatu edo mailakatu.

Aurretiazko azterketa

1.- Mintegia hasi baino lehen, eskolan erabilitako irizpideak bateratu eta aztertu.

2.- Adierazpenaren kalitatea baloratzeko edo neurtzeko irizpide formalek eta diskurtsiboek daukaten ahalmena aztertu eta konparatu.



Begoña OCIO

Bilboko Andra Mari Irakasle Eskolako irakaslea

Ikerketaren plangintza

1. etapa: zer ebaluatu edo aztertu (2000/2001 ikasturtea):

- Abiapuntuko praktiken barne koherentzia autoebaluatu.

- Hizkuntza, azterketa eredu eta irizpide berberak erabili, hizkuntza bakoitzean (hizkuntza bakoitzaren) ikaste prozesuaren ezaugarriak egokitu.

- Ebaluazio egiaztagarria hobetzeko lehen azterketa tresna prestatu.

2. etapa: nola ebaluatu (2001/2002 ikasturtea):

- Ebaluazioa ikaste prozesua etengabe hobetzeko eta ikasleak ikaste-tresna legez erabiltzeko, prozesuaren arazoak eta prozedurak planteatu.

- Aipatutako helburuak lortzeko sekuentzia didaktikoaren eredu hausnartu.

- Esku-hartzeko proposamen bat eraiki eta esperimentatu.

Lehen etaparen garapena (2000/2001 ikasturtea)

- Testu edukien mapa. Zergatiak, galderak edo zalantzak eta tresnak.

- Curriculumean lantzen gabiltzan testu



Mª Karmen LANDAJO

Bilboko Begoñazpi ikastolako irakaslea

ereduen ezaugarri diskurtsiboak.

- Ikasleen produkzioen azterketa.

- Ebaluaziorako gidaren erredakzioa.

Bigarren etaparen garapena (2001/2002 ikasturtea)

- Autoerregulatzeko prozedurak.

- Sekuentzia didaktikoaren artikulazioa.

- Proiektu ereduaren azterketa.

- Sekuentzia didaktiko baten eraikuntza eta esperimentazioa.

Emaitzak eta ondorioak

1.- Ikastetxe barnerako baliagarriak:

- Gaur egungo eskaintzaren ondorioz, argitaletxeen materialetan hainbat aukeraren hutsuneak eta barne koherentzia ezaren arazoak aurkitu dira.

- Hizkuntza eta eredu diskurtsibo bakoitzerako gida bat osatu.


2.- Ondorio orokorrak:

- Gaur egun arte erabilitako metodoaren baliagarritasuna.

- Hizkuntzen arteko osagarritasunaren mugak eta aukerak.

Ahozkoaren didaktika bigarren hizkuntzan

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
8:00 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30	9:00	9:00
<ul style="list-style-type: none">- Bigarren hizkuntzaren jabeakuntzarako eta ikaskuntzarako baldintzak.- Tarte-hizkuntzak. Akatsak eta beren trataera.- Ahozko hizkuntzaren menderakuntza bigarren hizkuntzan.- Ahozkoaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan.- Irakaslearen papera ahozkoaren i(ra)kaskuntzan.		
* Uri RUIZ BIKANDI. EHU. Bilboko Irakasle Eskolako irakaslea		
14:00 BAZKARIA	14:00 BAZKARIA	14:00 BAZKARIA



Ahozkoaren didaktika bigarren hizkuntzan

Ama hizkuntzaz egiten den irakaskuntzan ez dugu ahozko hizkuntza irakasteko tradizioirik.

Izan ere, eskolak beti pentsatu izan du haurrak hizketan badakie-la eta beraz, bere zeregina idatzian zentratu behar zela. Orain, ordea, gauzak beste era batera ikusten dira: nabaria da hurrek haien ingurunean egiten den ahozko hizkuntza dakitela eta kasurik onenean, inguru horrek erabiltzen dituen aldaera eta erregistro mailak menderatzen dituztela, ez besterik. Gaurko munduan, familiaren eta parekoen arteko mundu estutik ateratzeaz batera, eguneroko solasaz gain, hizkuntzaren erabilerara zaindua ezinbestekoa da eta haur gehienek diskurtso mota horiek ez dituzte menderatzen, ez baitituzte praktikitzen. Zenbait genero eta maila erabiltzen ikas-terko bide luzean, ezinbestekoa da haurrari laguntzea.

Ikasleei pentsamendua antolatzen laguntzea da eskolako zeregin handienetako bat. Ideien antolaketa, haien arteko lotura, eta batez ere arrazoiketa logikoa menderatzea funtsezkoak dira eskolan ondo ibili eta bizitzan defendatu ahal izateko. Ez da ahaztu behar pentsamendua-jokabide horren isla hizkuntzan dagoela. Ondo hitz egiteak ondo pentsatzearekin du harreman estua. Hitz egitean ideiak diskurtsoan antolatzen ditugu, eta aldi berean, ideiak kanporatzeko egoeraren eta hizkuntzaren maneia beharrezkoa zaigu: hiztegi az gain, hizkuntzaren pieza guz-



Uri RUIZ BIKANDI
EHUko Bilboko Irakasle Eskolako irakaslea

tiak eta haien arteko harremana erraztasunez erabiltzen jakitea ezinbestekoa da ondo mintzatzeko.

Eskolak bereziki ez du prozesu konplexu honetan laguntza handirik ematen, ez du ahozkoa irakasten, praktikan ez dio behar duen garrantzia ematen, eta ondorioz, oso aukera gutxi gelditzen zaie haurrei ahozko hizkuntza garatzeko. Izan ere, gelan gehien mintzaten dena irakaslea da.

Euskal Herriko ikasleen populazioaren %70 inguruk erdara dute ama hizkuntza. Haur horien gehiengoari euren bigarren hizkuntza den euskara irakasten dio eskolak. Eta nahiz eta irakaskuntza horren hasieran mintzatzeari garrantzia ematen zaion, ikasketetan aurrera joan ahala, ikas-

Eskolak ez du ahozkoa irakasten, praktikan ez dio behar duen garrantzia ematen

leek hitz egiteko dituzten aukerak gutxituz doaz. Lehen hizkuntzan serioa den jokabide hau, bigarren lan larria izan daiteke. Horrela, lehen hizkuntzan ideiak argitasunez, egokitasunez, koherentziaz eta jariozunez adierazteko ikasleek izaten dituzten oztopoak biderkatu egiten dira bigarren hizkuntzaz hitz egitean. Eta horretan lagundu behar bazaie, laguntza horrek are eta artikulatuagoa eta zainduagoa izan behar du.

Murgiltze programetako ikasleen ahozko hizkuntza maila eskasa da. Jatorrizko hitz euskaldunekin mintzatzeko duten aukera ezak edo eskasiak murriztu egiten ditu haien hizkuntza hobetzeko bideak. Sarritan, ikasleek hizkuntza garatzeko duten espazio bakarra eskola da ia. Horregatik da horren garrantzitsua eskola ahozko hizkuntza lantzeko beharraz jabetzea, bereziki bigarren hizkuntza irakasten ari denean.


Eskolak zeregin handia du ahozkoari dagokionez. Baina hobetzeko bidean ez da nahikoa ahozkoaren denbora gehitzea. Ikasgelan egiten duguna teoriaren argipean aztertu beharra dago, jokabiderik onenak ikasteko eta eraginik ez dutenak baztertzeke. Oso errotutako jokabideak aldatzeko, teoria ezagutzea –praktika interpretatu ahal izateko ezinbesteko betaurrekoak– beharrezkoa zaigu, haren laguntzaz praktika hausnartu eta bertan behar diren aldaketak sartu ahal izateko. Hori da ikastaroan garatzen saiatuko garena: teoriaren eta praktikaren hausnarketa eginik, bereziki bigarren hizkuntzaren ikaste-irakaste prozesua aztertu eta irakaskuntza hobetzeko bideak proposatu. Ikastaroan teoria eta adibide praktikoen analisi tartekatuko ditugu, azalpena eta eztabaidak. Partaideek horretarako prest etorri behar dute.

Idazkera “txarra”?

Ez, eskerrik asko

Idazkera “txarra”?
Ez, eskerrik asko

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - Eroso idazteko aurrealdintzak ezagutzen (ezkertientzat eta eskuientzat): - aulkia, mahaia, gorputz jarrera, orria, idazteko tresna... - Grafomotrizitatea. Zer da ezagutzea.</p> <p>* Irene IBARRA. Psikologoa eta grafoloa. EHUko irakaslea. UEU kidea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Idazkera harmonikoek ahalbidetzen dituzten parametroen azterketa: - letren forma, orriaren antolaketa, letren neurria, letren arteko lotura, makurdura, lerroen norabidea, presioa, abiadura... orekatuenak.</p> <p>* Irene IBARRA. Psikologoa eta grafoloa. EHUko irakaslea. UEU kidea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Idazkerak “txar” bilakatzen dituzten elementuak identifikatzen. - Idazkera “txarrak” bideratzeko tresna eraginkorrak barneratzen.</p> <p>* Irene IBARRA. Psikologoa eta grafoloa. EHUko irakaslea. UEU kidea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Idazkera “txarra”? Ez, eskerrik asko



Ikastaro honetan gustura eskuz idazteko baldintza egokienak zein diren zehaztuko dugu: mahai eta aulkien berezitasunak, orriaren posizioa adinaren eta ezkerre edo eskuina izatearen arabera, gorputzaren jarrera atalez atal (sorbaldada, besagaina, ukondoa, eskumurrak), idazgailu motak eta hauek eroso heltzearen garrantzia. Idaztearen ekintzan parte hartzen duten osagai horiekin era harmonikoan eta ergonomikoan zelan jokatu azalduko da.

Ondoren, idazkera “txarrak” aurrehartzeko grafomotritzitatea lantzearen garrantziaz ariko gara. Eskuaren eta begiaren koordinazioa, formaren kons-



Irune IBARRA

Filologoa, grafologoa, EHUko irakaslea eta UEUko kidea

tantzia, atzamar-eskuen lantzea, erritmo grafomotorea... hori guztia eskolaurrean eta 8 urte ingurura arte jorratzea funtsezkoa da haurrak idazketa era erosoan lor dezan.


Idazkera harmonikoak ahalbidetzeko oso garrantzitsua da letren arteko loturak zelan egin irakastea, espazioen antolaketa esanahiaz konturatzea, lerroen horizontaltasuna barneratzea... Harmonia ikusi eta gero, harmonia hori apurtzen duten elementuak identifikatuko ditugu: idazkera oso txikiak, irregularrak, zikinak, desordenatuak... dira idazkera “txarrak”. Horietako bakoitzak zergati eta konponbide berezia dauka. Kaligrafiarik egin gabe nola bideratzen diren ikusiko dugu gardenki eta bideo bidez.



Literatur txokoa

Koordinatzailea: Xabier Mendiguren

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - Harkaitz Cano</p> <p>Urte gutxian obra zabal, mamitsu eta kalitatezkoa sortu duen gazte honen lanak aztertzean, poesiari eskainiko dio arreta Estankonak, Canoren lehenengo eta azkenengo liburua baitira genero horretakoak: “Kea behelainopean bezala” eta “Nor baitabil sute-eskaileran”.</p> <p>Canoren narratiba aztertuko du Mataukok, bai ipuingintza, bai nobelak eta bai kronikak (“Telefono kaiolatua”, “Bizkarrean tatuaturiko mapak”, “Pasaia Blues”, “Piano gainean gosalitzen”), eta testuen bitartez zenbait ezaugarri azpimarratuko ditu: estiloaren berezitasuna, modernitate zantzuak, iruditeria eta geografia...</p> <p>* Edorta MATAUKO. Itzultzailea, euskara eta literaturako irakaslea IRALen. * Igor ESTANKONA. Poeta eta literatur kritikaria.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Estepan Urkiaga “Lauaxeta” Egilearen bizitzaz eta haren garaiaz zertzelada batzuk eman ostean, haren lan nagusiak ikertuko dira: “Bide Barrijak” eta “Arrats beran” poema liburuak alegia, batean zein batean erabilitako gaiak, eraginak eta teknikak agerian jarriz. Aipagai izango dira Errepublika garaian euskal literaturan izandako eztabaida literario garrantz samarrak, hainbat estetika eta ideologien erakusgarri diren neurrian (Lizardi, Aitzol, Orixe...).</p> <p>Ez da alde batera utziko Lauaxetaren beste alderdi bat ere: prentsako bere kolaborazioak, “Egunekuak” bilduman argitaratuak.</p> <p>* Iñigo ARANBARRI. Idazlea, Filologian lizentziatua eta institutuko irakaslea. * Koldo IZAGIRRE. Idazlea edo gidoigilea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Bernardo Atxaga Lehenik (L. Otaegi), Atxagaren poesia aztertuko da patxadaz, idazlearen pentsaera literarioaren isla zuzena delakoan, eta poesia horren barruan batetik “Etiopia” liburua ikusiko da, eta bestetik geroztiko poemak, hainbat argitalpen, antologia edo diskotan aurki daitezkeena.</p> <p>Ondotik (M.J. Olaziregi), Atxagaren prosa .lan garrantzitsuenetako batzuk ikusiko dira (“Obabakoak”, “Behi euskaldun baten memoriak”, “Bi anai”), lan horiek eskolan lantzeko orduan eskaintzen dituzten aukerei bereziki erreparatuz eta proposamen zehatzak eginez. Halaber, egilea gazteei aurkezteko baliabideen berri emango da: kantuak, CDak...</p> <p>* Mari Jose OLAZIREGI. Filologian doktorea eta EHUko irakaslea. * Lurdes OTAEGI. Filologian doktorea eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Estepan Urkiaga “Lauaxeta”



Zer du gustagarri Lauaxetak gaur egungo irakurle batentzat? Eta galdera sarri entzunagatik, erantzuna ez da ezinezkoa: kontradikzioaren poeta izatea. Izan ere, Aitzolek Espainiako II. Errepublikaren atarian abian jarri zuen Pizkundeko poeten artean, inork gutxik bezala betetzen baitu Estepan Urkiaga, Lauaxetak, tradizioaren eta iturri berrien arteko sintesi zaila. Erromantzeen formaren aldeko hautua egiten du, baina Baudelaireren amasa eransten dio; gai epikoak erabahi dizkigu, baina sinbolisten eta modernisten jantziz kontatu beharra sentitzen du; katoliko estua da, baina sentsualtasuna du aldarri... Lehena da objektuak, gizakiak, gertaerak era horretan ikusten, eta berak badaki.

Horregatik, ulertzekoa da Aitzolen haserrea urteak aurrera zihoazen neurrian herria lozorrotik atera behar zuen poesia hura ez zetorrela ikusi zuenean. Orixerena onargarriagoa bazitzaion ere (Orexara bidali zuen euskaldunon poema nazionala izan behar zuen *Euskaldunak* idaztean), ez Lizardi eta ez Lauaxeta bide pertsonalegian zebiltzan. Apostu handia eginda biak ala biak, ordura arte inork gutxik bezalako lotura topatu nahian idazlea eta obraren artean. Jenialtasunaren bila zarauzta-rra, aberriak agindu erara Mungiakoa. Bere hitzak dira, nahiago duela soroan aritu atxurrean olerki idazten baino, horrekin aberria gehiago goraltzen bazuen.

Baina injustizia handia litzateke Laua-



Iñigo ARANBARRI
Idazlea, Filologian lizentziatua eta institutuko irakaslea



Koldo IZAGIRRE
Idazlea eta gidoigilea

xeta bizitzea egokitu zitzaion garaia kontuan izan gabe epaitzea. Jeltzale itsua da, kristau eta marianoa, “euzkeldun zintzoa”... eta hori guztia ezagun du bere obran. Gaur egungo irakurle batentzat, horretan du zaharmin itxura, horrek sortzen du nolabaiteko antipatia. Baina hala ere, eta honen gainetik, badute bai *Arrats bera*-ko olerkiek, baina batez ere *Bide barridak*-ek, irakurlea ezustean harrapatuko duten modernotasun zantzurik. Eta harrituta gertzen gara gure poesia berriari ateak zabaldu zizkion gizonaren aurrean.

Gaur egun, ezin uler daiteke XX. mendean euskal poesiak ezagutu duen arrakada Lauaxetaren ekarpenik gabe.



Bernardo Atxaga

Bernardo Atxaga (Joseba Irazu Garmendia, Asteasu, 1951) eta bere lana ezagutzea izango da saio honen xedea. Zenbait datu biografikorekin batera, 70ko euskal kultura eta literaturaren testuingurua aztertuko ditugu. Berenbat, Parpina Ustela eta Pott Bandari eta argitaraturiko obrari gainbegiratua emango diegu.

1. Poesia

Egilearen obra poetikoa aurkeztea eta zenbait poema komentatzea da saioaren lehen zati honen xedea.

Saioan zehar, hezkuntzaren DBH eta Batxilergo mailetarako egoki izan daitekeen materialaz baliatuko gara, hala nola CD audizioak eta CD-ROMak.

Horretarako, ondoko egitarau honi atxikiko gaitzaizkio gehienbat.

1.1. Etiopia

- Lehen edizioa (Egileak berak argitaratua, Bilbo, 1978).

Hitzaurrea eta Poetika abangoardista

- Bigarren edizioa (Erein, Donostia, 1983)

1.2. Henry bengoia Inventarium

(Elkar, Donostia, 1988)

(Orain S A, Hernani, 1995)

1.3. Poemas híbridos

(Visor, Madril, 1990, Plaza y Janes 1990)

Eta **Nueva Etiopia** (El Europeo, Madrid 1996)ko poemen berrirakurketa eta eraketa berria.

- Kantu eta testu berriak.

- Poetika berria.



Mari Jose OLAZIREGI

Filologian doktorea eta EHUko irakaslea



Lurdes OTAEGI

Filologian doktorea eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea

1.4. Hautaturiko zenbait poemaren iruzkina

2. Narratiba


Egilearen narratibazko lanei birpasa emango diegu atal honetan eta Bigarren Hezkuntzan testuok lantzeko metodologia nahiz adibide konkretuak eskainiko. Horretarako, literatura eskolak emateko modu gaurkotua, diziplina artekotasuna bilatzen duena proposatuko dugu. Honako puntuok landuko ditugu bereziki:

2.1. Bernardo Atxaga Inventarium: Literatura Fantastikotik eleberri errealistetara. Atxaga abangoardista: haur literatura eta alfabetoak.

2.2. Behi euskaldun baten memoriak-en azterketa eta proposamen didaktikoak bigarren hezkuntzarako. Ikasleentzako/irakasleentzako dossiera.

2.3. Bidaia literarioa Obaban: fantasia ulertzeko modu atxagarria.





Harkaitz Cano

Euskal idazle gazteen artetik etiketa hori kendu eta euskal idazleen aldera pasatu den azkena izan da Harkaitz Cano (Lasarte-Oria, 1975). Kontsagratuen artean aulki bat lortzeko beste norbaiti berea kendu beharko balitzaio, noski, arazoak izango genituzke. Ez lirateke asko izango, baina, konparaketa jasango luketenak, Harkaitzen kantitatea eta kalitatea handiak direlako. Jadanik curriculumean sartu beharra dagoen izena da. Egunkarietako artikuluek, kronikak, errezitaldiek, gidioiek gauza askok osatzen dute donostiarrenen unibertsoa.

Urruzuno literatur sariketan, urterik urte, han agertu ohi ziren Harkaitzen poemak. Institutuko ikasle batenak izateko oso landuak izateaz aparte, literaturzale amorratuaren marka pertsonala zeramaten konposizio luzeak ziren. Irakurritakoak gainezka egiten zion, poesia maite zuen. Batzuetan eredu konkretuak imitatzen zituen: hasi berriaren dudak ziren. Poesiaren lehen oinarria imitazioa dela onartzen du idazleak, atzera begiratzen duenean. Han, atzean, Sarri eta Atxaga daude -*Etiopia*-, orduko musika taldeen hitzak... Finduz gero asko eman zezakeen idazlea zela antzematen zitzaion. Oso goiz, baina hala zen.

Denborak eman zion Harkaitzi, denoi bezala, ahots pertsonala. Lubaki bandaren esperientzia aztertu beharrekoa izango da ezinbesteko testuinguru bat emateko unean. Poesiak azken hamarkadan maiz hartu duen talde-lan itxura, kolektibo behin-behinekoen sorrera eta abar ere aipatu



Edorta MATAUKO
Itzultzailea, euskara eta literatura irakaslea IRALEN

beharko dira. Larregi luzatu barik kokapen egoki bat ematen ahaleginduko gara, funtsean. Horrek ez du berehalako aplikazioziorik aztertu gura genukeen liburu konkretuan -*Norbait dabil sute eskaileran* (Susa, Zarautz, 2001)- baina galtzeko arriskua dago hori argitu ezik.

Kea behelainopean bezala (Susa, 1994) ez dugu aztertuko, lehengo kokapen arrazoiengatik ez bada. Denbora tarte handiegia dago bien artean eta narratiban ibilbide luzea egin ostean dator guri dagokigun bigarren poema liburua.

Tarte luze horretan bere poesia otzandu egin da, lauagoa bihurtu da, narratiboagoa. Eguneroko irudi poetikoei -sukalde bat, euria hirian- leku asko uzten dion idazlea betidanik izan den arren, gero eta leku gehiago hartzen dute objektuek pertsonen aldamenen. Liburu honetan New Yorken egindako egonaldiak sorrarazi zizkion gogoetak poema bihurtzen dira. Badauzka Duchamp edo Warhol gogorazteko moduko ñabardurak, baina objektuak ez dira modu soltean erabiltzen, bere horretan, ez bada zirrara konkretu bat lor- tu nahian. Bizitzak hotza dirudi poema



Igor ESTANKONA
Poeta eta literatur kritikaria

hauetan. Baina badago halako epeltasun urrun bat ere: elur gainera txingor bat bota eta hark egindako zuloaren deskripzioa.

Ez dugu larregi esan, baina poesiaren lurralde subjektiboan mugituko garelako da. Ikasleen iritzia gauza pertsonala da, irakurle bakoitzak bere harreman autonomoa daukalako literaturarekin, generoe- kin, idazle konkretuekin zein garai bakoitzeko sormen lanekin. Oinarri sendoen gainean eraikiko dela bermatzeko apunte txiki batzuk eskaintzen ahaleginduko gara, ahal bada.



Matematikako jolas tailerra

Uztailak 2

Uztailak 3

Uztailak 4

8:00 Dokumentazioaren banaketa

9:00 Sarrera ekitaldia

9:30

9:00

9:00

Lehen Hezkuntzan Matematika irakusteko erabil daitekeen jolas multzo bat aurkeztu, egin eta erabiliko da. Jolasa arautua dagoen eta helburu bat duen zeregina da.


Jolasak zeregin bereziak dira modu estrategiko batez jokatzeko eskatzen dutelako. Bestela esanda, helburu hori ahalik eta azkarren lortzeko jokabide egokiena zein den asmatzean datza "ondo jokatzeko".

* Jesus M. GOÑI. EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea.

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA



Matematikako jolas tailerra

Ikastaro honen xede nagusia Matematika ikasteko jolasek eskeintzen dituzten posibilitate didaktikoak aztertzea da.

Jolasa zeregin mota bat da. Zeregina den neurrian irakaskuntza prozesuaren elementu funtsezkoa da, hots, irakaskuntza bideratzeko erabil daitekeen oinarrizko elementua. Baina, jolasa, zeregin mota bat den neurrian, posibilitate zein mugabat da. Posibilitatea da giza-gaitasun batzuk lantzeko aukera ematen duelako, eta muga da beste batzuk garatzeko antzua delako. Hortaz, oso garrantzitsua da jolasak zeregin moten barruan zein rol jokatu behar duen aztertzea eta argitzea.

Horretarako arakatu beharreko lehen gaia zera da: zer da jolasa zeregin didaktiko bezala? Nire ustez, jolasa zeregin arautua da, non helburua modu batera zein bestera irabaztea den. Definizio honetan jolasaren bi ezaugarri nagusiak aipatzen dira. Batetik, ekintza arautua da, hortaz ez dago nolana aritzerik, ekintza erregulatua dago jolasak berak markatzen dituen arauak direla eta. Bestetik, jolasak beti du txapelketa zentzu bat, hots, irabazteko jolasten da.

Arautua izatetik datorkio, alde batetik, jolasari bere balio didaktikoa, arauak errespetatzen ikastea zaila da eta. Bizitza arruntean arauak gehiago agintzen dutenek jartzen dizkiete haurrei (gurasoek, irakasleek...) eta ez betetzeak ondorio larriak ekartzen ditu. Jolasean, berriz, arauak jolasak berak ezartzen ditu eta modu horretan hierarkiaren pisua arinagoa da. Jolasaren arauak alda daitezke, baina onartu ondoren eta jolasa hasi eta



Jesus Mari GOÑI
EHUko Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

gero ez. Horrez gain, kideak dira arauen errespetua eskatzen dutenak, arauak ez errespetatzea tranpa da eta. Pertsonentzat, eta ez bakarrik haurrentzat, kideek beraiekiko duten iritzia oso garrantzitsua da, eta askotan boterea dutenei baino kasu gehiago egiten zaie. Kideen oniritziak pisu gehiago du hierarkiaren presioak (zigorra) baino. Bestetik, jolasaren arauak ez errespetatzeak ekartzen dituen ondorioak, txarrak izan arren (besteek nitaz duten iritzia kaskartzen da eta) jolasaren munduan geratzen dira, eta horrek beti mugatzen du bere eragina.

Irabazteko jolastetik datorkio, bestetik, jolasari balio didaktiko erantsia. Hasteko, irabazten eta galtzen ikastea, irabaztearen poza eta galtzearen frustazioa kontrolatuz. Irabazten dugunean ez zaie galdu dutenei zapuztu behar eta galtzen denean amorruari irteera ez agresibo bat ematen ikastea ezkorra da. Baina, irabazteko jolasten denean ez da nahikoa nolana jardutea, komeni da edozein ekintza burutu aurretik dauden aukerak kontsideratzea eta *ego-kiena* hartzea. Horrela jokatzeari, hots,

ekin baino lehen bide onena zein den pentsatzeari, estrategikoki aritzea esaten zaio. Ez goaz hemen pentsamendu estrategikoren balio pedagogikoa deskubritzera, ez horixe.

Jolas matematikoa jolas mota bat besterik ez da, jolasaren ibilbidean elementu matematikoak (zenbakiak, neurriak, eragiketak, irudi geometrikoak...) erabiltzen direne jolasa. Hortaz, jolasen balio didaktiko guztia dute zeregin hauek, eta horrez gain, Matematika ikasteko baliagarriak dira.

Matematikako xede nagusia problemak ebaztea denez, jolas matematikoak laguntza handiko zeregina dira. Gorago aipatutako pentsamendu estrategikoa oso beharrezkoa da problemen ebazpidean, horrela jokatzea behin beharrezkoa izaten da eta baino gehiagotan.

Matematikako jolasak sailkatzeko hainbat irizpide erabil daitezke, Matematika-ren zein alderdi lantzen duten begiraturuz edota erabiltzen den material mota aztertuz. Lantzen diren alderdiak Aritmetika, Neurria, Geometria edota Logika izan daitezke, eta materialak manipulatioak, papera eta arkatza edota taula-jolasak.

Mota bakoitzeko jolas bat baino gehiago ikusi ahal izango dugu ikastaroan.

Jolasak, askotan, materiala eskatzen du. Materiala lortzea ez da beti erraza izaten. Horregatik, jolasteaz gain materiala nola sortzen den ere ikastea komenigarria da. Horri ere tarte bat eskainiko diogu ikastaroan.

Adimena berezko duten haurrak

Adimena
berezko duten
haurrak

Uztailak 2

Uztailak 3

Uztailak 4

8:00 Dokumentazioaren banaketa

9:00 Sarrera ekitaldia

9:30

9:00

9:00


- Kontzeptu desberdinen bereizketa.
- Ezaugarri orokorrak: garapenean, adimenean, arlo emozionalean, sormenean eta giza harremanetan.
- Neska eta mutilen arteko desberdintasunak.
- Esku-hartzea familian eta eskolan.

* **Izaskun ETXEBERRIA**. EHU. Bilboko Irakasle Eskolako irakaslea.

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA



Adimena berezko duten haurrak

Adimen gaitasun handira hurbiltzeko, gai honen inguruan hain hedatuta dauden pentsamendu eta aurreiritziak aztertuko ditugu, maila akademikoan eta orokorrean ere bai.

Adimen gaitasun handiarekin lotuta, badira argitu beharreko kontzeptuak, sarritan elkarren artean ez baitira ondo bereizten: talentua, jainua, goiztiarra, miresgarriak edo trebeak, besteak beste. Definizio eta adibideen bidez ondo desberdintzen saiatuko gara ikastaroan.

Adimenaz eta adimen gaitasunaz dauden eredu garrantzitsuak eta gaur egun onartuenak direnak azaldu ondoren, kasu eta adibide konkretuak ikusirik, ikastaroren muinean murgilduko gara.

Gaiaren mamira sartzeko adimen gaitasun handiko haurren ezaugarriak aztertuko ditugu. Ezaugarriak garapenekoak, adimenekoak, nortasunekoak, sormenekoak, ikaskuntza arlokoak dira, eta pertsonarengan, familian, eskolan, lagunen arteko erlazioetan eragina izaten dute.

Haur hauen beharrak asetzeko eta euren egokitzapena errazteko ezinbestekoa da identifikazioa. Horretarako, gurasoentzat edo irakasleentzat erabilgarriak izan daitezkeen baliabide garrantzitsuak ditugu. Bide batez, euren premiak zein diren aztertuko ditugu.

Premia horien artean batzuk familiari dagozkio, eta normala denez, gurasoak desorientatuta egoten dira maiz.

Ondo betetzen al dut nire lana?

Behar duena ematen al diot nire haurtxoari?

Zer egin beste seme-alabekin?

Zer esango diogu irakasleari?



Izaskun ETXEBARRIA

EHUko Bilboko Irakasle Eskolako irakaslea

Haurrak jakin behar al du adimen gaitasun handia duela?

Horrelako galderak eta beste batzuk maiz sortzen dira familietan.

Beste behar batzuk eskola eremuan landu behar dira, eta horretarako, hezkuntza erantzun egokia ematea ezinbestekoa da. Haur bakoitzak, desberdina den heinean, erantzun bakarra behar du. Erantzun horiek globalak izan daitezke eta aniztasunari erantzutea baino urrutiago doaz; beste batzuetan erantzunak zehatzagoak dira. Esku-hartze bakoitzak dituen alde baikor eta ezkorrak aztertuko ditugu haurraren osotasuna ahaztu gabe.

Hezkuntzako erantzunen artean legeak ahalbidetzen dituenak eta beste herrialde-takoak ere ikusiko ditugu. Erantzunen artean ikastetxe bereziak, bizkortzea, taldekortzea, curriculumaren egokitzapena, tutoretzak, aholkulariak, aberastasuna, ikastalde heterogeneoak eta abar ezagutuko ditugu, bakoitzaren alde baikor eta ezkorrak baloratuz eta aurrera eramateko bete beharreko prozedurak aipatuz.

Zeharka eta mimo handiz, neskak eta adimen gaitasun handia gogoratuko dugu, eta baita ere irakaslearentzat onura-

garri diren prestakuntza, jarrera eta ezagutzak nondik norakoak izan daitezkeen ere.


Familia eta haurren arteko elkarrengana ukaezina da. Azken ikerketen arabera badira kontuan hartu beharreko hainbat gomendio, aholku eta esperientzia.

Azkenik, hezkuntza behar bereziak dituzten haurrak direnez, indarrean dauden lege, agindu eta erabaki garrantzitsuenak ezagutuko ditugu.

Ondo betetzen al dut nire lana?
Behar duena ematen al diot nire haurtxoari?
Zer egin beste seme-alabekin?
Zer esango diogu irakasleari?
Haurrak jakin behar al du adimen gaitasun handia duela?

Egoera berezian dauden haurrak

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - Behaketa, garapen emozionala ulertzeko metodoa. - Taldeka eta talde handian: behaketen azterketa.</p> <p>* Marga ALKORTA. Pedagogoa Irungo-Berritzegunean.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 Familia erlazioa burua egituratzen doa eta buru funtzionamendu horren araberakoa izango da ikasteko modua, eta ondorioz, munduan egoteko modua ere bai. - Euskarri grafikoa: filmak.</p> <p>* Lourdes OTERMIN. Psikologoa eta psikoterapeuta.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Eskolan, haurren beharrak ikusi ondoren, familiaren funtzionamendua kontuan hartuta, bideratze lana. - Euskarri grafikoa: filmak.</p> <p>* Lupe APEZETXEA. Psikologoa Irungo Berritzegunean.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Egoera berezian dauden haurrak



Eskolari esker egoera berezian dauden haurrak aintzat hartu eta bideratu

“Aparatu mental osasuntsuaren funtsa alfa funtzioa betetzen duen eusle onarekin identifikatzea da”

- Hanna Segal-

Buruaren funtzionamendua ulertzeko eredu hau barneratu egin behar denez, eredia lantzen jarraitu behar da, eta ezinbestekoak dira era honetako topaguneak, prozesu bat baita.

Eredu honek eskolan hainbeste aztoratzen dituzten egoerak ulertzen laguntzen digu.

Haur bat kezka iturri bihurtzen denean, eskolak guregana jotzen du. Horrela, behaketak egiten eta ondorengo lanarekin ikertzen hasten gara. Horren bidez, funtzionamendu mental horretaz ulertu dugunarekin, bilgunekak sortzen dira, denon artean eztabai-datzeko eta haurra ulertzeko.

Ondorengo urratsa berari dagokion erantzun egokiena ematen saiatzea da.

Funtzionamendu mentala abian jarri behar da eta, horretarako, haurrak amaren beharra du. Bizitzaren hasieran amak eskaintzen dizkio kontentzioa eta bere funtzioak; hala nola, pentsatzeko gaitasuna, ona/txarra bereizteko gaitasuna eta oinaze mentalaren ulermena. Hori guztia da *alfa*



Marga ALKORTA
Pedagogoa Irungo Berritzegunean



Lourdes OTERMIN
Psikologoa eta psikoterapeuta

funtzioa. Horrek jartzen ditu abian haurraren aipatutako gaitasunak.

Familian, alor honetan hutsegite garrantzitsuak izan badira, gero eskolako ikaste-prozesuan eragina dute: etxean eraiki den erlazioatzeko modu berberaz erlazioatzeko da **ikastearekin**.

Hori dela eta, gure zeregina abian jarri ez diren funtzioak abian jartzea da, dauden gabeziak osatzea, alegia.




Lupe APEZETXEA
Psikologoa Irungo Berritzegunean



Heriotza heziketan: pedagogia berria sortzeko erronka

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 Goizez: Doluaren prozesuaren eskema. Dolu normala, dolu patologikoa. Doluaren bilakaera onuragarri baterako elementu etentzaileak eta erraztaileak (edo gomendioak). Bizipenezko ariketa praktikoren bat edo besterako astia ere hartuko dugu. * Maria Antonia PLAXATS. Psikoterapeuta. Kataluniako "Rosa Sensat"eko kidea (<i>Gaztelaniaz</i>).</p> <p>14:00 BAZKARIA</p> <p>16:00 Arratsaldez: tailer praktikoa: Hezitzailea dolu eta galera egoeren aurrean. Krisi egoeretan hezitzaileak izan dezakeen papera bizitzen lagundu ahalko diguna. * Maria Antonia PLAXATS.</p>	<p>9:00 Goizez: Dolua bezain gai bereziari heltzerakoan zein izan beharko lukeen guraso eta hezitzaileen papera aztertuko dugu: hezkuntza ildoak, mitoak eta sinemen faltsuak, krisiari aurre egiteko errekurtsuak, taldelana, adinkako garapen kognitiboa eta galerak onartzeko gaitasuna. Zenbait kasu praktikoa landuko ditugu era parte-hartzaile eta dinamikoan. * Patxi IZAGIRRE. Psikoterapeuta. Ekintza ikastolako psikologoa.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p> <p>16:00 Arratsaldez: tailer praktikoa: Agurrak egoki lantzearen garrantzia. Geratzen diren kulpa sentimenduak garbitzeko eta amaitu gabe geratu diren kontuak bukatzeko egin daitezkeen saiakerak lantzeko ariketa praktikoa. * Patxi IZAGIRRE.</p>	<p>9:00 Goizez: Heriotzari buruzko maleta didaktikoaren aurkezpena. Helduek, gazteek eta haurrek dituzten heriotzari buruzko ideien eta gogoeten inguruan egindako esperientzien azalpena. * Miren AKORDAGOITIA. San Telmo museoko teknikaria.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Bizitzarako hezi: galera, heriotza eta doluaren pedagogiarantz

Bigarren aldiz zuen artean egongo naiz Hik Hasieren Udako Topaketak direla eta. Oraingoan ere oraindik orokorrean, eta hezkuntza arloan ere bai ondorioz, zailtasun handiak dituen gai baten inguruko hausnarketa egitera animatu nahi zaituzte.

Galera esanguratsuen aurreko dolu prozesuen gainean hausnartzen jarraituko dugu. Galera orokor horien artean heriotzak leku berezia hartu ohi du. Ez da gauza berria onartzea gaur egungo mendebaldeko gizartearen oraindik zaila suertatzen zaigula **haurrei eta nerabeei** doluan laguntzea.

Zergatik lantzen da sexualitatea hezkuntzan eta ez galerak eta heriotza? Balioak, jarrerak, sentimenduak, sufrimenduaren inguruko ekintzak, galera, heriotza edo dolua oso gutxi aztertzen dira giza errealitateko beste dimentsioekin alderatuz gero. Pertsonen arteko harremanetan eragiten duten sustrai humanistikoko zenbait ikasketetako curriculumetan alboratu egiten dute. Esate baterako **magisteritzan, pedagogian, psikologian, psikopedagogian...**

Gure lan taldea ikuspegi holistikoa oinarritzen da; mundua ulertzeko ikuspuntu global eta integratzailea da. Sistema biologiko, psikologiko eta sozial guztiak elkarren artean lotuta dauden



M. Antonia PLAXATS
Psikoterapeuta eta "Educar para la vida, educar para la pérdida, la muerte y el duelo en la escuela" mintegiaren koordinatzailea Rosa Sensaten

azpisistemekin osatuta daudela ulertzen du, eta guztiek zatien batuketa baino handiagoa den osotasuna osatzen dute. Ikuspegi hori gure gaira egokituz zera esan nahi du: pertsona batek galera bat sufritzen duenen, bere adina dena delako izanik ere, normalean bere dimentsio guztietan eraginda gelditzen dela.

Galera: zergatik sentitzen dugu hainbeste galera? Gizakia erlazionatu egiten da eta afektibitate maila desberdina duten loturak sortzen ditu, zeinak aldi berean loturaren balorazio positiboa edo negatiboa inplikatzeko duen. Balorazioa aldagai arrazionalen, emozionalen eta soziokulturalen multzo batean oinarritzen da. Horrela, zentzu subjektiboan galera bat dauka-

gunean mina sentitzen dugu. Gogoaren mina da, eta beraz, hunkiberatasuna: tristura, beldurra, kulpa, haserrea, inbidia...

Modu horretan, kontzienteki edo inkontzienteki, pertsona batek galera balortzen duen dolu horretara iristen gara. Doluaren prozesuan galera baten aurrean bat-batean gara daitezkeen prozesu arrazionalak, emozionalak, erlaziozkoak eta izpiritualak aurkitzen dira.

Noski, beharrezkoa da dolua konplikatzea ekiditea, eta horregatik, pertsonalki gure taldean **doluaren eraldaketa osasuntsua** deitzen diogu horretara bideratu behar dugu. Zauri hunkigarria orbaintzeko bitarteko egokiak jartzea esan nahi du horrek.

Era berean, galera esanguratsu bakoitza eraldaketa sortzaile baterako aukera izan daiteke, prozesuan dauden aldagai biopsiko-sozialak integra baldin baditzaizkegu.

Hil ala biziko garrantzia duten beste gauzekin gertatzen den bezala, haur edo nerabe batek galera esanguratsu baten aurrean dituen erreakzioak aldagai ugariaren pilaketaren baitan egongo dira: nerabearen garapen egoera, bere izaera, bere ingurunearen lehenaldia eta orainaldia (famiariakoa, kulturala, azpikulturala, bere erreferentziatzeko taldea...) pertsona bezala garatzen ari den heinean galera, sufrimendua eta heriotzaren inguruan jaso dituen eta jasotzen ari den mezu inplizituak eta esplizituak.

Heriotzaren pedagogia eraiki beharra daukagu

Iaz estreinatu genuen *Heriotza heziketan. Egungo tabua?* ikastaroa eta benetan gustura gelditu nintzen bertaratu zen jendearen erantzunarekin. Horrek aurten beste ikastaro bat koordinatzera animatu nau, eta horretarako, ustez erakargarria den programa prestatu dugu. Gainera, Miren Akordagoitia ere gure artean izango da, eta hezkuntzan heriotza lantzeko maleta didaktiko bat aurkeztuko digu, niri pertsonalki oso interesgarria inuditzen zaidan maleta.

Sarritan entzuten ditugu nahigabeko heriotzen inguruko komentarioak, eta gure txikiek ere entzuten dituzte. Gorrak, itsuak eta ezinduak balira bezala jokaten dugu, ordea, beraien aurrean. Heriotza bizitzaren zati bat da eta heziketak izugarriko garrantzia du heriotza bizitzaren zati bezala integra dadin.

Badakigu ziurtasun osoz hil egingo garela eta guk maite ditugunak ere hilko direla. Gainera, betidanik jakin dugu hori. Orduan, **zergatik ezkututzen dugu heriotza?** Agian horrelako krisi latzen aurrean bitartekoak sortzeko aukera galtzen ari gara.

Dudarik gabe, giza heldutasun batera iristen ari gara eta beste tabu handi bati zapia kentzera hurbiltzen ari gara. Benetan asko kezkatzen nau **hezkuntzan heriotzari** eskaintzen zaion denbora eskasak. Doluaren pedagogia sortu beharra daukagu bizitzako galerei aurre egiteko bitartekoak era ditzagun.



Patxi IZAGIRRE


Psikoterapeuta eta Ekintza ikastolako psikologoa


3 urtetik aurrera haurra joko sinbolikoa erabiltzen hasten da eta horren bitartez heriotzaren itxura ere egiten du. Joko bat gehiago bezala hartzen du, eta noski, oraindik ez daki egoera itzulezina dela. Hau da, hildakoak behin eta berriz berpiztu ditzakete joko sinbolikoan.

Magia erabiltzen dute eta horrekin galerari aurre egiteko errekurtsoak sortzen dituzte. Aberastasun izugarri, helduaro-ko atxikimendu ezak onartzeko atxikimendu seguruaren oinarriak ezartzen ari dira.

Haurtzaroan helduaroan ez bezalako komunikazio kodeak erabiltzen dira ideiak adierazteko, abstrakzio gaitasuna artean garatu gabe egoten baita. Haurren ikasketaren oinarria **behaketa eta imitazioa** dira. Gure gain dago, beraz, haurrek heriotzari buruz eduki dezaketen ideia. Gure beldurrak beraiengan proiektatzen baditugu, **baliabide propioak sortzeko** aukera kentzen diegu.

Badakigu ziurtasun osoz hil egingo garela eta guk maite ditugunak ere hilko direla. Gainera, betidanik jakin dugu hori. Orduan, zergatik ezkututzen dugu heriotza?





Hilarriak biribilketan maleta didaktikoa


Duela urtebete Donostiako San Telmo Museoa **Hilarriak biribilketan** izenburupean hilarrien inguruko proiektu bati ekiteko aukera suertatu zitzaidan. Proiektu honen **xedea** hilarriak modu didaktikoan heziketa zein bestelako esparruetara **hela-raztea** zen. Era honetan, **kultur ondarearen alderdi esanguratsu hau azpimarratzen zen**. Egitasmoan Portugal, Frantzia eta Euskal Herriko zein Espainiako 20 museorekin elkarlanean aritu ginen. Horretarako, euskarri didaktiko bezala, bestelako museoetan darabilten maleta didaktiko bat burutzeko asmoa zegoen. **Maleta didaktikoa** dohainik eta epealdi batez maileguan ematen den euskarria da. Eduki baten inguruan hainbat jarduera burutzeko balio du.

Erronka handia zen matela egitea; izan ere, San Telmo Museoa eskaintzen zidan **abagunea sekulakoa** zen. Hala ere, konpromisoa gustura hartu nuen. Batetik, proiektuak gizartean gaur egun **ekiditen den arlo baten inguruan hausnarketa** egiteko aukera ematen zuelako. Eta bestetik, hilarriak kultur ondarea osatzen duten hainbat elementuren artean, **ondarearen babesaren inguruan aritzeko** eta **kontzientzia pizteko** abiapuntua izan zitekeela uste nuelako.

Horrek guztiak **museoen funtzio didaktikoaren garrantzia** agerian jartzeko aukera ematen zuen. Aldi berean, hain beharrezkoa den **heziketa eta kulturaren eremuen arteko elkarlana** sustatzeko parada ere bazen.

Erantzukizun handiko proiektua zen arren, sor zitzakeen emaitzei begira lanari ekin nion.

Proiektuaren garapenean zehar hainbat jenderekin kontaktuan jarri ginen. Horien artean, Patxi Izagirre eta **hik hasik** antolatu berri zuen *Heriotza heziketan. Egungo tabua?* ikastaroaren antolatzaileekin. Harre-



Miren AKORDAGOITIA
San Telmo Museoa - Donostia Kultura
Hilarriak biribilketan proiektuaren
koordinatzailea

manetan jarri bezain laster, aipatutako euskarri didaktikoaren garrantziaz ohartu ginen. Horren bitartez, heriotzaren gaia heziketaren alorrera era natural eta ikertzaille batean gerturatu nahi genuen. Maleta didaktikorako proposatzen genituen jarduerak metodologia aktiboa sustatzen zuten, ikasleek zuzeneko esperientziaren bidez ikas zezaten. Beraz, hilarriak landanaren bidez azter zitzaketen ondareekin zuzeneko harremana ahalbidetuz.

Hilarrien bitartez, hezkuntzan eta familia artean ezohikoa den heriotzaren gaiari buruz hitz egiteko aukera ematen zigula ohartu ginen. Hala gertatu zen maletako materiala helduekin eta zenbait eskoletako ikasleekin frogatu genuenean. Irakasleei edota taldeen arduradunei harrigarria iruditu zitzaizen ikasleak heriotzari buruz zein naturaltasunez hitz egiten aritzen ziren. Bakoitzak gaiari buruz zituen usteak, beldurrak, sinesmenak ... agerian uzten zituen.

Aurtengo ikastaroan parte hartu eta euskarri didaktiko hau zuei ezagutzera emateko aukera eskaintzeagatik **hik hasi** eta Patxi Izagirrerri eskerrak eman nahi nizkie-

ke San Telmo Museoa izenean. Era berean, San Telmo Museoa - Donostiako Udala Kultur Patronatuari eskertu nahi nioke proiektu honetan murgiltzeko abagunea eskaini zidalako. Aipatzekoa da baita ere, proiektu honetan parte hartu duten 20 museoen laguntza. Eta azkenik, eskertu nahi nituzke Donostiako Santo Tomas Lizeoa (Aitziber Aiesta irakaslea eta bere ikasle izandako guztiak), Eskoriatzako Museo Eskola (Isabel Guridi arduraduna) eta Eskoriatzako Luis Ezeiza, eskola zein herriko helduen hainbat talderi maletako materialak frogatzeko antolatutako saioan esku hartzeagatik. Guztien konpromiso eta ahaleginari esker, egun euskarri didaktiko hau erabilgarria baita. Mila esker guztiei!

Ikastaroan nire partaidetzaren nondik norakoan berri emateari ekingo diot landuko ditugun edukiak aipatuz.

Saioak bi zati izango ditu: teorikoa eta praktikoa. Teorikoari dagokionez, hasieran heziketa eremuak heriotzaren gaiari aurre egiteko izan dituen oztopoei buruzko aipamen laburra egingo dugu, hausnarketa moduan. Ondoren, maleta didaktikoaren aurkezpenari ekingo diogu, zein esparrutan egin den ikus dezazuen. Hau da, europar egitasmo baten diru laguntzarekin eginiko proiektu honetan zenbat kultur erakundek parte hartu duten, zein izan diren helburuak... Jarraian maleta ezagutuko dugu: bere egitura, metodologia, materialak... Azkenik, saio praktikoa zehar maletan azaltzen diren bi jardura burutuko ditugu eta bukatzeko, galderei tartea egingo diegu.

Saio teorikoa bideo proiektioz zein gar-denki hornitua izango da.

Familia berriekin

Ian egitera eta ulertzera
behartuta gaude

Uztailak 2

Uztailak 3

Uztailak 4

8:00 Dokumentazioaren banaketa

9:00 Sarrera ekitaldia

9:30

9:00

9:00


- Familia patriarkaetik, familia demokratikora
- Nuklearrak
- Dibortziatuak
- Berreraikiak
- Kanpotik etorritakoak bertakoekin osatzen dituztenak
- Haur adoptatuak dituztenak
- Homosexualak
- Besteak

* **Marije URANGA**. Psikomotrizista. Familia terapeuta. Euskadiko eta Nafarroako familia terapia eskolako kolaboratzaile irakaslea.

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA

14:00 BAZKARIA



Familia berriekin lan egitera eta ulertzera behartuta gaude

Gurasoak ez badira inplikatzan,
eskolak ezin du ezer egin
Ez dago ezer egiterik, gurasoak
banandu egin dira...

Aita ez dugu ezagutzen, ez da
inoiz eskolara etorri...

Familiarekin kontaktuan dagoen profesionalak behin eta berriz entzun eta errepikatzen ditu esaldi horiek; litekeena da batzuetan inpotentzia sorraraztea, irtenbiderik ez dagoela pentsaraztea pentsamendua blokeatuz eta horrekin, aldaketak egiteko aukerak itxiz.

Gai honi buruzko hiru egunetako ikastaroan ideiak eta esperientziak trukatu ditugu familiaren soziologoek eta orientatzaileek egindako azken lanetan oinarriturik. Familia eta eskola barrutik ezagutzen lagunduko digute.

Familia aldatzen ari da; hori ez du inork zalantzan jartzen. Gizartea aldatzen ari da; horretan ere ez dago zalantzarik; baina familiaren aldaketa gizartearen aldaketaren ondorio da. Ahaztu ezin duguna zera da: gutako bakoitza familia dela eta gizartea dela. Beraz, aldaketa horien azterketa guztioi dagokigu.

Gaur egungo gizarte modernoko familia ereduak anitzak dira eta familia patriarkalaren erdu klasikoak indarra galdu du. Hala ere, bere indarra leku askotan antzematen da oraindik, non indartsua egin den eta errotuta jarraitzen duen.

Aipatu beharrekoa da kasu askotan aitasuna (aitak eta amak) gero eta erantzuleagoa dela. Gaur egun erantzukizun handiagoz izaten dira seme-alabak: zenbat, noiz, nola... eta duela urte batzuk ez bezala zaintzen dira. Baina... gero eta seme-alaba gutxiago daude.



Marije URANGA
Psikomotrizista eta familia terapeuta

Beste behin ere eskola eztabaida gune da. Eskolak familiarekin lan egiteko eta kolaboratzeko beharra dauka; eta hori dela eta, beharrezkoa da prestakuntza zehatza edukitzea. Eskolak horretarako ere prestatuta egon behar du; eredu tradizionalaren eta familia tradizionalaren krisia ulertzeko eta alderdi positiboak ere badituela ikusteko. Heziketa testuinguruan esku-hartu aurretik, eredu sistemiko batetik ulertu behar da, irakurketa anitzeko eredutik. Logikoa da eskola estresatzea familia ereduaren aniztasunaren aurrean. Horren aurrean, sistema itxi bezala funtzionatzeko arrisku du. Hori dela eta, ezin da ahaztu heziketak interakzioan eta trukean oinarritu behar duela.


Ikastaro honetan familia bere aniztasun osoan landuko dugu aboratzeko sistemiko eta zirkularraren bitartez.

**Eskolak familia-
rekin lan egiteko
eta kolaboratze-
ko beharra dau-
ka; eta hori dela
eta, beharrezkoa
da prestakuntza
zehatza eduki-
tzea. Eskolak
horretarako ere
prestatuta egon
behar du.**



Gogo erabilketa

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - Gogo erabilketaren aurkezpena. Gogoratzea nola egiten da? Ariketak eta teoria.</p> <p>* Mikel ERRAMOUSPE. Baigorriko Biletexea kolegioan irakasle. Pariseko "Institut International de Gestion Mentale"ko Gestion Mentale Sailean diplomatua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Ohartzea eta memorizatzea nola garatu?</p> <p>* Mikel ERRAMOUSPE. Baigorriko Biletexea kolegioan irakasle. Pariseko "Institut International de Gestion Mentale"ko Gestion Mentale Sailean diplomatua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Ulertzea, gogoetatzea eta irudikatzea.</p> <p>* Mikel ERRAMOUSPE. Baigorriko Biletexea kolegioan irakasle. Pariseko "Institut International de Gestion Mentale"ko Gestion Mentale Sailean diplomatua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Gogo erabilketa

Gogo erabilketa: ikasteko gogoaren pizteko

Irakasle guziek badakite zoin neke den gela batean ikasle guziek denbora berean gauza bera ikastea. Batzuek aise ulertzen dute, beste batzuek baietz ulertu dutela esan arren, zer ulertzen dute? Azken batzuek ez dutela deus ulertzen erakusten dute. A zer komedia! Alta, badakigu gure ikasleak ez direla tontoak. Gai batean gaizki ibilirik ere, ez dira azkenak eskulatan adibidez, edo kirolean. Haur bakoitzak zerbait lortzen du. Zerbait badaki egiten. Baina gure eskoletan ez direlako ondo ibiltzen, edo porrotean daudelako, hor daude irakasleak hauekin zer egin jakin ezinik.

Ni ere hontan nengoen duela zenbait urtera arte, **gogo erabilketa** pedagogia ezagutu arte. Hortarik goiti ez ditut ikasleak begi berekin ikusten eta pedagogia horrek ene irakasteko gogo berpiztu dela aitortzen dut. Porrota ez da fatalismo bat, ez da ezinbertzekoa. Mirakuilurik ez bada egiten ere, konturatzen gara ikasle bakoitzak bere gogoaren berri jakinez berriz ikasteko gogo eta plazera biltzen ahal duela. Horrek erran nahi du gu bakoitzaren gogo nola erabil dela giltza.

Gogo erabilketaren sortzaile Antoine de La Garanderie frantses filosofoa

Antonie de La Garanderiek ongi daki zertan ari den. Ikasteko zailtasunak berak bizi izan baititu haurra zenean. Kolegioko eta lizeoko urte anitz errepikatu zituen norbait entzumen arazo bat zuela konturatu arte. Orduan, bere irakasleek bere gortasuna kontuan harturik, idatzizko dokumentuak eman zizkieten, eta Biolo-



Mikel ERRAMOUSPE
Baigorriko Biletxea kolegioko irakaslea
Pariseko "Institut International de
Gestion Mentale"an dipomatua

giako eta Filosofiako goi mailako ikasketak egin zituen. Bere haur denborako zailtasunak gogoan, ikerketa sakonak egin zituen jakiteko zergatik batzuek ondo ikasten duten eta beste batzuek ez. Batzuek jitea dutelako eta besteek ez? Batzuek alferrak direlako eta besteak langileak? Alferrikako arrazoiak horiek denak!

Antonie de La Ganderieri iduritu zaio badela beste arrazoirik: batzuek beren gogo behar bezala erabiltzen dutela eta beste batzuek gaizki. Erabiltze hori deskriba eta irakats daitekeela iruditu zitzaion eta ikastearen oinarriko lege batzuk azaldu ditu. Horiek dira **gestion mentale** edo **gogo erabilketaren** izenburuarekin aipagai direnak eta irakasleen prestakuntzarako azaltzen direnak.

Gogo erabilketaren lehen legea mentalizatzea edo gogo-ra-tzea

Gogo erabilketak pedagogiari hirualdi ematen dizkio oso bereziak: mezuaren (ikasgaiaren) hartzea, gogoratzea eta azkenik, berriz mezua ematea.

Hartzea edo pertzepzioa gorputzeko

bost zentzuen bitartez egiten da: begiek ikusiz, belarriek entzunez, ahoak dastatuz, sudurrak usainduz, gorputzak ukituz, haztatuz...

Gogoratzea, aldiz, berak dioten bezala, gorputzeko bost zentzuek gogo-rat ekartzen dute pixkanaka eta gogoan biziartzen dute. Lan hori kontzientzia osoan egiten da gai mental bat bilakatu arte. Gogoratzea, pertzepzioaz aparte egiten da. Adibidez, nire begien bistan dudan etxea gogoan ematen dudalarik, begiak itxita ere hor dago bizirik nire gogoan. Erran daiteke norberak bere-gana-tzen duela.

Pedagogia horren berezitasuna hor da: bakoitzaren gogo lanean harraraztea eta horren garatzea. Hala nola, arretaren garatzeko eta baita ere memorizatzea nola egin ikasteko. Horrekin batera lantzen dira gogoetatzea eta ulertzea. Quebecen asko garatu den gogo erabilketa hori deitzen dut **orthopedagogia**, erran nahi baitu zuzen ikastea.

Teoria eta praktika eskuz esku


Ikastaldi denboran teoria eginen da, baina denbora gehiena pasatuko dugu ariketak egiten irakasle bakoitza kontura dadin berak nola erabiltzen duen bere gogo zerbaiten ikasteko edo buru lan bat egiteko.

Ikastaldi honetan irakasleek beraiek asmatuko dituzten beren ikasleekin eraman ahal dituzten ikasgai praktikoko batzuk.

Beraz, pedagogian interesa duenak aurkituko du gogo erabilketan bere irakaskuntzaren berritzeko bai edukia eta bai gogo.

Adimena garatzeko BITak

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - Ikastaroaren aurkezpena. - Haur garapenerako ikus-entzumen estimulazioaren garrantzia. - Adimen entziklopedikoko BITak: ikus-entzumen estimulaziorako programa bikaina. - BIT: zer da eta zer baldintza bete behar ditu. - BITen oinarriak eta helburuak. * Victor ESTALAYO. Filosofia eta Letretan lizentziatua. Vegakids Haur Garapenaren Institutuko zuzendaria. Filadelfiako Giza Potentzialitatearen Lorpenerako Institutuetako Doman-en jarraitzailea. BITen inguruko liburuen egilea. (<i>Gaztelaniaz</i>).</p> <p>- Zer aldatu behar da ikastetxe batean metodologia hori aurrera eramateko. Ondarroako Txomin Agirre ikastolako kasu konkretua.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Irakurketa BITak: - Haurren ikusmen garapenerako programa sistematikoa. - Irakurtzeko Doman metodologia. - Ikas prozesua hobetzeko baliabide berriak. - Matematikako BITak: - Estimulazioa zirkulu multzoaren bidez. - Eragiketa matematikoen aurkikuntza. - Ikurrak eta eragiketa aritmetikoak * Maria Rosario VEGA. Madrilgo Jovellanos de Fuenlabrada institutuko irakaslea. Vegakids Haur Garapenaren Institutuaren sortzailea. Filadelfiako Giza Potentzialitatearen Lorpenerako Institutuetako Doman-en jarraitzailea. BITen inguruko liburuen egilea. (<i>Gaztelaniaz</i>).</p> <p>- Adimeneko BITen irakaskuntza: - Nola egin saio bat.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Helburu bakarra: haurra erakartzea. - BITen jolasen emaitzak. - Ebaluazioa.</p> <p>- MAHAI INGURUA - Nolakoa izan da gure esperientzia. * BITekin lanean dabiltzan ikastetxe batzuek hartuko dute parte.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Adimena garatzeko BITak



A- Ikus-entzunezko estimulazioaren garrantzia haurren garapenean

1991an Gasteizen egin zen Haur Eskolen I. Nazioarteko Kongresua estimulazioan aditu den **Glenn Doman**-en hitzaldiarekin hasi zen.

Glenn Doman-ek ziurtasunez esaten du haur guztiak oso azkarrak izan daitezkeela. Baina adimenaren garapena kantitatearen, kalitatearen eta jasotzen diren estimuluen arabera dago.

Ikasketetarako oinarrikoak diren garuneko bi aldeak ikusmena eta entzumena dira. Irakurtzen eta ikusten dena modu erraz eta gozagarrian ulertzen da bi alderdi horien bitartez. Beraien garapen osoa ezinezkoa da hainbat sekretu ezagutzen ez badira.

Ikusmenezko estimulazio programa on bat:

- lehenbailehen hasten da
- estimulu ugari ematen ditu
- sistematikoa, erregularra eta egunerokoa da
- egunean zehar hainbat aldiz errepikatzen ditu estimulu berak
- egun jarraietan
- baina ez behar dena baino gehiagotan
- eta estimuluak oso motzak dira

B- Adimenaren bit-en metodoa

Adimenaren BITak estimulu ezin hobeak dira eta oso txikitatik hasi eta edozein hezkuntza mailara arte ikus-entzunezko programa zoragarria eraman daiteke aurrera.

Bit-ak giza kulturako, zientzietako eta arteetako edozein alderdi adierazten dituzten irudiak dira eta zuhurrak, intentsiboak, kalitatezkoak, egonkorak, askotarikoak eta berriak izan behar dute.



Victor ESTALAYO

Vegakids Haur Garapenaren Institutuko zuzendaria

Oinarriak

Adin txikiko haurrentzat programa entziklopediko eta ugaria proposatzen da adin horretako haurren bi ezaugarrietan oinarrituz: curiositatea eta garunean datu laburrak pilatzeko duten ahalmen izugarria.

Teknika

Saio bateko oinarriko materiala 5-10 BITez osatutako multzoa da, eta saio laburretan distira bezala erakusten dira. Kategoria edo multzoa aipatzen da eta irudiak edo laminak banan-banan erakusten dira bakoitzaren izena esanez.

Horrelako programa simple batekin hasi eta gero intentsiboagoekin jarrai daiteke, materialaren eta hezitzailearen gogoaren arabera.

Programa

1. eguna: 5 BITeko multzo bat erakusten da 5 segundoko 3 saiotan.
2. eguna: beste 5 BITeko 2. multzoa gehitzen da. Guztira 6 saio.
3. eguna: 3. multzoa eranstean da. Guztira 15 BIT 9 saiotarako.
4. eguna: egun honetan 4 multzotako 20 BIT erakusten dira. 12 saiotan.

5. eguna: multzo bat gehitzen da. Guztira 5 segundoko 15 saio eta 75 segundo bakarrik.

6. eguna: BIT multzo zaharrena kentzen da eta berri batekin edo multzo bereko beste 5 BITekin ordezkatzen da. Horatik aurrera egunero gauza bera egingo da.

Gelan jarraipen errazagoa egiteko beste modu bat da multzo berriak astelehenetan sartzea eta hurrengo astean berritzea.

Helburuak

- 1- Haurren curiositatea aprobetxatu eta elikatu
- 2- Haurren gaitasun handiena aprobetxatu
- 3- Bere memoria garatu
- 4- Bere garuna garatu
- 5- Bere adimena garatu
- 6- Zaletasunak sortu

Adimen programak

Adimen programak BITzaharrak erabiltzeko modu berri bat dira, beraiei buruzko informazio berri bat emanez. Hitz edo esaldi labur bat baino ez da esaten: "Txakurrak zaunka egiten du", "Pikondoak pikuak ematen ditu", "Elkano Getarian jaio zen"...

Lehenengo adimen programak erakargarria, kuriosoa eta atsegina izan behar du. Adibidez "Bach-ek 23 seme-alaba izan zituen" esatea egokia da, baina ez litzateke egokia izango Bach fugaren maisu izan zela esanez hastera.

Teknika

Multzo pare bat emanez has daiteke, eta laupabostera arte igo. Multzo bakoitzak gehienez bost programa ditu, BIT bakoitzeko bat. Bita erakusten den momentuan erakusten du hori ere, egunean hiru aldiz eta bost egunetan zehar.

Adimena garatzeko BITak

A- Irakurketako Bit-ak

Haurrak jaioberritan funtzionalki itsua da. Ez ditu formak bereizten, apenas bereizten ditu argitasuna eta iluntasuna. Horregatik, honako informazio programa hau komeni zaio:

- Hastapeneko programa: helburua da argiaren isla perfektionatzea. Logela ilun batean argi bizi bat pizten da segundo batez, gero bost segundotan itzali eta iluntasuna uzten da. Horrela jarraitzen da minutu batez eta egunean 15 aldiz egiten da.

- 2. programa: helburua da inguneak bereiztea. Gela ilun batean sei laukitxodun dama joko taula bertikal handi bat (1,80 x 1,80 cm) argizatzen da segundo batez eta bost segundoko tartearekin minutu batez. Egunean 15 aldiz egiten da.

- 3. programa: helburua da detaileak bereiztea ingeraden barruan. Haurrari ongi argiztatutako dama joko taularen gainean hamar irudi geometriko erakusten zaizkio, bakoitza kolore batekoa. Neurria 14 x 14 cm eta 4 x 4 cm-koa dute. Bakoitza hiru segundoz erakusten da.

- 4. programa: helburua da hirugarren dimentsioa (estereopsis) eta objektuen distantzia eta posizioa perzibitzeko ikusmeneko konbergentzia garatzea. Gurtzatutako ereduaren gainean lau hankatan ibilbide luzeak egitean datza programa.

- 5. programa: helburua da irudiak eta marrazkiak ezagutzea, eta azkenik, objektu, leku eta pertsona ezagunen argazkiak. Programaren muina da haurrari irudi (Bit) eta argazki asko erakustea.

- 6. programa: helburua da objektuak eta pertsonak adierazten dituzten sinboloak ezagutzea: MacDonald's-en M, Corte Inglesen irukitxoak, lo egiten duenaren zzz... eta alfabetoko letrak.



Mª Rosario VEGA

Vegakids Haur Garapenaren Institutuaren
sortzailea

- 7. programa: helburua da mezu idatziak ulertzeko gaitasun neurologikoa lortzea. Askoz ere lehenago has daiteke irakurketa programarekin.

Doman-en irakurketa metodoa

Gakoak hiru dira: haurraren adin baxua, letra handia, argia eta lodia, eta azkartasuna, ugaritasuna eta gogo bizia.

Familiako hiztegia: familia, gorputza, etxea, arropa, janariak, ipuinak, jolasak, marrazki bizidunak... Hitz luzeak eta motzak erabil daitezke.

1. urratsa: inprentako letra handiz, lodiz eta gorritz idatzitako hitz solteak: ize, etxe, aditzak, adjektiboak eta adberbioak.

1. eguna: 5 hitzeko multzo bat egunean 3 aldiz 5 segundoko saiotan.

2. eguna: 5 hitzeko beste multzo bat gehitzen da. Guztira 10 hitz eta 6 saio.

3. eguna: beste 3. multzo bat gehitzen da. Guztira 15 hitz eta 9 saio.

4. eguna: 4 multzotako 20 hitz erabiltzen dira 5 segundoko 12 saiotan.

5. eguna: 5. multzoko 5 hitz gehitzen dira. Guztira 5 segundoko 25 eta 15 saio.

6. eguna: egun honetatik aurrera egunero multzo zaharreneko hitzak multzo bereko edo multzo berri bateko hitzekin ordezkatzeko dira.

2. urratsa: hitz solte berriak eta hitz bikote berriak: izena eta adjektiboak (baloi gorria); izena eta aditza (Aitor abesten); edo aditza eta adberbioa (etorri hona).

3. urratsa: hitz solte berriak eta 3, 4, 5 eta 6 hitzeko esaldiak

4. urratsa: hitz ezagunekin osatutako kontakizunak, liburua osatzen duten sei laminako esaldi bakar bat idatziz.

5. urratsa: irakurketa independentea.

B- Matematikako Bit-ak

Matematikak errazak dira beren hizkuntza ulertzeko gaitasun neurologikoa garatuz gero. Horretarako gakoak hauek dira: adin baxua, datu argiak eta ugariak.

Oinarrizko materiala: 100 lamina txuri eta gogorretan 1etik 100era zirkulu gorri. Saioak: 10 segundoko 3 saio egunero.

- 1. hiruhilekoko programa: lehen 5 egunetan 1-10eko multzoak erakutsi ozen, oso azkar eta gogotsu. 6. egunean 1 eta 2a kendu eta 11 eta 12 jarri. 7. egunetik aurrera, bi txikienak beste birekin ordezkatu.


- 2. hiruhilekoko programa: eragiketa aritmetiko bakoitzarekin bi aste pasatzen dira, egunero 10 adibidez emanez. Adibidez: "hiru gehi hiru berdin sei" esan eta 6ko lamina soilik erakutsi. Eragiketa berri bat sartzen denean aurrekoaren adibideak emanez jarraitzen da.

- 3. hiruhilekoko programa: bi astetan 1etik 100erako zenbakiak erakusten dira. Ondoren, zenbakiekin idatzitako eragiketa aritmetikoen hamar adibide ematen dira egunero.

Afektibitatea eta sexu hezkuntza gela barruan

Koordinatzailea: Amaia Vazquez

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 Haur Hezkuntza</p> <p>Gelan sortzen diren adierazpen sexualak izango ditugu oinarri. Horregatik, agian, medikutan jolastuko gara txikiak ginenean bezala, edota maitemindu egingo gara gure txikitako lehenengo erakarpenak gogora ekarriz.</p> <p>* Xabier ITURBE. Irakaslea eta sexologoa * Amaia VAZQUEZ. Psikologoa eta sexologoa</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 Lehen Hezkuntza</p> <p>Tailer honetan adin honetan gure ikasleek agertzen dituzten jarreraren eta bizipenen aurrean kokatzen saiatuko gara, eta beharbada, topo egingo dugu hazten ari den gorputz horrekin eta beronek sortzen dizkigun sententzio eta sentimenduekin, edota neska eta mutilen arteko harreman horiekin, gure garaian barneratutako balioetan eta gure ikasleek dituzten balioetan sakonduz.</p> <p>* Agurtzane ORMAZA. Psikologoa eta sexologoa * Iñaki KARRERA. Pedagogoa eta sexologoa</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza</p> <p>DBHko tailerrean berriro ligatzen ikasiko dugu, lehenengo esperientzia sexualen beldurak, ezjakiteak, eta abarrekin jolastuko dugu eta gure ikasleek planteatzen dizkiguten galderen aurrean trebatuko gara.</p> <p>* Mertzxe MURUA. Psikologoa eta sexologoa. * Garbiñe MERINO. Psikologoa eta sexologoa.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Afektibitatea eta sexu hezkuntza Haur Hezkuntzan

Denok ezagutzen ditugu zenbait psikologo, antropologo, sexologo... eta beraiei esker jakin dugu haur baten hazkuntza psikologikoan sexualitateak duen garrantzia. Halaber, oso ondo azaldu digute adin bakoitzean zer-nolako adierazpen afektibo-sexualak ematen diren prozesu honetan eta haien zentzua zein den. Hala ere guztiz ere, urte asko behar izan ditugu haurtzaroko behar afektibo-sexualak onartuak izan daitezela. Urte luze horietan gauza asko entzun ditugu, baina bat oso komuna izan da bai etxean eta bai eskolan; hots, helduek ez zituztela ikusten horrelako adierazpenak eta ikusten bazituzten ere ez ziela garrantzirik ematen eta pasatzen uzten zituztela.

Gaur egun Haur Hezkuntzako geletan beste errealtate batekin egiten dugu topo. Gehienetan, ez beti, irakasleak behatzen ditu haurren arteko joko eta adierazpen sexualak, baina ez daki zer egin. Utzi egin behar al diet jolasten? Eta niri jolastea eskatzen didatenean zer egin behar dut? Eta gurasoek jakiten badute? Lan honetan jarduten dugunok urte hauetan jasotako eskarmentuarekin konturatu gara zailtasun handienak irakaslearen emozioetan aurkitzen direla, hau da, guk jasotako hezkuntza sexuarekin: zeren inguruan osatu dugun gure desioa, zer baliotan bizi dugun gure sexualitatea... Errealtate



Xabier ITURBE
Irakaslea eta sexologoa

horrekin jotzen dugu gelara eta gure bizipen pertsonalaren arabera epaitzen dugu gure ikasleen sexualitatea.

Aipatu beharra dago, bestetik, eta arestian esandakoa sendotzeko, egun nahikoa baliabide pedagogiko eta material ditugula gela barruan sexualitatea lantzeko. Beraz, lehen zegoen hutsunea bete dago. Horregatik, taile hau planteatzerakoan gure helburua beste bat izan da. Guk proposatzen dizueguna gure haurren larruan sartzea da, geletan ikusten ditugun joko sexualetan sartzea eta ikuspegi horretatik



Amaia Vazquez
Psikologoa eta sexologoa

sentitzea gure ahalmena edo ezintasuna. Baina, batez ere, gure bizipenak desdramatizatzea nahi dugu, eta ikustea pentsatzen duguna baino errazago dela haurrekin erregistro emozionalean sartzea.

Beraz, tailer honetan Haur Hezkuntzan dauden haurren prozesu emozional, afektibo eta sozialetatik zehar ibilbide bat egitea proposatzen dizuegu: gorputzaren ezaugarria, genitalitatearen ezarpena, identitate sexuala, marturbazioa, maitemintzea eta abar.



Afektibitatea eta sexu hezkuntza Lehen Hezkuntzan

Jakina denez, hezkuntza arloa berritu egin da azkenaldian eta, horri lotuta, ikastetxeetako egitaruetan ere aldaketa eta egokitzapen ugari izan dira. Hori kontuan hartuta, sexualitateari dagokien jardura ere aldatu egin da eta irakasleei gero eta zailagoa iruditzen zaie alor garrantzitsu hau lantzea.

Hemen azaldutako proposamenaren bidez, gure asmoa da sexualitatea jorratu orduko irakasleei hainbat bide adieraztea eta tresna batzuk ematea. Ikusiko duzue, proposamen honetan jarraibide orokorrak baino ez dira azalduko. Abiapuntu horretatik hasita, ondoren irakasle eta ikastetxe bakoitzak aukeratuko du zein diren egokienak eta nola jorratu gura duten gai hau, ikastetxeak bere filosofia, diseinua, beharrianak eta ezaugarriak oinarritzat hartuta.

Sexualitateaz pentsatzen dugunean kontuan hartu behar dugu sexualitatea izakiaren atal bat baino gehiago dela, izakiaren osotasuna hartzen baitu. Izaki sexudunak gara ikuspuntu guztietatik: psikologikoki, gorputzaren aldetik, gizartearekiko eta abar. Gure gorputzaren bitartez komunikatzen gara besteekin; gure sentimenduak, pentsamenduak... gure izaera azalduz.

Norberak bere sexualitatea berezitasunez bizitzen du, era berezi hori norberaren berezitasunean oinarritzen delarik. Ez dago sexualitatea era berdinean bizitzen duenik, ustezko bizipen bakarraren aurre-



Agurtzane ORMAZA
Psikologoa eta sexologoa

an mila formatako bizipenak zabalitzen baitira. Sexualitatea, beraz, gure bizimoduari, jarrerai, ohiturei, pentsamoldeari eta abar loturik dago.

Arrazoiketa horien ildotik, proposatzen dugun ikastaroak ikasleen/irakasleen jarrerak, jakin-minak, informazioa eta zalantzak biltzen ditu. Ikastaroaren bitartez landu nahi ditugun helburuak hauek dira: irakasle bakoitzak bere sexualitateari buruz hausnarketa zenbait egitea, bere ikasleen lekuan jartzea, bere zalantzak argitzea, giza izate sexualari buruzko oinarritzko ezagupenak lortzea, sexualitatearen jarrera baikorrak lantzea, haurren identitate sexuala garatzea, gai sexualari buruko elkarrizketa eta komunikazioa bideratzea eta abar.

Lehen Hezkuntzan helburu zehatz batzuk hartu behar ditugu kontuan, 6 urtetik 11 urtera arteko haurrek dauzkaten ezaugarriekin lotuta daudenak.

Helburu nagusia hau da: gizakia erabat eta bere osotasunean garatu nahi dugu



Iñaki KARRERA
Pedagogoa eta sexologoa

alor hauetan; eremu intelektualean, motorean, harremanetan, gizartean duen portaretan eta oreka pertsonalean zein afektiboan.

Adin horietan sexualitateari dagokionez, hau hartu behar dugu aintzat:

- Familia, irakasleak, lagunak, mass media eta abar direla medio haurrak bere sexu identitatearen kontzientzia hartzen du, eta hori bizitza osoan geratuko den zerbait da.


- Haurra sexuen artean nolako desberdintasunak dauden ikasten hasiko da eta horiei lotuta zer rol dauden.

- Gero eta ageriago geratzen da haurrek sexuarekin lotutako gaien inguruan duten interesa.

- Haurrak gero eta gehiago parte hartuko du joko sexualetan.

- Haurra nagusien moral sexuala barneratzen hasia dago.

- Kasu batzuetan masturbazioaren plazera mantentzen edo aurkitzen dute.



Afektibitatea eta sexu hezkuntza Bigarren Hezkuntzan



Tailer hau 12 eta 16 urte bitarteko gazteekin lan egiten duten irakasleei zuzendua dago.

Sexu hezkuntzak eskola sisteman nola garapena izan duen begiratzeko badugu, berehala konturatuko gara azken urteotan gero eta material eta baliabide gehiago lortu ditugula arlo hau irakaskuntzan lantzeko edo praktikan jartzeko. Irakasleak dagoeneko ez du zailtasunik **zer** (helburuak eta edukiak) eta **nola** (metodologia eta baliabideak) egin bilatzeko, ia ikastetxe gehienetan ondo antolatutako sexu hezkuntzako programak baitaude.

Hala ere, nola jokatu ikasleen algararen aurrean? Nola erantzun eduki pertsonalak dituzten galderari? Zer egin hainbat alderdi jorrazteko garaian sentitzen dugun lotsarekin? Hori da zailena irakaslearentzat. Ez dugu ahaztu behar gazteekin lan egiten dugun askok nolako sexu hezkuntza jaso genuen: plazera arriskuari, bekatuari, klandestinitateari... lotuta zegoen. Horregatik, tailer honen helburu nagusia da gizaki sexualaren aurrean ditugun portaeren inguruan hausnartzea eta lantzea da, ikasleen aurrean erosoago senti gaitzen sexualitateari heltzean.

Tailer honen helburuak hauek izango lirarteke:

- Nerabegaroko sexualitatearen bizipena eta adierazpena ezagutzeko.
- Gelan sexualitatea lantzerakoan gazteen lekuan jartzea beraien bizipenak ezagutzeko.
- Sexu hezkuntza lantzerakoan gure



Mertxe MURUA
Psikologoa eta sexologoa

jarrera zein den hausnartzea eta jarrera hori gure bizipenetatik eta iritzi pertsonaletatik desberdintzen ikastea.

Helburu horiek lantzeko hausnarketarako espazio ludiko bat sortu nahi dugu. Bertan gelan nerabeekin lantzen ditugun dinamikak bizi ahal izateko. Esperientzia horren bidez helduok hobeto uler dezakegu nerabeek zer sentitzen duten, eta hori oso baliagarria da gero ikasleekin egoera horiek maneiatu ahal izateko.

Lan hau egin ahala nerabeen beharrak, desioak eta sentimenduak zein diren ezagutzeko joango gara. 12 urtetik aurrera garrantzi handiko zenbait aldaketa fisiologiko, psikologiko eta sozial gertatzen dira. Horietako batzuk garatuko ditugu gure saioan:

- Gizon batek eta emakume batek nola koak izan behar duten.
- Gorputz aldaketen onarpena eta horrek dakarrena autoestimurako.



Garbiñe MERINO
Psikologoa eta sexologoa


- Masturbazio esperientziak eta horrelako plazeraren aurreko jarrera.
- Sentimendu berrien agerpena: erakarpen sexuala eta maitemintzea.
- Bikoteko lehen esperientzia sexualak.



Elkarbizitzen ikasi, komunikatzen ikasi: etorkinak gure eskolan

Koordinatzailea: Amelia Barquin

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - Haur etorkin eskolatuak EAEn eta Nafarroan: hainbat datu eta zenbait ondorio. * M^a José MOLINA. STEE-EILAS sindikatuko kidea.</p> <p>- Etorkinak eskolan: harrera-gizartean integratzea eta hizkuntzak ikastea. * Josep M. SERRA. Gironako Unibertsitateko irakaslea (<i>Gaztelaniaz</i>).</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Kultur-artekotasuna eta jarrerak gelan: autokontzeptua eta autoestima lantzen. * Nekane ARRATIBEL. Mondragon Unibertsitateko irakaslea.</p> <p>- Irakasle eta ikasleen jarrerak hobetzeko estrategiak. * Susana CORREAL. Mugarik Gabeko kidea.</p> <p>- Etorkinen estrategiak harrera-gizartera egokitzeko. * Iñaki GARCIA. Mondragon Unibertsitateko irakaslea.</p> <p>- Haurren integrazioa jatorrizko gizartetik ikusita: zer esaten dute etorkinek? * Kebir SABAR. "La Madrasa" Mundu arabiar eta islamiarraren zentroko koordinatzailea (<i>Gaztelaniaz</i>).</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Hezkuntza: kulturantza eta eleanitza. * Matilde SAINZ. Mondragon Unibertsitateko irakaslea.</p> <p>- Trintxerpeko Karmengo Ama ikastetxea: atzeritar jatorriko haurren integrazioa D eremuan. * Julian LAVADO. Irungo Berritzeguneko aholkularia.</p> <p>- Ordiziako Urdaneta ikastetxea: euskara ez dakien haurren egokitze prozesua. * Mari Karmen YÉBOLES. Ordiziako Urdaneta ikastetxeko zuzendaria.</p> <p>- Errekurtsoak, informazioa, aholkularitza... Zer dago EAEn? * Karmele PEREZ. Mondragon Unibertsitateko irakaslea.</p> <p>- Hausnarketarako proposamen batzuk. * Amelia BARQUIN. Mondragon Unibertsitateko irakaslea. 14:00 BAZKARIA</p>



Elkarbizitzen ikasi, komunikatzen ikasi: etorkinak gure eskolan



M^a Jose MOLINA

Bigarren Hezkuntzako irakaslea
STEE-EILAS sindikatuko kidea

Haur etorkin eskolatuak EAEn eta Nafarroan: hainbat datu eta zenbait ondorio

Gero eta pertsona gehiago dira arrazoi desberdinak direla medio (ekonomikoak, gerratik alde egin beharra, errepresio politikoa, genero indarkeria...) Gibraltarreko itsasarte edo Atlantikoa gurutzatzen dutenak Europaren bila. Etortzen jarraituko dute, eta gero eta gehiago izango dira, besteak beste guk, geure gizarteak, behar dituelako.

Eta jadanik gure geletan daude. Europarekin edo estatu espainiarrarekin alde-ratuta eskolatutako haur etorkinen kopurua oso baxua da. Hortaz, egoera ez da larri bezala planteatu behar, horrek errealitatearen irakurketa desitxuratua ekar baitezake. Hala ere, egia da haur etorkinen etorrera jarraia dela eta kopurua igoz doala.

Migrazio fenomenoak bizi dituzte gizarte guztietan bi alde daude: etortzen direnak eta jasotzen dutenak. Benetan

integrazio sozial egoki gerta dadin nahi badugu jasotzen duen aldeak prestatu egin behar du. Zeren integrazioa ezin baita ulertu asimilazio edo nortasun aldaketa bezala. Integrazioa biren arteko kontua da eta bi aldeak eraldatzen eta aberasten ditu.

Dudarik gabe, hezkuntza integrazio sozialerako tresna bat da, baina ez bakarria. Ez dezagun ahaztu beste hainbat aldagai ere (ekonomikoak, politikoak eta sozialak) hezkuntza eta kultura bezain garrantzitsuak direla kohesio soziala lortzeko. Oraindik garaiz gaude hemendik aurrera gure hezkuntza sisteman presente egongo den errealitatera egokitutako kriterioak eta baliabideak planifikatzeko eta gu geu prestatzeko.

Zein errealitatearen aurrean jokatu behar dugu?

Lehenengo eta behin datozen haurrak hezi behar ditugula pentsatu behar dugu. Horretarako, beharrezkoa da berdintasunerako heziketaren ildo orokorretan oinarritutako heziketa interkulturala sortzea ikastetxe eta maila guztietan. Argi eduki behar dugu pertsonok desberdintasun baino antzekotasun gehiago ditugula.

Bestalde, nahitaezkoa da herrialde etorkineko hezkuntza egoeraren diagnostiko bat egitea, kontuan harturik herrialde horren aniztasuna eta hartzen dituen herrialdeko zonaldeen ezaugarri desberdinak.

EAEn eta Nafarroan haur etorkinen inguruan egin den lehenengo azterketaren arabera errealitate kezagarri baten aurrean gaude. Haur horien gehiengoa sare publikoan kontzentratuta dago (%72) eta A eremuan (%65). Egoera horren ondorioz, alde batetik ikasleek ez dute behar

duten hizkuntza gaitasuna lortzen, eta bestetik zenbait ikastetxe ghetto bilakatzeko arriskua dago. Beraz, beharrezkoa da egoera horiek ekiditeko neurriak hartzea.

Azkenik, beharrezko baliabide egokiak beharko ditugu ikasle horiek hezkuntza sisteman integrazio osoa lor dezaten. Hainbat instituzioren artean (ez hezkuntzakoak soilik) plafinikatu behar dira baliabideak. Horien artean bada oinarritzea eta premiazkoa den bat: aldaketa guztien eragile den irakaslearen prestakuntza berezia.

Migrazio fenomenoak bizi dituzte gizarte guztietan bi alde daude: etortzen direnak eta jasotzen dutenak. Benetan integrazio sozial egoki gerta dadin nahi badugu jasotzen duen aldeak prestatu egin behar du.

Elkarbizitzen ikasi, komunikatzen ikasi: etorkinak gure eskolan



Nekane ARRATIBEL
Mondragon Unibertsitateko irakaslea


*Kultur artekotasuna eta jarrerak
gelan: autokontzeptua eta autoes-
timua lantzen*


Gure ikastetxeetara ikastera datorren etorkin kopuruak gora egiten du egunetik egunera, eta horixe izango da hurrengo urteetan ere joera nagusia. Ikasle horiek, hainbat kasutan, gurearekin zerikusirik ez duten beste gizarte modu eta kultura batzuetatik datoz, eta horrek aldaketa itzelak dakartza, baita eguneroko gauzarik txikienetan ere. Horregatik guztiagatik oso garrantzitsua da ikasle horiekiko dugun jarrera, edo hobeto esan, portaera. Kontuan izan behar da ikasle horiek gelara sartzen direnean bakarrik, bazterturik, esaten dena ulertzen ez dutela, desberdin... sentitzen direla askotan. Ikaslearen integrazio bidean zeresan handia du irakasleak eta honek adierazitako jarrerak, eta baita gainerako ikaslearen jarrerak ere. Eta horiek modu egokian bideratu eta

jarrera egokiak transmititzea da irakaslearen lanik garrantzitsuenetariko bat.

Autokontzeptuaren eraketan oso garrantzitsuak dira ikasleak bere inguruko pertsonetatik (kasu honetan irakasleak eta beste ikasleak) jasotzen duen informazioa. Informazio horrek ikasleari bere buruaren irudi bat egiten lagunduko dio. Eskola eremuan autokontzeptu akademikoa izan daiteke garrantzitsuena, ikasleak ikaskuntza prozesua aurrera eramateko dituen gaitasunen ideia. Halere, beste hainbat eremutan ere eragin handia izan lezake autokontzeptuak, pertsonen arteko harre-

manetan, kasu. Irudi horren bitartez ikasleak bere niaren ebaluazio afektiboa egingo du, eta horrela bere autoestimua garrantuko du. Ikasleari ikusten duena gustatzen bazaio eta bere buruaz, oro har, pozik sentitzen bada, autoestimu maila altua duela esango dugu, eta alderantziz, bere buruarekin pozik ez badago, autoestimu baxuaz hitz egingo dugu. Autokontzeptua eta autoestimua faktore baldintzatzaileak suertatzen dira ikaslearen errendimenduan eta pertsonen arteko harremanetan.





Elkarbizitzen ikasi, komunikatzen ikasi: etorkinak gure eskolan



Susana CORREAL

Mugarik Gabeko kidea

Irakasle eta ikasleen jarrerak hobetzeko estrategiak

Traketsak edo bidegabeak iruditzen zaizkigun portaeren aurrean, edo eskolan gerta daitezkeen gatazken aurrean, jokatutako horiek aldatzeko lana eta kemena ezagutza mailara bideratzen dugu askotan, argudio zehatz batzuk eta pentsaera argia izateagatik modu egokian jokatu dugulakoan. Gure esperientziak, bai pertsonalak, bai heziketa arlokoak, erakusten digu sarritan ideien eta portaeren artean ez dela koherentziarik izaten.

Jarrerak oso garrantzitsuak dira egoera hau ulertzeko. Baina batzuetan ez diegu behar den garrantzirik ematen eta ez dugu ahalegin nahikorik egiten gure jarrerak zein diren aztertzeko. Dakigunez, jarrerak oso lotuta daude pertsonen sentimenduekin. Alde hori bigarren mailan uzten da askotan, ez gaude ohituta gure sentimenduek adierazten, eta arazo bat dugunean errazagoa da arazoari buruz zer pentsatzen dugun esatea, nola sentiarazten gaituen azaltzea baino.

Kulturarteko heziketan gai nagusia da hori. Edozein iritzi justifikatzeko argu-

dioak daude eta informatzeko edo kontzientziatzeko eztabaidak sortzea beharrezkoa da; baina pertsonaren barneko emozio munduan dagoena (espazioa galtzeko beldurra, mesfidantza, jakingura, autoestimua, bizi izan ditugun esperientziak...) izango da batez ere portaera baldintzatuko duena. Horregatik da oinarrikoa hori guztia ezagutzea eta lantzea.

Gure lan proposamenak jarrerak lantzeko bi esku-hartze maila hartzen ditu bere baitan:

- Irudien arloa. Munduari buruz irudi bat daukagu: irudiek mundua ezagutzen eta gure espazioa aurkitzen laguntzen digute. Talde jakin bateko kideak izateagatik pertsonari egokitzen zaizkien estereotipoak dira askotan.

- Sentimendu pertsonalen arloa.

Oinarriko pauso bat jarrerekin lotutako lan honetan ondokoa da: konturatzea jarrera desberdinak daudela eta jarrera horiek zein diren antzematea; baina ez geure burua epaitzeko, baizik eta konturatzeke non gauden eta zergatik, eta beste leku batean egon nahi badugu, zer behar dugun eta prozesu horri ekiteko zer tresna dugun ohartzeko. Jarreraren atzean premia pertsonalak daude beti, eta beharrezkoa da behar horiek ezagutzea.

Oso garrantzitsua da erreferente berriak eta positiboak ere sortzea, alegia, gure pentsamendua zabalduko duten eta sentitzeko moduan eragina daukaten esperientziak.

Azken finean, gaia giza harremanen eta gatazken konponketaren ikuspegitik enfokatzeko badugu, gure proposamena ondokoa da: pertsonengan hazkuntza prozesua sustatzea, posizionamendu edo jokiera jakinak bigarren mailan utziko dituen eta gure sentimenduek eta premiak lan ardatz hartuko dituen.



Karmele PEREZ

Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Baliabideak, informazioa, aholkularitza... Zer dago EAFn?

Etorrinak iritsi zaizkigu eskoletara. Duela gutxi arte ezagutzen ez genituen etorkin motak etorri zaizkigu eta ikastetxe askok, irakasle askok, ez dakite nora jo, ez dakite non bilatu, ez dakite zer baliabide eskaintzen dizkien EAEko hezkuntza sistemak.

Saio honek hainbat pista eman nahi ditu. Izan ere, ikastetxeek jakin behar lukete zer baliabide eskaintzen dituzten Hezkuntza Sailak eta Ordezkaritzak eta jakin behar lukete zer egiten ari diren Berritzeguneetan, zer plangintza ari diren diseinatzen hemen eta han, nora jo dezaketeten eta zertarako, zer argitalpen eta zer esperientzia ari diren sustatzen, zer den bitartekaritza kultural eta linguistikoa, zer den eskolatze mahaia...

Horretan saiatu nahi dugu, alegia, zerrendatzen eta jakinarazten zein baliabide eta laguntza eskura dezaketeten ikastetxekeo dinamikak optimizatzeko eta behar dituzten laguntzak jasotzeko.

Elkarbizitzen ikasi, komunikatzen ikasi: etorkinak gure eskolan



Kebir SABAR

“La Madrassa” mundu arabiar eta islamiarraren zentroko koordinatzailea

Familia marokoar etorkinak Euskal Herrian eta seme-alaben heziketa

Nahiz eta hiritar marokoarren presentzia 60ko hamarkadaren amaieran hasi Euskal Herrian, orain dela gutxi hazi eta aniztu da. 60ko hamarkadan hasi, 70, 80 eta 90eko hamarkadak igaro eta XXI. mendean jarraitzen duten milaka proiektu migratzaile dira.

Proiektu horietako bakoitzaren atzean historia indibidual edota kolektibo bat dago. Garai zehatz batean hasten da, leku definitu batean, eta etorkin guztien bizitza, eta heriotza zenbait kasutan, baldintzatzen dituen hainbat gertaerez beteta dago.

Etorkin guztiek, gizon eta emakumeek, baliabide material eta sinbolikoak aktibatzen dituzte beren jatorrizko lekutik ateratzen direnean eta leku berrira iristen direnean. Iritsitako herrialde berrian bizitzeko edo irauteko erabiltzen diren estrategiak hiru gauzek baldintzatzen dituzte:

irteerako unea, jatorrizko herrialdeko egoera eta herrialde berriko espektatibak.

60 eta 80ko hamarkaden artean Euskal Herria iritsitako lehen etorkin marokoarrek *ikustezintasuna* erabili zuten estrategia bezala eta beren helburua epe motz edo ertainean lortu ondoren *itzuli* egiten ziren. 90eko hamarkadako etorkinek, ordea, gehiago inplikatu behar izan zuten atzerriratzeari, lan prekarietateari eta eze-gonkortasun juridikoari irtenbidea emateko. Eta behin-betiko itzuleraren ordez bi munduren arteko bizitza *nomada* hartu zuten.


Familiarekin berriz elkartzea gizon aitzindarien itzuleraren porrotaren erantzuna izan zen, eta 90eko hamarkadako gizon-emakumeentzat ondo hausnartutako erabakia. Haur txikiekin datozen emakumeek eta hemen jaiotzen direnek etorkizuneko proiektu bat irekitzen dute.

Lehen belaunaldiko gurasoek beren etorkizunari buruz galdera gehiegi egin gabe eskolatzen zituzten seme-alabak. Dirua aurreztu eta denak batera itzultzea besterik ez zuten buruan. Baina denbora joan ahala, itzulera gero eta zailagoa bihurtzen zen eta seme-alabak bi espazio soziokultural desberdinetan, eta batzuetan gatazkatsuetan, hazten ziren: eskola, lagunak, kalea, euskara eta gaztelania eta hemengo pautakulturalak alde batetik; etxea, gurasoak, Marokoko familiartekoa, arabiera eta berebera, ohitura eta erlijio musulmana bestetik. Semeek lan merkatuan sartzeko adina ikasi behar zuten eta gurasoei itzulerako proiektuan lagundu; eta alabek nerabegarora arte ikasten zuten gero hemengo edo hango lehengusu batekin ezkontzeko.

80ko hamarkadaren bukaeran hiri handietako gizon eta emakumeak iritsi ziren, eskola graduatua eta unibertsitate ikasketen arteko ikasketak zituztenak, eta horrek etorkinek eskolarekiko zuten erlazioa aldatu egin zuen. Lehen belaunaldiko gurasoen eta 80ko hamarkadaren bukaeran eta 90eko hamarkadan zehar etorritakoen artean harremana Euskal Herri osoan ireki ziren mezkiten inguruan garatu da.

Momentu honetan etorkin marokoarrek beren atzerriratzearen kontzientzia hartu dute eta beren seme-alaben etorkizunaren inguruan galderak planteatzen hasi dira: zer egin nortasun galeraren aurrean? Nola irakatsi jatorrizko hizkuntza eta kultura? Nola transmititu seme-alabei beren erlijioaren balioak? Zein dira, beraien ustez, eskolak transmititu behar dituen balioak?...

Lehen belaunaldiko gurasoek beren etorkizunari buruz galdera gehiegi egin gabe eskolatzen zituzten seme-alabak. Momentu honetan seme-alaben etorkizunaren inguruan galderak planteatzen hasi dira.



Elkarbizitzen ikasi, komunikatzen ikasi: etorkinak gure eskolan

Iñaki GARCIA

Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Etorkinen estrategiak harrera-gizartera egokitzeko

Lan honetan testuinguru aldaketa baten aurrean (kultura batetik bestera igarotzean) gizabanakoen egokitzapena nola gertatzen den aztertuko da. Gizabanako batzuek edo gizabanako talde batek bere testuinguru kulturala beste batera joateko uzten dutenean, harrera-gizarteko kideekin ukipen egoeran jartzen dira. Kulturarteko ukipen horrek taldearengan eta gizabanakoengan aldaketak sorraraziko dituen akulturazio prozesua abiarazten du. Aldaketa horiek maila askotan dute eragina: jarreretan, identitatean, taldeen arteko jokabideetan eta abar. Redfield, Linton eta Herskovits-en (1936) arabera, akulturazioa bi kultur talde desberdin eta autonomoren arteko ukipenaren ondorioz sortzen den aldaketa besterik ez da. Beste autore batzuek (Azurmendi, Romay eta Valencia, 1996), berriz, akulturazio hitzari har dakiokkeen zentzu negatiboa saihestearren, kulturazio hitza erabiltzen dute fenomeno bera adierazteko.

Akulturazioaren gaiari buruzko interesa ez da gaurkoa eta eredu teoriko anitz eskaini dira fenomeno hori aztertzeko; guk Berryren eredu erabiliko dugu.

Berryk (1980) lau akulturazio estrategia bereizten ditu: banantzea (beren kulturari eusten diotenak), integrazioa (jatorrizko zein harrera-taldearen kulturarekin identifikatzen direnak), asimilazioa (jato-

rizko kultura harrera-taldearen kulturarekin ordezkatzeko dutenak) eta dekulturazioa (identifikazio kulturalik egiten ez dutenak). Gogoan izan behar da estrategia horiek definitzeko ez dela harrera-taldearen ikuspegia erabiltzen, horrela eginez gero integrazio edo asimilazio terminoek beste esanahi bat izango bailukete.

Aurkezpen honetan lau autonomia erkidego elebidunetan (Katalunia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Valentzia) Espainiatik etorritako etorkinen seme-alabek (gaizki deitutako bigarren belaunaldiko etorkinak) egiten dituzten akulturazio estrategiak aztertzen dira, eta subjektuek lortzen duten tokian tokiko hizkuntzaren ezagutza mailan eta erabilpen mailan horiek duten eragina ere aztertzen da.

Autonomia erkidego gehienetan integrazio estrategia da nagusi. Hau da, emigranteen seme-alabak integratuta sentitzen dira beraien autonomia erkidegoan eta, aldi berean, gurasoen kultura edo kultura horrekiko identifikazioa izaten jarraitzen dute. Tokian tokiko hizkuntzaren ezagutza mailari dagokionez, asimilazio eta integrazio estrategiak garatzen dituztenek lortzen dute ezagutza mailarik altuena. Bi talde horien artean, ezagutza mailan desberdintasun esanguratsurik ez dago. Bai, ordea, erabilera: asimilazio estrategia garatzen dutenak, hau da, harrera-taldeko kulturarekin soilik identifikatzen direnak dira tokian tokiko hizkuntza gehien erabiltzen dutenak.



Matilde SAINZ

Modragon Unibertsitateko irakaslea

Hezkuntza: eleanitza eta kulturarantza

Gure hezkuntza sistema eleanitza da: euskara, gaztelania eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza baten irakaskuntza ohikoa da gure eskoletan. Euskara eskolatu zen unetik, bokazio eleanitza izan du gure hezkuntza sistemak: bi hizkuntza elkarrekin bizi izan dira eskolan (euskara eta gaztelania edo euskara eta frantsesa), eta horien presentzia handiagoa edo txikiagoa izan da, ikasleen jatorriaren arabera eta inguruko hizkuntzen arabera. Esan daiteke, gauza asko egiteke gelditzen badira ere, oro har, gure hezkuntza komunitateak ahaleginak egin dituela gizartearen ezauzgarri dinamikoetara egokitzeko.

Azken urte hauetan denontzat ezaguna den beste aldaketa nabarmen bat jasan du gure eskolak: haur etorkinak eseri dira gure ikasgeletan, oso urrutitik etorritakoak, bestelako kultura dutenak eta bestelako erlijioa dutenak.

Elkarbizitzen ikasi, komunikatzen ikasi: etorkinak gure eskolan

Egoera berri horren aurrean, eskolak pentsa dezake aurretik eginiko lanak ez direla hutsalak izan eta erabilgarri izango dituela haur etorkinekin erabiltzeko ere: murgiltze programak, garatutako metodologiak —dela edukien bitartezko hizkuntza irakaskuntza/ikaskuntza, dela proiektuen bitartezko irakaskuntza/ikaskuntza, dela talde kooperatiboen inguruko lanak...—, sortutako materialak.... Pentsa dezake, gainera, lehen ere izan dituela elkarrekin, gela berean, ama hizkuntza desberdineko haurrak.

Eta egia da gaur egun duela urte batzuk genekiena baino askoz ere gehiago daki-gula murgiltzeaz, edukien bitartezko hizkuntza irakaskuntzaz, proiektuen bitartezko irakaskuntzaz, talde lan kooperatiboez eta abarrez; baina gogoan izan behar dugu orduko egoera eta oraingoa arras desberdinak direla zenbait faktoretan. Suarez-Orozco (2001) galdera hauei erantzun behar diegula esaten du: zer dakigu eta zer jakin behar dugu haur etorkinei buruz aro global berri honetan? Zer da berria emigrazio honetan? Autore horrek Ameriketako Estatu Batuei egokitutako zerrenda egiten du eta guk geurea egin beharko dugu. Topaketa hauetan zerrenda hori egiten saiatuko gara eta gure kezka eta beldurrak kanporatuko ditugu ahalik eta irtenbide egokienak bilatzeko.



Julian LAVADO
Irungo Berritzeguneko aholkularia

Trintxerpeko Karmengo Ama ikastetxea: atzeritar jatorriko hauren integrazioa D ereduan

Trintxerpeko Karmengo Ama ikastetxean *ikasketa komunitateak* izeneko proiektua jarri zen martxan. Aniztasuna tratatzerako berrikuntza esperientzia batean oinarritzen da berau.

Ezberdintasunak gainditzeko eta ikaskuntza errazteko eskolaren eraldaketa beharrezkoa da. Proiektu hau, beraz, eraldaketa hori lortzeko esku-hartze orokorrean datza.

Proiektuaren ezaugarri nagusiak aipatzen hasita, zera esan daiteke. Hasteko, eskola auzora eta ingurunera irekitzen dela. Horrek komunitate osoaren inplikazioa dakar eskolan. Bestalde, gelako esku-hartze metodologikoa sustatzea nahitaezkoa da, eta horretarako, inplikatu guztien prestakuntza beharrezkoa da.

Proiektuaren gakoak honako hauek dira:

- Esperientzia arrakastatsuei buruz har-

tutako datuak.

- Informazio gizartean gaudenez, horrekin batera eskola eta hezkuntza premiak sortzen dira.


- Komunikazio Ekintzaren Teoria (Haberman).

- Eskolaren botere eraldatzailea (Freire).

- Eskola tradizionalari aurre egiteko mugimendua

Nire saioan, beraz, Trintxerpeko Karmengo Ama ikastetxeko "ikasketa komunitatearen" esperientziaren berri emango dut. Proiektuaren sorrera eta garapena azalduko ditut, proiektuan sartzeko prozesua nolako izan zen azalduz. Ondoren, oinarri pedagogikoak eta gehien zabaldutako diren berrikuntzak aipatuko ditut, eta azkenik ondorioak.

Aniztasun
trataerarako
berrikuntza
esperientzia
batean
oinarritzen da
ikasketa
komunitateak
izeneko
proiektua



Elkarbizitzen ikasi, komunikatzen ikasi: etorkinak gure eskolan



Amelia BARQUIN

Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Hausnarketarako proposamen batzuk

Dakigunez, etorkinen eskolatzea ez da fenomeno berria gure artean; bai, oster, estatu kanpotik datozen etorkinena, orain arte esanguratsua izan ez dena. Haur hauen kopurua hazten joan da eta, beste erkidegoekin konparatuta oraindik handia ez bada ere, ez dago dudarik joera areagotu egingo dela.

Etorkinen eskolatzeari modu egokian erantzun behar diogu, jakina: irakaskuntza sistemarentzat aniztasun mota *berri* horri lotutako egoera ezezagunak sortzen dira; erroka berriak, beraz. Une hauetan hainbat mailatan ari dira egiten gogoeta ikasle etorkinak eskolan eta gizartean integratzeko estrategiei buruz. Gogoeta horietan arreta gehien jasotzen ari diren bi alderdi daude: alde batetik, hizkuntzen irakaskuntza/ikaskuntza (nola eta noiz irakatsi euskara, gaztelania eta hirugarren hizkuntza, haurren ama hizkuntza ahaztu gabe) eta, bestalde, harrera *planak* (nola antolatu haurren trataera ikastetxera iristen direnean eta eskolatzearen lehenengo fasean).

Horretaz, besteak beste, arduratuko dira aurreko hizlariak. Baina badago zer pentsatua horretaz aparte ere: zer da *kulturarteko hezkuntza*? Goiko alderdiekin soilik lotuko al dugu? Ikastetxean zein alderditan egin behar da gogoeta eta hartu behar dira erabakiak egun kulturarteko hezkuntzara gerturatzeko? Nahikoa al da (edo komeni al da) urtean behin kulturarteko festa bat ospatzea edota immigrazioaren inguruan unitate didaktikoren bat sartzera Historia ikasgaietan? Zer gehiago egin behar da? Eta garrantzitsua ere baden beste galdera bat: honetaz guztiaz noiz arduratu behar dugu? Eskolan haur etorkinak ditugunean soilik?

Kulturartekotasuna ikuspegi edo enfoke bat dela onartzeak esan nahi du ikastetxearen alderdi guztiak blaituko dituela, etorkinak egon edo ez: curriculumean eragina izango du, baina ez soilik zehar lerro moduan; hainbat motatako gatazken aurrean irtenbideak bilatzeko estiloan islatuko da; haurren jatorrizko komunitatea baloratzeko eta eskolan integratzeko moduan aurkituko da; jatorri desberdinetako haurrek dauzkaten ezaguerak baloratzeko eta integratzeko moduan geratuko da agerian; eta abar. Alderdi horietan guztietan erabakiak hartzea eta horiek modu egokian kudeatzea ez da erraza izango. Bestalde, eta hasteko, irakasleok geure paradigma aldatu behar dugu eta hori lortzeko (eta baita hori lortu eta gero ere) beharrezkoa da informazioa eta prestakuntza jasotzea. Zein arlotan?


Kulturarteko hezkuntzarekin lotuta aipatu ditugun alderdiez, sortzen diren zailtasunez eta irakasleoren prestakuntzaz arituko gara hitzaldi honetan, batez ere.

Ikastetxean zein alderditan egin behar da gogoeta eta hartu behar dira erabakiak egun kulturarteko hezkuntzara gerturatzeko?
Honetaz guztiaz noiz arduratu behar dugu?
Eskolan haur etorkinak ditugunean soilik?



Antzuolako herri ikastetxeko proiektua

Uztailak 2	Uztailak 3	Uztailak 4
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia 9:30 - Eskolaren ezaugarri nagusiak. - Antolaketa: bi etapen ezaugarriak.</p> <p>* Eugenio SASIETA eta Axun MUJIKA. Bertako irakasleak.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloa. - Ardatz metodologikoak. - Adibideak.</p> <p>* Mila ETXEZARRETA eta Axun MUJIKAKA. Bertako irakasleak.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>	<p>9:00 - Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloak. - Ardatz metodologikoak. - Adibideak.</p> <p>* Pilar ETXANIZ eta Eugenio SASIETA. Bertako irakasleak.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Antzuolako herri ikastetxeko proiektua

Antzuolako Herri Eskola, Antzuolan dagoen Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakarra dugu. Ikasle kopurua 130 ingurukoa da eta 17 irakaslez osatutako plantila dugu.

Hezkuntza Proiektua esanguratsu, sentikor eta abegitsua izatea gure lehenengo xedea da eta horregatik, eskola eta kanpoko errealitateen arteko harreman sendoa eraikitzen eta mantentzen saiatzen gara. Eskola bizia izateko, atak zabalik ditugu, kanpotik haize bolara freskoak sar daitezten, eta bi munduak ondo komunikaturik egoteko zubiak eraikitzen jarraitzen dugu.

Irakasleria osoa elkarlanean ariturik, Hezkuntza Proiektu bateratua eraikitzen joan gara, teoria, praktika eta hausnarketa uztartzearen ondorioz, alegia.

Gure proiektuaren ezaugarri bat konstruktibismoan oinarritzea da eta ikaslea ulertzeko modua du bereizgarri. Saiakeraren abiapuntuan, ikaslea bere osotasunean jartzen dugu, hau da, ikasle bakoitzak sentitzeko, egoteko, interpretatzeko, pentsatzeko, erlazionatzeko eta komunikatzeko dauzkan hainbat era jaso eta eraginkorrak bilaka daitezten bideak ireki. Horrek aniztasuna jardueraren ardatza bihurtzen du.

Ikasle taldeak antolatze orduan, adin bakoitzaren ezaugarri nagusienak hartzen ditugu kontuan.

Beraz, egozentrismoa eta dezentrazioa kontuan harturik, bi etapetan antolaturik gaude: Haur eta Lehen hezkuntzako 1. zikloa eta Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloak. Lehenengo etapan sei talde ditugu eta bigarreanean lau talde.

Ekintzak duen garrantzia kontuan har-



Eugenio SASIETA



Axun MUJICA



Mila ETXEZARRETA



Pilar ETXANIZ

Antzuolako herri ikastetxeko irakasleak



Antzuolako herri ikastetxeko proiektua

Antzuolako herri ikastetxeko proiektua

turik, lehenengo etaparen ardatz metodologikoa berezko ekintza izango da eta bigarren etaparena proiektuak.

Etapak bakoitzaren barruan, adin bakoitzak berezko berezitasunak ditu. Horregatik, 1. etapa, taldeak hiru egituretan antolatuz daukagu: 2 urtekoen egitura, 3 eta 4 urtekoena eta 5, 6 eta 7 urtekoen egitura.

Egitura bakoitzaren barruan gela irekiak daude adin desberdinen arteko interakzioak bultzatzeko. Pentsakeraren zirkulazio librearen printzipioak zuzentzen du ingurune hezitzaile hau eta bertan hainbat ekintza bultzatuko dituzten espazio komunak daude, material eskaintza handi batekin. Adin talde bakoitzak, bere egituraren barruan, komunikaziorako topagune bat dauka eta hortik proiektuak sortuko dira. Topagunean ikasle guztiak pentsatzen dutena adierazteko aukera daukate; ideia eta azalpen guztiak tokia daukate. Gaiak eta ekintzak ikasleen iniziatibaz sortzen dira, inplizitoki zein esplizitoki adieraziak.

Proiektuen bitartez ezaguerak antolatzeko estrategiak sortzen saiatzen gara, aprendizaia erritmo desberdinak errespetatuz.

Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetan proiektuek markatzen dute jardueraren ildoak. Eta ezaugarri hauek dituzte:

- Ikasleen interesek definitzen dute zer gairen inguruan gauzatuko diren. Talde bakoitzak bere gaia aukeratzen du
- Ikas-arloak proiektuaren beharrei erantzuteko tresna bilakatzen dira, ezagueraren izaera integratua abiada izanik arlo bakoitzaren identitatea indartuz.
- Ezaguera eraketa kulturala izanik, irakas-ikas testuinguruak errealitatearen konplexutasunean oinarrituko dira, pen-

tsakeretan ematen den aniztasuna kolektiboaren ezaguera areagotzeko baliabide bihurtuz.




Hezkuntza Proiektu esanguratsu, sentikor eta abegitsua izatea gure lehenengo xedea da eta horregatik, eskola eta kanpoko errealitateen arteko harreman sendoa eraikitzen eta mantentzen saiatzen gara.



hik hasik

euskal hezitzaileen harpidetza behar du



30 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure parte-hartzea
ezinbestekoa zaigu

harpide zaitetz!

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale
eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA
SARIAK**
(BEZ barne)

30 euro

Hego Euskal Herria
5.000 pezeta
Ipar Euskal Herria
200 libera

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54